

# **HEZKUNTZA-EREMUKO GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO TXOSTENA**

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua**

*Laguntzaile teknikoa:*

2021eko urriaren 5a



**AURKIBIDEA**

<b>0. Proiektuaren aurkezpena eta txostenaren egitura</b>	3. or.
<b>1. Hezkuntza-eremuko Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia (GJPK) aztertzeo prozesua. ELGAren Toolkit-a egokitzea</b>	7. or.
<b>2. Prozesuaren baldintzatzaileak</b>	12. or.
<b>3. Prozesutik eratorritako emaitzak</b> a) <i><b>Kontzeptuzko esparrua</b> garapen jasangarrirako politiken koherentziari dagokionez</i> b) <i><b>GJPKrako lehentasunezko arloen mapa</b>, garapen jasangarrirako hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuan.</i> c) <i><b>Koherentzia-azterketa</b>, nazioarteko parametroetan oinarrituta (ELGA)</i> i. <i>Irizpide bakoitzari buruz eskuragarri dagoen informazio-maila</i> ii. <i>Irizpide bakoitzaren betetze-maila: ebidentzia nabariak eta hobetzeko arloak</i>	16. or.
<b>4. Ondorioak</b>	78. or.
1. eranskina. Erreferentzia dokumentalak	82. or.
2. eranskina. Erreferentzia dokumentalak Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan abian jarritako ekimenen inguruan	84. or.
3. eranskina. GJPK aztertzeo tresna	87. or.
4. eranskina. Sakoneko elkarrizketetarako gidoia	96. or.

**0. PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA TXOSTENAREN EGITURA**

*Aurrekariak, justifikazioa eta helburua*

2016ko apirilaren 5ean Gobernu Kontseiluak **Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua** onartu izana da txosten honen aurrekaririk zuzenena. Esparru horren arabera, garapenerako politiken koherentzia da **giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegia politika publikoen** maila guztietako **diseinuan, abiaraztean eta ebaluazioan integratzea**, eta politika horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna ahalbidetzea. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak onartzen du **garapenerako politiken koherentziak oinarritzko erreferentzia bat izan behar duela Gobernuaren ekintzarako**, nola barneko garapen-estrategiei hala kanpo-ekintzari edo bi gaien arteko erlazioari dagokienez. Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparru horrek koherentziarako lehentasunezko bi eremu ezartzen ditu: Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintza eta **balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politika**. Horrez gain, beharrezkoa den **erakundearteko koordinazioa** azpimarratzen du.

Nazioarte-mailan, garapenerako politiken koherentziaren kontzeptua 90eko hamarkadan sortu zen, baina 2015eko irailean lortu zuen behin betiko berrespena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak** onartu zituenean. Zehazki, **17.14 xedea** garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea da, politika sektorialen arteko sinergiak kapitalizatzeko, askotariko helburuen arteko tentsioei aurre egiteko eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eremuen artean orekak bilatzeko funtsezkoa den heinean.

Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren eremuan, otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 3.11 artikulua ezartzen du **euskal administrazio publikoek zainduko dutela garapenerako lankidetzari loturik aurrera daramatzaten jardunen koherentzia**, eta hori XI. Legegintzaldiko Gobernu Programaren 171. konpromisoan berretsi da. Arau-esparru horrekin bat etorriz, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2014-2017 Plan Estrategikoan jaso zuen **garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko konpromisoa**, eta 2014an Hegoari eskatu zion Euskadin gai horri buruzko azterlan bat egin zezan. 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean ezarri denez, **garapenerako politiken koherentzia lehentasunezko jardun-ardatza** da, eta planaren helburuen artean dago, Eusko Jaurlaritzaren barruan politiken koherentzia horretan aurrera egitea ahalbidetuko duen arkitektura garatzea. Txosten hau beste ekarpen bat da, helburu hori lortzeko bidean.

Bestetik, 1/2007 Legeak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari eskumena ematen dio **urteroko txosten bat egin dezan euskal administrazio publikoen jardunek koherentzia-printzipioa zenbateraino betetzen duten neurtzeko**. Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean politiken koherentziari eman zaion lehentasun estrategikoarekin bat etorriz, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak urteroko txostenak egin ditzala sustatzeko helburuarekin, 2019ko uztailaren 3an Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziari (GJPK) buruzko lantalde bat sortu zen haren barruan. Talde horren barruan, **hezkuntza-eremuan Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia lantzeko azpitalde** bat eratu da,

eLankidetzak, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU-UPV) eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak osatua, lehen txosten honen elaborazioa bultzatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren mailan, Euskal Autonomia Erkidegoko Politiken Koherentziarako Erreferentziatzko Esparruak lehenetsitako eremuei dagokienez, hots, kanpo ekintzari eta balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politikari dagokienez, kanpo ekintzaren eremuan lehen urratsak egiten ari dira politiken koherentzia handitzeko zenbait ekimenen bitartez, egiaztatu ahal izan denez. **Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren** eremuan, berriz, hainbat ekimenetatik eratorritako **ikaskuntzen ahalmena** dagoela detektatu da, GJPKan aurrera egitea ahalbidetzen dutenak. Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan bultzatutako ekimenen azterketa eta laburbiltze ordenatua baliagarri dira, bai ekintza berriak garatzeko, bai eremu horretan GJPKaren gaineko arkitektura hobetzeko.

Hezkuntza-eremuak berebiziko garrantzia dauka Eusko Jaurlaritzaren GJPKan aurrera egiteko, eta horrela jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparruan, **giza garapen jasangarri eta bidezkoa eragiten duten printzipioen zabalkundea** hezkuntza-eremuko maila guztietan sustatzean jartzen duelako arreta, euskal curriculumak kompetentzien garapena ahalbidetu dezan belaunaldi berrien prestakuntza kosmopolita batetik abiatuta, egungo munduaren arazoak hobeto interpretatzeko, eta, Euskadin eta munduko gainerakoan, pertsonen ongizate eta duintasunerako planteatutako erronkei arduraz eta elkertasunez heltzeko.

Horren guztiaren ondorioz, **Eusko Jaurlaritzaren hezkuntzaren eremuko GJPKari buruzko lehen txostena** egin da, giza garapen-eredu jasangarri eta bidezkoaren balio eta printzipioak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren lana oro har ahalbidetu duten politika eta jardunbideen azterketan ardaztuta.

**Hezkuntza-esparruari dagokionez Eusko Jaurlaritzan GJPKaren egoera zertan den jakitea da** txostenaren helburua, eta, hortik abiatuta, **ikaskuntzak eta hobekuntza-elementuak** sortzea giza garapen jasangarriaren printzipioak bultzatuko dituzten politiken koherentzia-ekimenak martxan jartzeko. **Eusko Jaurlaritzak balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren** eremuan duen esperientziatik abiatuta, esperientzia hori honako hauei loturik aztertzen da:

- Eusko Jaurlaritzan Hezkuntza Sailaren eta Gobernuko beste Sail eta instantzien artean garatutako osagarritasun, koordinazio eta koherentziarako **ARKITEKTURA**. Erakundeak, kontseiluak, batzordeak, arauak eta plan espezifikokoak sartuko lirake horren barnean.
- **DINAMIKA** eta **JARDUNBIDE** operatiboak, hala nola proiektuak, programak, zerbitzuak, deialdiak, finantzaketa-lerroak edo baliabide espezifikokoak.

Termino espezifikoagoetan, txostenak honako hauek ere lortu nahi ditu:

- ✓ **Kontzeptuzko esparru** bat ahalbidetzea, **Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren ulertzea, oinarritzea eta inplikazioa** Eusko Jaurlaritzan argitzeko eta bateratzeko lagungarri.

- ✓ **Hezkuntza-eremuaren barruan GJPKan aurrerapen nabariak dakartzaten ekimenen mapaketa oso eta ordenatu bat egitea**, horietan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako instantzien berri emanez.
- ✓ Aztergai diren ekimenak garatuz Eusko Jaurlaritzak lortutako **koherentzia-maila aztertzeke tresna kontrastatu eta baliodun bat identifikatu eta zehaztea**.
- ✓ Lehen txosten hau egiteko **garatutako prozesua aztertzea**, hezkuntza-eremuan edo beste eremu batzuetan GJPKari buruzko txostenak egitea gidatuko duten gomendioak ateratzeko. Tresna hobetzeko gomendioak formulatzea, behin tresnaren erabilgarritasuna kontrastatu ondoren.
- ✓ Aztergai diren ekimenen garapenean **jardunbide egokien ebidentziak biltzea eta hobetzeko arloak identifikatzea**, hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzak GJPKan egin beharreko aurrerapena gidatzeko, baina, aldi berean, erreferentzia-iturri bat izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publikoen arteko koherentziarako zein hezkuntzaz aparte beste hainbat eremutarako.

#### *Azterketaren xedea eta norainokoa*

Lehen txosten honetan aztertu beharreko **norainokoa mugatuta** dago, batetik, aztergaiaren **konplexutasunagatik**, eta, bestetik, lehen esperientzia honen aurrean horrek agente inplikatu guztientzat suposatzen duen **ziurgabetasunagatik**, **garrantziko informazioa eskuratu eta erabiltzeko aukerei** dagokienez batez ere.

Horrenbestez erabaki da **aztergaia** lotuko zaiela, Eusko Jaurlaritzak, jarraian zerrendatzen diren irizpideekin bat etorritik, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan aurrera daramatzen ekimenei.

1. **1. IRIZPIDEA. Giza Garapen Jasangarriarekin zuzeneko lotura** bat duten ekimenak
2. **2. IRIZPIDEA.** Osagarritasunean, eta/edo koordinazioan eta/edo baterako jardunean oinarritutako dinamika bati jarraikiz, **Eusko Jaurlaritzako gutxienez bi sailen** esku-hartzea duten ekimenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparruko tresnatzat jo izan diren Koherentziari, Koordinazioari eta Osagarritasunari jarraikiz, hain zuzen.
3. **3. IRIZPIDEA. Nahitaezko hezkuntza formalaren** eremuari lotuta dauden ekimenak (DBHko 4. mailaraino).
4. **4. IRIZPIDEA.** Hezkuntzaren eremuan GJPKaren gainean **kontuan hartu beharreko ikaskuntza eta jardunbideak** dakartzaten ekimenak.

Txostena honela egituratzen da:

- ✓ **1. kapitulua. Hezkuntza-eremuan Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia aztertzeke prozesua**, horretarako sortutako fase, zeregin eta foroak zehaztuz, eta **ELGaren Toolkit-a** aztertzeke tresna gisa aurkeztuz.

- ✓ **2. kapitulua. Prozesuaren baldintzatzaileak**, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuan GJPKari buruzko azterketa egiteko garrantzizko informazioa lortzea errazten eta oztopatzen duten elementuekin.
- ✓ **3. kapitulua. Prozesutik eratorritako emaitzak**, hau da, erreferentzia gisa hartzen den GJPKaren gaineko **kontzeptuzko esparruaren** identifikazioa; balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan GJPKrako **lehentasunezkoak diren arloen mapaketa**; eta eremu horren **koherentzia-azterketa** nazioarteko parametroetan oinarrituta (ELGA), hiru mailatan:
  - Irizpide bakoitzaren gainean eskuragarri dagoen informazioa.
  - Irizpide bakoitzaren betetze-maila, ebidentzia nabarien berri emanez eta hobetzeko arloak identifikatuz.
  - Tresnaren hiru blokeetako bakoitzak kontrol-koadro bat garatzea.
- ✓ **4. kapitulua. Ondorioak**, non prozesuari zein emaitzei buruzko balorazio orokor nabarmenenak bilduko diren, GJPK aztertzeko tresnaren gaineko ohar batzuk zehaztuz, txosten honen eremu partikularrera egokitu ondoren tresna egokia ote den hausnartu eta ondorengo azterketetarako eguneratu eta gero.
- ✓ **1. eranskina. GJPKari buruzko erreferentzia dokumentalak**, hau da, GJPKari eta haren aplikazio eta bilakaerari buruzko txostenak, arau-testuak eta entseguak.
- ✓ **2. eranskina. Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan abian jarritako ekimenei buruzko erreferentzia dokumentalak**, txosten honen eremua mugatzen duten irizpideak betetzen dituzten guztiak bilduz.
- ✓ **3. eranskina. GJPK aztertzeko tresna**, ELGAREN *Toolkit-a* txosten honen testuingurura eta norainokora egokitzearen ondorioa.
- ✓ **4. eranskina. Sakoneko elkarrizketetarako gidoia**, GJPK aztertzeko tresnaren sinplifikazioaren emaitza gisa, eta funtsezko berriemaileen informazioa eta balorazioak biltzeko erabilia.

## **1. HEZKUNTZA-EREMUKO GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIA AZTERTZEKO PROZESUA. ELGA-REN TOOLKIT-A EGOKITZEA**

Txosten hau egiteko jarraitutako prozesua osatu duten fase, jarduera eta espazio guztiak labur-labur aurkezten dira kapitulu honetan. Nabarmenezkoa da, horrelako azterketen gainean erreferente hurbil baldiodunik ez dagoenez, are gutxiago hezkuntzaren eremu eksklusiboan, eta Eusko Jaurlaritzak Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziari buruz garatutako lehen txostena denez, jarraitutako metodologia **aitzindaria eta berritzailea** dela, **nazioarteko estandar bat** azterketa honen eremu eta testuinguru partikularrean **egokitu** den heinean. Hortaz, **esperientzia pilotu** bat dela esan dezakegu, hainbat gauza ikasteko aukera emango diguna GJPKaren gaineko ondorengo garapenetarako.

Erronka metodologiko horren aurrean, honako premia hauek identifikatu ziren:

- Kontzeptuzko esparrua eta ikuspegia adosteko premia.
- Tresnak eta metodologia diseinatzeko premia.
- Eusko Jaurlaritzako hainbat eragilerekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko GJPKaren gaineko taldearekin lankidetzazko prozesu bat aurrera eramateko premia.

Fase horietako bakoitza zabaldu bitartean, eta oso bereziki fase bakoitzaren amaieran, prozesuaren **Talde Eragileak**, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko hezkuntza-eremurako GJPKaren gainean lan egiteko azpitaldeko kideez osatuak (eLankidetzak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU-UPV eta Euskadiko GGKEen Koordinakundea), zeregin berezi bat izan zuen fase horietan garatutako **tresna eta edukiak balidatu eta kontrastatzeko** lanetan.

Premia horiei behar bezala erantzuteko eta txostenaren helburuak lortzeko, honako urrats hauek egin dira:

### ***GJPKari buruzko Kontzeptuzko Esparrua egiteko fasea***

Lehen urratsa izan zen **GJPKari buruzko Kontzeptuzko Esparru** bat garatzea, inplikaturako eragile guztiei ikuspegi horren gainean bat egiteko, eta ikuspegi hori eta dakartzan printzipio eta posizionamenduak eta balioa modu berean ulertu eta interpretatzeko bidea errazteko.

Fase hori garatzeko, ikuspegiaren kontzeptualizazio eta bilakaeraren **azterketa dokumentala** egin zen, hau da, Eusko Jaurlaritzak eremu horri dagokionez zeukan dokumentazioa, GJPKari buruzko estatuko eta nazioarteko txostenak, eta hezkuntza-eremuko GJPKari buruzko zenbait erreferentzia espezifiko aztertu ziren.

Lehen azterketa dokumental horren ondorioz, **Kontzeptuzko Esparruaren lehen proposamen** bat egin zen, honako hauek jasota: Giza Garapen Jasangarriaren (GGJ) definizioa; Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziari lotutako definizioa, printzipioak eta onurak; eta Koherentziaren, Koordinazioaren eta Osagarritasunaren tresnari buruzko erreferentzia esplizitu bat, politika publikoen garapenaren zikloan GJPK aztertzeke lehen hurbilketa baten antzera.

Proposamena **Talde Eragilearekin kontrastatu** da. Horren ondorioz, testuari zenbait iradokizun erantsi zaizkio, eta Kontzeptuzko Esparru hau behin betiko konfiguratu da, eta erreferentziazko puntu bateratu gisa erabiliko da prozesuan aurrera egiteko Eusko Jaurlaritzako gainerako eragileekin lerrokatuta.

*Eusko Jaurlaritzako balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan lehentasunezko arloen mapaketa egiteko fasea.*

**Eusko Jaurlaritzak balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan abian jarritako ekimenen** artean azterketa-esparruarekin bat zetozenak **lehen aldiz laburbildu ziren, ordenatuta**, prozesu honen baldintza teknikoan agirian. Ekimenak ezaugarritu ziren GGJari lotutako honako **gai, balio eta printzipio** hauetan oinarrituta: hezkidetzeta, bizikidetzeta positiboa, inklusioa, aniztasuna, giza eskubideak, gizartean parte hartu eta inplikatzeko, zientzia, teknologia eta berrikuntza, ekimena eta espirtu ekintzailea, ingurumen-jasangarritasuna, kultura eta hizkuntza-politika, izaten ikastea, ikasten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, eta hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioa eta komunikazio digitala.

Guztira, **estrategia, esparru, plan eta koordinazio-egiturei buruzko 38 erreferentzia** eta proiektu, programa, zerbitzu, deialdi eta kolaborazioei lotutako **18 ekimen operatibo** bildu ziren lehen zerrenda horretan.

Hezkuntza Saileko zuzendaritzekin eta haien teknikariek hainbat elkarriketa eginez, **mapaketaren lehen bertsio** hau osatu zen, betiere, txosten honetan aztertu beharreko eremua eta norainokoa definitzen duten irizpideak zein diren kontuan hartuta.

- Nahitaezko hezkuntza formalarekin lotutako ekimenak
- Eusko Jaurlaritzako gutxienez bi Sailek parte hartzea
- GGJari lotzea

Prozesuaren une honetan, mapaketa baliagarria izan da, batez ere, **oinarri dokumental espezifiko** bat eman duelako Eusko Jaurlaritzak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan aurrera daramatzan dinamika eta jardunbideen eta horien arkitekturaren inguruan, eremu hori GJPK aztertzeke funtsezkoa dela aintzat hartuta. Modu osagarrian, ekimenen mapa hori aberastu da Eusko Jaurlaritzako hainbat Sail eta instantziatako pertsonak identifikatuz ekimen bakoitzaren **funtsezko berriemaile** gisa, eta horrek aukera eman du ikerketa kualitatiboko fase bat garatzeko **sakoneko 23 elkarrizketaren** bitartez. Elkarrizketetan bildutako informazioari esker burutu da mapaketa.

*Hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzaren GJPK aztertzeke tresna garatzeko fasea*

GJPK aztertzeke proposamen metodologikoei buruzko ikerketa eta azterketa dokumentalaren haritik, ELGAren "[Policy Coherence for Sustainable Development](#)" izeneko *Toolkit-a* hautatu zen.

Tresna hori, jatorrizko bertsioan, **hiru bloke handiz, 8 atalez eta 29 item** edo galderaz osatua dago.



## 1. BLOKEA: IKUSPEGIA ETA LIDERGOA

### 1.1. Konpromiso Politikoa

### 1.2. Epe Luzerako Ikuspegi Estrategikoa

### 1.3. . politiken integrazioa

## 2. BLOKEA: EKINTZA KOORDINATUA

### 2.1. Politiken koordinazio horizontala (Sailen artean)

### 2.2. Politiken barne-koordinazioa (Hezkuntza Sailaren barruan)

### 2.3. Interes-taldeen parte-hartzea.

## 3. BLOKEA: INPAKTUA, ETA ERABAKIAK JAKINARAEN GAINEAN HARTZEA

### 3.1. Inpaktuak politiketan eta finantzaketan

### 3.2. Jarraipena, txostenak eta ebaluazioa

Nazioartean kontsolidatuta dagoen tresna bat da, hainbat estatuk eta nazioarteko erakundek erabiltzen baitute. Kide bakoitzak GJPKrako jardunbide egokiak aprobetxatzea ahalbidetzen du, horretarako sortutako gordailu baten bitartez, eta beste Gobernu batzuek GJPKan duten mailarekin konparatzeko azterketak egiteko aukera ere ematen du.

Tresna ingelesez diseinatu da soilik, eta GJPK Gobernu baten politika guztien mailan aztertzea du jomugan. Hortaz, **itzuli** egin behar izan zen, eta txosten honen eremura **egokitu**: Eusko Jaurlaritzaren balioetan eta hezkuntza-politikan oinarritutako prestakuntza. Horrez gain, tresnaren gaitasun analitikoak aberastu zen Koherentzia, Koordinazio eta Osagarritasunarekin, eta prozesu honen kontzeptuzko esparruan hartutako GJPKaren printzipioekin: "Hemen eta orain", "Beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin", eta "Beste gizarte batzuekin, beste toki batzuetan".

Taula bat konfiguratu zen, item edo galdera bakoitzaren logikak GJPKaren ikuspegitik mapatutako hezkuntza-ekimenak ikertu eta aztertzearekin zenbateraino uztartzen zen egiaztatzeko, erabili baino lehen. **Tresna Talde Eragilearekin aurkeztu eta kontrastatu zen**, eta, horri esker, galdera edo item batzuetako formulazioak egokitu ziren, eta azterketa honetarako beste espezifiko batzuk erantsi, guztira **32 galdera** biltzeraino (ikus 3. Eranskina).

Hezkuntza-eremuko Eusko Jaurlaritzaren GJPK aztertzeko tresna honen aplikazioa osatzeko, Ikuspegi eta Lidergoari buruzko eta Inpaktuari erabakiak jakinaren gainean hartzeari buruzko blokeetan bildutako ekimen bakoitza ezaugarritu da, GJPKaren barruan dagokien printzipioaren arabera: "**Hemen eta orain**"; "**Beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin**"; "**Beste gizarte batzuekin, beste toki batzuetan**".

- "Hemen eta orain": Egungo balioak eta erronkak (berdintasuna, inklusioa, berdintasuna, giza eskubideak).
- "Beste belaunaldi batzuk/planeta": konpromisoa gizateriaren eta planetaren etorkizunarekin (jasangarritasuna).

- “Beste gizarte, leku batzuk”: erreferentzia globalak, ekintza beste herrialde batzuekin adostuz (lankidetzak, elkartasuna, bizikidetzak lokala eta globala).

Gobernuko sektore eta mailen arteko ekintza koordinatuari buruzko blokean bildutako ekimen bakoitza honako irizpide hauen arabera sailkatu da:

- **Koherentzia:** integralagoak diren eta begirada bateratuago bat garatzeko bide ematen duten ekintzak eta lan-espazioak.
- **Koordinazioa:** araudi bidez ezarritako edo ad hoc sortutako erreferentzia-esparruak eta espazioak, Sailen arteko elkarlana eta elkarrizketa areagotzea ahalbidetzen dutenak, eta horietatik eratortzen diren ekintzak.
- **Osagarritasuna:** Sailak edo erakunde autonomoak beren ekimenez eta beste Sailen inplikaziorik gabe egiten ari diren ekintzak, betiere garapen jasangarrirako politikarekin koherentzetat jo badaitezke, balioetan eta hezkuntza-politiketan oinarritutako prestakuntza-arloarekin, kasu honetan.

### ***Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan Eusko Jaurlaritzaren GJPK aztertzeke fasea.***

Fase honetan, **sakoneko 23 elkarrizketak** egin ziren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zein beste Sail eta instantzietako funtsezko berriemaileekin, azterketa-tresnatik abiatuta konfiguratutako gidoien bitartez. Eusko Jaurlaritzan horrelako azterketa bat egiten zen lehen aldia zenez, egokitzen jo zen elkarrizketetarako gidoia tresnaren bertsio sinplifikatu bat izatea, bereziki erabilitako terminologiari eta eskatutako informazioaren kantitateari eta sakontasunari dagokienez, horrek tresna horren funtsari eta xedeari kalterik ez eragiteko moduan. Azken gidoia **21 galderaz** osatua dago (ikus 4. Eranskina).

Fase honetan, Eusko Jaurlaritzako honako instantzia hauek hartu dute parte:

- Hezkuntza Saila
  - Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza eta teknikariak (Berritzeguneak)
  - Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza eta teknikariak (Berritzeguneak eta hezkuntza-ikuskaritza)
  - Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
  - eLankidetzak
  - Emakunde
  - Giza Eskubideak, Biktimak eta Aniztasuna
  - Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
- Lehendakariak

- Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
  - Ingurumen Sailburuordetza

Elkarrizketa-fase hau **Hezkuntza Saileko zuzendaritzekin** hasi zen, eta haren ekarpenak hainbat xedetarako izan ziren baliagarri eta garrantzitsuak izan ziren gainerako elkarrizketatuen ahotik eratorritako informazioaren bilketa ahalik eta modurik eraginkorrenean eta osoenean gidatu eta garatzeko. Hezkuntza Saileko zuzendaritzei egindako elkarrizketei esker, Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan lehentasunezkoak diren arloen mapaketa burutu zen, eta ekimen bakoitzeko erreferentziazko agenteak identifikatu ziren. Horrez gain, GJPK aztertzeako tresna kontrastatu zen, baita informazioaren bilketarako erabili behar zen gidoiari zegozkion galderak ere. Azkenik, zuzendaritzako pertsonen ezagutza eta hausnarketa berezi orokor eta estrategikoak azaldu zituzten, aztertu beharreko eremuaren gainean.

Aldi berean, tresna hori bera erabiliz, Eusko Jaurlaritzak balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan abian jarritako ekimenen mapaketari lotutako dokumentuak bildu eta aztertu ziren. Elkarrizketetan identifikatutako erreferentzia espezifiko berriak erantsi ziren, eta guztira **40 dokumentu aztertu ziren**.

#### *GJPK aztertzeako tresna baloratzea eta eguneratzea*

GJPK aztertzeako tresna erabili ondoren, haren item bakoitzaren **ulermena, funtsezkotasuna eta bideragarritasun operatiboa** baloratu dira, Eusko Jaurlaritzari gomendioak emateko etorkizunean tresna erabili behar duenerako, eta, horretarako, tresnaren **bertsio eguneratu** bat konfiguratzearren.

#### *Kontrastea eLankidetzaren eskutik eta Talde Eragilearekin*

Prozesua hasi zenez geroztik, **eLankidetzarekin** harremanetan egon gara etengabe, aurrerapenak kontrastatzeko, kronograma eta metodologia doitzeko, eta, azterketa honen haritik, pertsonengana eta dokumentaziora iristeko zabalkunde logistiko zabal eta konplexua ahalbidetzeko.

Horrez gain, fase bakoitzaren amaieran, aurrerapenak eta egin beharreko hurrengo urratsak **Talde Eragilearekin** kontrastatu dira.

## **2. PROZESUAREN BALDINTZATZAILEAK**

Kapitulu honetan, **hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzaren GJPKari buruzko lehen txostena egiteko prozesua erraztu eta oztopatu duten alderdien laburpen bat** egin da.

Prozesua **erraztu duten faktoreei** dagokienez, honako hauek detektatu dira:

- Eusko Jaurlaritzak GJPK ezinbesteko erreferentziatzat jotzen du bere Gobernu-ekintzan. Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren aldeko konpromisoa hartu du Gobernu-ekintzarako erreferentetzat jotzen duen heinean, eta konpromiso hori lagungarri da GJPKaren aldeko posizionamendu horretan.
- GJPK ezinbesteko ikuspegi gisa sendotzen ari da politika globalen mailan. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) funtsezkoak izaten ari dira ildo horretan. Gainera, COVID-19aren pandemiaren inpaktuak eta hortik abiatuta ireki den eszenatoki berriak joera eta posizionamendu horiek azeleratu eta sendotu dituzte.
- Hezkuntza Sailak txosten hau estrategikotzat jotzen du, bere hezkuntza-politika, 2030 Agendaren printzipio eta xedeei eta GGJari argi eta garbi lotuta dagoena, garatzeko, eta, horri esker, lortu nahi diren hezkuntza-helburuak betetzeko. Sail horrek txostena ongi gauzatzeko garrantzi berezia duenez, posizionamendu horrek erraztu du haren liderrek, aldez aurretik, prozesua errazteko jarrera eskuzabala hartzea, eta txosten hau konfiguratu ahal izateko ezinbestekoak izan diren ekarpen guztiak egitea.
- Kontsultatutako Sail, zuzendaritza eta gainerako instantzietako arduradunek GJPKrantz eta GGJrantz aurrera egiteko borondate argia erakutsi dute, ikuspegi horien berezko printzipio eta balioekin bat datozela eta lerrokatzen direla argi eta garbi erakutsiz. Horri esker, txosten honetarako balio handikoak diren dokumentu eta balorazioak eskuratzeko aukera izan da.
- Aitortu beharra dago ahalegin handia egin dela, prozesu honen aurreko fase gisa, hezkuntza-eremuaren ekimenak laburbildu eta ezaugarritzeko, Eusko Jaurlaritzak GGJ eta GJPK sustatzeko egindako aurrerapenen erakusgarri. Ezbairik gabe, produktu hau balio handikoa izan da fase guztiak garatzeko ekimenean, eta abiapuntu moduko bat ere izan dela esan daiteke, GGJ sustatuz eta GJPK sendotuz Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-ekintza guztien dimentsionamenduan eta garrantzian aurrera egiteko bidean lagungarri.
- eLankidetzaren funtsezko babesa izan dugu une oro, eta horri esker GJPKari buruzko garrantzizko dokumentazioa eskuratzeko, gai horretan adituak diren pertsonengana iristeko eta elkarrizketen agendaren logistika antolatu eta funtsezko berriemaile ugarirekiko harremana errazteko aukera izan dugu. Prozesu honen konplexutasuna eta zabaltasuna aintzat hartuta, haien zeregina funtsezkoa izan da etapa guztiak behar bezala betetzeko.

- Atzeman denez, Eusko Jaurlaritzan kontsultatutako pertsona batzuen ustez GJPK eta GGJ Gobernu honen ekintzaren bereizgarriak dira.  
Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko eragileak ere bat etorri dira aitortza horretan, eta hori bada balorazio hori oinarritzeko beste argudio bat.
- Kontsultatutako pertsonak aldeko jarrera erakutsi dute alde aurretik, eta hori aitortu eta eskertu behar da, beren agenda estuetan toki bat egin dutelako eta txosten hau egiteko garrantzitsua izan den informazio guztia gardentasunez eta zorroztasunez partekatzeko prest agertu direlako, eta, ildo horretan, balio handiko iritziak eman dizkigutelako, Eusko Jaurlaritzan hezkuntza-eremuari loturik duten esperientzia profesional zabalean eta sendoan oinarrituta.
- Txosten honek lagungarri izan behar du Gobernu-ekintzatik, eta oso bereziki Hezkuntza Siletik, hezkuntza-eremuan GJPK eta GGJ bultzatzeko abian jarritako ekimenak nabarmendu eta aitortzeko, eta itxaropen hori berretsi dela esan dezakegu.
- Hezkuntza Saila betidanik ahalegindu da, nabarmen, beste Sail batzuekiko lankidetzaz-espíritu bat garatzen, balio jakin batzuetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko, eta tradizio hori lagungarri izan da Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan GJPKan aurreratutako guztia leialtasunez berreraikitzeke.
- eLankidetzaren eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren zeregin bultzatzailea nabaria da, eta hori lagungarri izaten ari da Eusko Jaurlaritzaren barneko egitura sentsibilizatu eta kontzientziatzeko, ikuspegi honen egokitasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren arkitektura eta dinamika operatiboetan pixkanaka integratu beharraren inguruan.

Prozesua **oztopatzen duten faktoreei** dagokienez, berriz, pertsona eta entitate parte-hartzaileei dagozkienak eta azterketa-tresna metodologikoari dagozkionak bereizi dira.

**Entitate eta pertsona parte-hartzaileen kondizioekin zerikusia duten erronkak:**

- Eusko Jaurlaritzaren barruan nolabaiteko ezjakintasuna atzeman da, GJPKaren kontzeptuaren, haren esentzia bereziaren, haren balio eta printzipioen eta politika publikoen konfigurazio, zabalkunde eta ebaluazioko ziklo osoan duen garrantziaren inguruan. Eta hori hobe liteke, GJPKaren interpretazio eta inplikazioak Eusko Jaurlaritzako eragileen artean lerrokatzeke.
- Eusko Jaurlaritzaren egitura eta funtzionamendua sail-ikusmolde bati lotzen zaizkio, non hainbat eremutan espezializatutako instantzia ugari biltzen diren, GJPKaren berezkoagoak diren zeharkako ikuspegi hibridoak garatzea oztopatzen duena Egungo egitura-ereduak ez du jardunen baterako garapena errazten, eta topaguneak informatiboak dira, neurri handi batean.
- Eusko Jaurlaritzaren arkitektura eta dinamika operatiboak ez dira oraindik diseinatu GJPKaren ikuspegitik. Egiturazko esparru hori oztopo bat da eraldaketa kultural eta operatiboa arintasunez garatzeko bidean, eta horretarako beharrezkoa da Gobernuaren ekintza GJPKaren ikuspegiaren gainean oinarritzea eta hortik abiatuta gidatzea.
- Kontsultatutako pertsona gehienek adierazi dute gehiegizko lan-karga oztopo bat dela,

ez bakarrik honelako prozesuetan parte hartzeko. Izan ere, funtsean, GJPKan aurrera egitea ahalbidetuko lieketen topaguneak aprobetxatzeko behar adinako denborarik ez dutela diote, eta hausnartzeko eta GJPK behin betiko bultzatzeko lagungarri izango liratekeen zentzuzko balorazioak formulatzeko behar den patxadaren falta ere azpimarratu dute.

- GJPKak lan-karga handitzea ekar dezakeelako beldurrak eta mesfidantzak atzeman dira, Gobernu-egiturak oraindik ez direlako aldatu GJPK Gobernu-ekintzaren zeharkako ikuspegi gisa erabat integra dadila errazteko.
- GJPKaren berezko galderari buruz erantzuteko ohiturarik eza ere detektatu da, baita, ildo horretatik, ikuspegi horrek planteatzen duen begiradatik aztertu eta hausnartzeko ohiturarik eza ere, norberaren ardurapeko eremuan.
- Eusko Jaurlaritzaren barruan hezkuntza-eremuko estrategia eta ekintza partekatua zabaltzeko formatua askotarikoa da. Batzuetan, Hezkuntza Saila dago haren buruan, Gobernuko beste instantzia batzuen laguntza jasotzen du; eta, beste batzuetan, lidergoa beste Sail bati dagokio, eta Hezkuntza Sailak lagundu egiten du. GJPKaren gainean esparru bateratu bat ez izateak arrisku bat suposatzen du, litekeena delako jardun-ildo horiek modu desberdinetan zabaltzea.
- Arlo edo ekimen jakin batzuen buruan dauden pertsona batzuetan izaten diren aldaketek eta legegintzaldi berri bakoitzean Gobernuaren egituran gertatzen diren aldaketek ekintzetan jarraitutasuna izatea oztopatzen dute, baita Gobernu-ekintzan GJPK integrazteko behar den epe luzerako kultura-aldaketa sakona ere.
- Gainera, prozesu honek badu, berez, beste erronka argi bat: aztertu beharreko eremuaren konplexutasun handia eta dimentsio zabala.

#### ***GJPK aztertzeke tresnaren konfigurazioarekin lotutako erronkak***

- Gobernuak ez dauka GJPK aztertzeke berezko irizpiderik, ezta GJPK garatzeko estrategia edo planifikazio estrategikorik edo GJPKan lortu beharreko helburu jakinik ere. Horrenbestez, mapaketan sartu beharreko eta GJPKaren arabera aztertu beharreko ekimenen hautaketa egin da funtsezko berriemaileen iritzi subjektiboetatik abiatuta.
- Ez dago hurbileko erreferenterik GJPKari buruzko antzeko txostenen elaborazioari dagokionez, eta are gutxiago hezkuntza-eremuan. 2018an Euskadiko GGKEen koordinakundeak argitaratutako dokumentua aipa daiteke bakarrik: Politiken eta Giza Garapen Iraunkorraren arteko ikuspegiaren arteko koherentziaren azterketa. Proposamen metodologikoa.

- Ez da GJPK aztertzeke tresna espezifiko bat ere sortu Gobernu baten politika edo eremu jakin bati aplikatzeko modukoa, ezta hezkuntza-eremurako espezifikoki garatutako ezer ere.
- GJPK aztertzeke tresnan bildutako gai batzuetarako, zuzendaritzako edo erantzukizuneko maila handiko pertsonak dira kualifikatuta dauden berriemaile bakarrak. Eta agenda estua dutenez, batzuetan horrek moteldu egin du prozesuaren etapa jakin batzuk betetzeko aurrerabidea.
- Tresnaren itemak inolako azalpenik edo testuingururik gabe irakurtzean, zenbait pertsonak kontrako jarrera erakusten zuten edo urrundu egiten ziren, aztertutako gaien zabaltasuna eta galdetutakoaren konplexutasuna ikusirik. Alabaina, sentrazio hori hizketan hasi eta berehala desagertzen zen, ondo ezagutzen zituzten alderdietara bideratzearen.

### **3. PROZESUTIK ERATORRITAKO EMAITZAK**

Kapitulu honetan, aurrera eramandako **zehazte-, laburbiltze- eta aztertze-prozesutik eratorritako hiru emaitzak** aurkeztuko ditugu. Horietako bakoitza, aipatu berri ditugun prozesuko hiru osagai edo dimentsioetako bati dagokio. Bakoitzak berezko balioa du, baina segida logiko bat konfiguratzeko dute aldi berean, non bakoitzak beste biei eusten dien.

#### ***a. Kontzeptuzko esparrua garapen jasangarrirako politiken koherentziari dagokionez***

**GGJari, GJPKari eta haien printzipio eta onurei buruzko kontzeptuzko esparru argi eta partekatu bat** zehaztea funtsezko abiapuntu bat da, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko ekimenen mapaketa eta azterketa egiteko faseak modu koherente, sendo eta zorrotzean egiten direla bermatzeko.

Xede horretarako sortutako dokumentuaren edukia azalduko da jarraian, eta horren helburua da **erreferentziazko esparru** baliagarria izatea, askotariko agente parte-hartzaile ugarien **ulermena lerrokatzeko** eta errazteko, txosten hau egiteko prozesua garatzeko baliatu diren kontzeptu eta printzipio guztien inguruan.

#### ***a.1 Giza Garapen Jasangarriaren kontzeptua (GGJ)***

**Garapenerako Nazio Batuen Programak** honela definitzen du **Giza Garapen Jasangarria (GGJ)**:

Pertsonen **askatasuna** adieraztea:

- **Bizitza luze, osasuntsu eta sortzaile bat** bizitzeko.
- **Baloragarritzat** jotzen dituzten **helburuak** betetzen ahalegintzeko.
- Partekatzen duten planetaren garapen jasangarri eta bidezkoan **aktiboki parte hartzeko**.

**Pertsonak dira**, banaka edo taldeka izan, giza garapenaren **onuradunak eta bultzatzaileak**. Beharrezkoa da pertsonen eta haien gaitasunen zentraltasuna —nazioei eta haien baliabideei emandako lehenetasunen aurretik— **etorkizuneko belaunaldien bizi-baldintzak bermatzeko** beharrezkin uztartzea. Azken batean, garapena ulertu beharko litzateke egungo belaunaldien gaitasunetan ez ezik, etorkizuneko belaunaldien eta planetaren gaitasunetan ere oinarrituta.

**Paradigma-aldaketaren** haritik zenbait elementu identitario datoz, GGJaren indar-ideia nagusiak osatzen dituztenak: **guztion ongizatea/gizakiaren zentraltasuna, jasangarritasuna, gaitasunak/ahalduntzea, parte-hartzea eta berdintasuna**. Hain zuzen ere, indar-ideia horiek izango dira, Eusko Jaurlaritzak politiken koherentzian azalduko konpromisoei jarraikiz, ebaluazio-irizpideen definizioari bide emango diotenak.

**Balio horiek** 2030 Agendarekin bat datoz: 2030 Agendaren egiturari jarraikiz, GGJaren elementu batzuk zehaztu dira, hezkuntzako eta balioetan oinarritako prestakuntzako politiketan txertatzeko modukoak. Elementu horiek ahalbidetu dute aztertu beharreko Sailak, planak eta ekintzak hautatzea:

- **Pertsonen arteko desparekotasunak murriztea: hezkidetza, inklusioa, dibertsitateak.**



- **Bakea** eta Gobernu ona: **giza eskubideen errespetua, bizikidetzatza, partekatze eta inplikazio soziala, "elkarrekin bizitzen ikastea"**.
- **Oparotasuna**: garapena, zientzia, teknologia eta berrikuntza giza garapen jasangarriaren zerbitzuan, "Ekimena eta espiritu ekintzailea".
- **Planeta**: gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna.
- **Aliantzak**: lorpen sozialak "Izaten ikasteari", "Pentsatzeko ikasten ikasteari" eta "Hitzezko, ez-hitzezko komunikazioari eta komunikazio digitalari" dagokienez.

Kontzeptu hori garrantzi handiagoa hartzen ari da Nazio Batuek **2030 Agenda** sortu zutenez geroztik garapen globalerako agenda baten antzera, **Garapen Jasangarrirako Helburuetan** zehazten dena.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du bere politika publikoak 2030 Agendako 17 GJHeKin lerrokatzeko konpromisoa.

### **a.2 Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren (GJPK) definizioa**

"Eusko Jaurlaritzaren ustez, garapenerako politiken koherentzia da:

- giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegia integratzea...
- ...politika publikoak maila guztietan diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea,
- .... baita horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna ere; ...
- ...horrez gain, **oinarrizko erreferentzia bat izan behar du Gobernuaren ekintzarako**, nola barneko garapen-estrategiei hala kanpo-ekintzari edo bi gaien arteko erlazioari dagokienez."

(Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko garapenerako politiken koherentzia: diagnostikoa eta proposamenak, 2015).

Hala, **Gobernu-ekintzaren helburu estrategikoa Giza Garapen Jasangarria da, hura lortzeko gobernantza-filosofia Garapen Jasangarritako Politiken Koherentzia da, eta 2030 Agendak eta haren GJHeK, aldi baterako kudeaketa-tresna bat osatzen dute.**

### **a.3 GJPKaren printzipioak**

Giza garapen jasangarriarekiko koherentea izateko, edozein politika publikok honako printzipio hauek bete beharko lituzke, inpaktu positibo bat sortzearren:

## HEMEN ETA ORAIN

Eskubide sozial, ekonomiko eta ingurumenekoekin lotutako egungo eta hurbileko erronkei heltzea, **gainerako politika publikoekiko garapenaren ikuspegi partekatu** batetik.

## BESTE BELAUNALDI BATZUEKIN ETA PLANETAREKIN

**Eguno erronkekiko ikuspegia** bateragarri egitea, gizateriaren zein planetaren eta haren biodibertsitatearen **etorkizunarekiko konpromiso arduratsua ahaztu gabe**, ziklo politikotik haratago joango den epe luzerako konpromiso jarraitu bati eutsiz.

## BESTE GIZARTE BATZUEKIN, BESTE TOKI BATZUETAN

Giza garapen jasangarriaren erronka globalei erantzukidetasunetik aurre egiteko, **ikuspegi lokal edo nazionalak globalekin lotzea**, toki-ekintzek beste herrialde batzuetan, bereziki pobretuetan, duten inpaktua kontuan hartuz, beste herrialde edo gizarte batzuekin itundutako ekintza bat sustatuz.

### *a.4 GJPKaren onurak*

- GJPKak **giza garapen jasangarriaren transbertsalizazioa** errazten du **gobernu-ekintza osoan**, eta **maila goreneko konpromiso politikoa** hartzea dakar kontzeptu horri dagokionez.
- GJPKak bultzatzen du **garapenerako lankidetzaren politikaren eta gainerako politiken artean sinergiak** bilatzea, politika, Gobernu-eremu eta lurraldeen arteko interdependentziak ezagutu eta aitortzetik abiatuta.
- GJPKak Gobernu-ekintza osoari **sendotasuna, efikazia eta efizientzia** ematen dio, epe luzera.
- GJPKak **gobernagarritasunaren ikuspegi integral eta inklusibo** bat hartzen laguntzen du.
- GJPKak **ekintza kolektibo eta itundu** bat sustatzen du herrialdeen eta Gobernu-eremu eta lurraldeen artean.

Azken batean, GJPKak berekin dakar giza garapen jasangarriaren helburuen zerbitzuan dauden politiken elkarrekiko indartzeetatik eta sinergietatik ahalik eta etekinik handiena ateratzea.


### *a.5 Hurbiltzeko tresna: Koherentzia, Koordinazioa eta Osagarritasuna politika publikoen zikloan*

GJPKaren zabalkundeak eskatzen du **giza garapen jasangarria politika publikoen garapenaren ziklo osoan integratzea**: politika publiko guztien eta bakoitzaren diagnostikoa, diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa.

Tresna bat proposatzen da (**Koherentzia, Koordinazioa eta Osagarritasuna**), Eusko Jaurlaritzaren garapenerako politiken koherentziarako erreferentziazko esparruan zehaztutako garapen jasangarriko helburuen eta politiken arteko koherentzia-maila guztiak egituratu eta aztertu ahal izateko (Kontseilua 2016).

Tresna horretan hiru maila zehaztu dira:

- **KOHERENTZIA: integralagoak diren eta begirada bateratuago bat garatzeko** bide ematen duten ekintzak eta lan-espazioak, **garapen jasangarrirako politiken koherentziaren inguruan**. Hori politika eta ekintza batzuen bitartez gauzatzen da, ikuspegi partekatu batekin eta helburu komun bati jarraikiz, diseinutik aplikaziora bitarte logikari berari jarraikiz antolatzen direnak, haien artean disfuntziorik sortu gabe. Horretarako, elkarrizketa politiko eta teknikorako espazioak eduki behar dira.
- **KOORDINAZIOA:** koordinazioa **Sailen artean hitz eginez lan egitea** litzateke, horrela haien politika eta ekintzen elementu batzuk partekatzeko. Horretarako, zehaztutako erreferentziaguneak edo estrategia eta ekintza partekatuak eduki behar dira.
- **OSAGARRITASUNA:** Sail edo erakunde autonomoen arteko ekintza zehatzak, **beren ekimenez eta beste Sailei askorik komunikatu gabe** egiten ari direnak, eta garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lagungarri izan daitezkeenak.



***b. GJPKrako lehentasunezko arloen mapa, garapen jasangarrirako hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuan.***

Behin kontzeptuzko esparru komun bat zehaztu ondoren, hurrengo urratsa izan da, Eusko Jaurlaritzak, txosten honen elaborazioa mugatzen duten irizpideekin bat etorritik (txostenaren 5. orrian aipatzen dira) **hezkuntza-eremuan** garatutako **ekimen guztiak eta bakoitza identifikatzea, laburbiltzea eta ezaugarritzea, nola arkitekturari hala jardunbide operatiboetarako dagokienez.**

Prozesu honen baldintza teknikoaren agiriaren identifikatutako azterketa-espazio eta azterketa-estrategiei buruzko koadrotik abiatuta, Hezkuntza Sailarekin lau bilera egin dira, eta eLankidetzari hainbat kontsulta egin zaizkio mapaketa hau osatzen jarraitzeko. **Arkitektura** (planak, araudiak, batzordeak, kontseiluak, foruak, instantziak, etab.) eta **dinamika eta jardunbide operatibo** (estrategiak, programak, proiektuak, zerbitzuak, deialdiak, finantzaketak, lerroak, baliabide espezifikoak) guztiak laburbiltzeko lana burutu da, 23 elkarrizketetan jasotako informaziotik abiatuta.

Mapaketa egituratu da hezkuntza-politiken eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuan GGJ sustatzen duten gai eta eskumenetatik abiatuta, eta Eusko Jaurlaritzan haien garapenerako lagungarri diren ekimenetan parte hartzen duten Sailak eta instantziak identifikatuz, GJPK zenbateraino bultzatzen ari den egiaztatze helburuarekin.

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Hezkidetza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaten ikastea</li> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> </ul>	<b>Hezkuntza Saila</b> <small>HEZKUNTZA-EREMUKO GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO PLANENA</small>	<b>EAEko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza-plana</b> , berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023). <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkidetza Planaren Talde Eragilea</li> <li>- Batzorde Teknikoa eta Jarraipen Batzordea,</li> <li><b>Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko</b> Familia Politikarako eta Aniztasunerako Zuzendaritzako ordezkariekin eta <b>Emakundeko</b> ordezkari batekin.</li> <li>- Haur eta nerabeen babesgabezia eta tratu txar, jazarpen eta abusu sexualei loturik izan litezkeen egoeren aurrean hezkuntza-eremuan prebenitu eta jarduteko protokoloaren jarraipena egiteko eta hezkuntza-eremuaren eta adingabearen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzaren eta koordinaziorako batzordea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi sareetako ikastetxeetan hezkidetza-proiektua diseinatzeko deialdia.</li> <li>- Bestelako jardun zehatzak: mintegiak, prestakuntza, plan, orientazio, gida eta material didaktikoen elaborazioa, jardunaldiak antolatzea, etab.</li> </ul>
		<b>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</b>	<b>Emakunde</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>EAEko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Plana</b></li> <li>- Soldata-arrakalarako sailarteko mahaia.</li> <li>- Sexu-indarkeria eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat harrera hobetzeko erakundea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Soldata-arrakala murrizteko 2030 estrategia: helburu eta ekintzen jarraipena.</li> <li>- STEAM eremuarekin lotutako irakasle orientatzaileentzako prestakuntza.</li> <li>- Nahiko eta Beldur Barik unitate didaktikoak inplementatzeko lankidetzaren.</li> <li>- Berdindu-rekiko lankidetzaren.</li> <li>- Sexu- eta genero-aniztasunerako prestakuntza.</li> <li>- Protokoloa ikastetxeetan sexu-identitateari lotutako bullying-aren inguruan.</li> <li>- Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero-portaera normatiboa ez dutenei eta haien familiei laguntzeko.</li> </ul>

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Bizikidetzaren positiboa</b>  <b>Hezkuntza inklusiboa</b>  <b>Giza eskubideetan eta bizikidetzaren oinarritutako hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaten ikastea</li> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> </ul>	<b>Hezkuntza Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Eskola inklusibo bat garatzeko Esparru Plana 2019-2022.</b></li> <li>- Erakundearteko jarraipenerako batzordea, <b>Osasun Saileko</b> osasun publikoko zuzendaritzaren eta <b>Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren</b> familia-politikan eta aniztasunerako zuzendaritzaren ordezkariarekin.</li> <li>- <b>Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana 2019-2023.</b></li> <li>- Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritza-kontseilua.</li> <li>- <b>Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusiboaren esparruan. (2017-2020).</b></li> <li>- Hezkuntza-berrikuntzako prestakuntza, plan eta programei buruzko batzorde teknikoa.</li> <li>- Araudi, informazio eta planifikaziorako batzorde teknikoa.</li> <li>- Jarraipen- eta garapen-batzordea, <b>Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko</b> familia-politikan eta aniztasunerako Zuzendaritzako ordezkariarekin.</li> <li>- <b>Prest-Gara Plana.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza Laguntzako Premia Espezifikoa duten ikasleei erantzun bat emateko ekimenak.</li> <li>- Bizikidetzaren ekimenak.</li> <li>- Bestelako jardun zehatzak: mintegiak; prestakuntza; plan, gida eta material didaktikoen elaborazioa; jardunaldiak antolatzea; etab.</li> <li>- Deustuko Unibertsitatearekiko lankidetzaren gaitasun handiko ikasleei arreta emateko Plana garatzeko 2019-2023.</li> </ul>
		<b>Osasun Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Euskadiko Osasun Plana 2013-20.</b></li> <li>- <b>Suizidioa Prebenitzeko Plana.</b></li> <li>- Osasun mentaleko Aholku Kontseilua.</li> <li>- Osasun mentaleko koordinazio soziosanitarioa.</li> <li>- Adikzioen Euskal Kontseilua.</li> <li>- Euskadiko Osasun Planaren Zuzendaritza Batzordea.</li> <li>- Hezkuntzako eta Osasun mentaleko batzorde mistoa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jokabide-nahasmenduak dituzten Haur eta Nerabeekin Esku hartzeko Protokoloa eta hura abian jartzeko gida praktikoa.</li> </ul>

			- Jokabide-nahasmenduak dituzten Haur eta Nerabeekin Esku hartzeko Protokoloaren Jarraipenerako Taldea.	
--	--	--	---	--

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Bizikidetzaren positiboa</b>  <b>Hezkuntza inklusiboa</b>  <b>Giza eskubideetan eta bizikidetzaren oinarritutako hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaten ikastea</li> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> </ul>	<b>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</b> <b>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Euskadiko familiei laguntzeko erakundearteko IV. Plana 2018-2022.</b></li> <li>- Familiaren euskal kontseilua eta haren batzordeak.</li> <li>- Familia-bitartekaritzako aholkularitza-kontseilua.</li> <li>- Familiaren sailarteko batzordea.</li> <li>- <b>IV. Gizarteratzeko Euskal Plana 2017-2021</b></li> <li>- Gizarteratzeko erakundearteko batzordea.</li> <li>- Gizarteratzeko sailarteko batzordea.</li> <li>- Ikasle ijito eta migratzaileak gizarteratzeko eta hezkidetzako eta sexu-identitateko gaiak aztertzeke mahai informala.</li> <li>- Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseilua.</li> <li>- Ijito herriaren estrategiaren hezkuntzarako batzordea.</li> <li>- Arreta goiztiarreko erakundearteko kontseilua.</li> <li>- Arreta goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoa.</li> <li>- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua.</li> <li>- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.</li> <li>- Haurrak eta nerabeak zaintzeko batzorde iraunkor sektoriala.</li> <li>- Adinekoen Kontseilu Sektoriala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazte Planari lotutako hezkuntzako helburu eta ekintzen jarraipena</li> <li>- Zeuk Esan.</li> </ul>



Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<p><b>Bizikidetzaren positiboa</b></p> <p><b>Hezkuntza inklusiboa</b></p> <p><b>Giza eskubideetan eta bizikidetzaren oinarritutako hezkuntza</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> <li>- Ekimena eta espiritu ekintzailea</li> </ul>	<p><b>Hezkuntza Saila</b></p> <p><small>HEZKUNTZA-EREMUKO GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHIBENTZIA BURUZKO TRUSTENA</small></p>	<p><b>Ikasketa, Etorritasuneko hezkuntza-arretarako II. Plana</b>, eskola-eredu inklusibo baten esparruan (2017-2020).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Heziberri 2020 Plana.</b></li> <li>- <b>Prest-Gara Plana.</b></li> <li>- Hezkuntza-berrikuntzako prestakuntza, plan eta programei buruzko batzorde teknikoak.</li> <li>- Araudi, informazio eta planifikaziorako batzorde teknikoak.</li> <li>- Jarraipen- eta garapen-batzordea, <b>Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko</b> familia-politikarako eta aniztasunerako Zuzendaritzako ordezkariekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prest Gara planaren esparruan urtero eskaintako ikastaroak.</li> <li>- Hezkuntza fisikoa eta hezkuntza emozionala uztartzeko erreferentzia eta ekimenak.</li> <li>- Bizikidetzaren ekimena.</li> </ul>
		<p><b>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bizikidetzaren eta giza eskubideen plana (2017- 20, 2021-2024).</b></li> <li>- <b>Herritartasunaren, kultura-aniztasunaren eta immigrazioaren eremuan jarduteko V. Plana.</b></li> <li>- <b>Gazte Plana 2020.</b></li> <li>- Eskola-bizikidetzaren estatu-behatokia.</li> <li>- Bizikidetzaren eta giza eskubideen planerako aholku-kontseilua.</li> <li>- Bizikidetzaren eta giza eskubideen planaren sailarteko batzordea.</li> <li>- Bizikidetzaren eta giza eskubideen planari lotutako espetze-politikarako batzordea.</li> <li>- Euskadiko komunitate islamikoekiko lankidetzarako Ados aholku-batzordea.</li> <li>- Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekiko giza eskubideen kalteberatasun handiko egoerak detektatzeko erakundearteko lantaldea.</li> <li>- Gogora memoriaren eta bizikidetzaren eta giza eskubideen institutuaren zuzendaritza-kontseilua.</li> <li>- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrekin bonuak.</li> <li>- Adi-adian.</li> <li>- Eskura, Giza Eskubideei buruzko baliabide pedagogikoen zentroa.</li> <li>- Uztartu programa: indarkeriazko erradikalizazioaren prebentzioa.</li> <li>- Herenegun. Esperientzia pilotua ikastetxeetan.</li> <li>-Gogora-rekiko lankidetzaren epaimahai kalifikatzailean.</li> <li>- Heziketa topaketak (eLankidetzaren ekintza-plana).</li> <li>- Eskola munduan, Mundua eskolan.</li> <li>- Berdindu: prestakuntza sexu- eta genero-aniztasunean.</li> <li>- Gizalegez akordioa.</li> <li>- Zeuk Esan.</li> <li>- Euskarri proiektua: kalteberatasun-egoeran eta familia-erreferenterik gabe dauden adin eta gazteak gizarteratu eta</li> </ul>

			<ul style="list-style-type: none"><li>- Gizarte-zerbitzuen eta berrikuntzaren zuzendaritzako batzorde mistoa.</li><li>- Errefuxiatuen arretarako mahai instituzional eta soziala.</li><li>- Immigrazio-foroaren parte-hartze, kultura eta sentsibilizaziorako batzordea.</li><li>- Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa.</li><li>- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura.</li><li>- eLankidetzaren bake eta bizikidetzarako batzordea.</li></ul>	
--	--	--	---	--

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Bizikidetzaren positiboa</b>  <b>Hezkuntza inklusiboa</b>  <b>Giza eskubideetan eta bizikidetzaren oinarritutako hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> <li>- Ekimena eta espiritu ekintzailea</li> </ul>	<b>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enplegu Plan Estrategikoa</li> <li>- Euskadiko ekintzailtzako erakundearteko plana 2020.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurugelak.</li> <li>- Ekoetxeak.</li> </ul>
		<b>Osasun Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun-batzorde teknikoa politika guztietan.</li> </ul>	
		<b>Segurtasun Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zibersegurtasun Plan Estrategikoa 2025.</li> <li>- Euskadiko segurtasun publikoaren kontseilua.</li> </ul>	
		<b>Ekonomia eta Ogasun Saila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetan ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoa inplementatzeko lankidetzak.</li> </ul>

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekimena eta espiritu ekintzailea</li> <li>- Pentsatzeko ikasten ikastea</li> <li>- Hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioa eta komunikazio digitala</li> </ul>	<b>Hezkuntza Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ISEI-IVEIko kontseilu errektorea.</li> <li>- STEAM hezkuntza Euskadi estrategiaren Jarraipen Batzordea.</li> <li>- STEAMgunearen diseinu eta jarraipenerako lantaldea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- STEAM Euskadi estrategia.</li> <li>- Ikastetxe publikoetarako STEAM deialdia.</li> <li>- STEAMgunea: tresna didaktiko digitala.</li> </ul>

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Ingurumen-hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsatzeko ikasten ikastea</li> </ul>	<b>Hezkuntza Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- STEAM hezkuntza Euskadi estrategiaren Jarraipen Batzordea.</li> <li>- STEAMgunearen diseinu eta jarraipenerako lantaldea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- STEAM Euskadi estrategia.</li> <li>- Ikastetxe publikoetarako STEAM deialdia.</li> <li>- STEAMgunea.</li> <li>- Ingurugelak.</li> </ul>
<b>Jasangarritasunerako hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsatzeko ikasten ikastea</li> <li>- Ekimena eta espiritu ekintzailea</li> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> </ul>	<b>Lehendakaritza – Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa. Jardun Plana 2021-24.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskadi Basque Country 2030 Agendar en jarraipen-txostena</li> </ul>
		<b>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Estrategia 2030.</li> <li>- Jasangarritasunerako Hezkuntza bultzatzeko Dekretuaren zirriborroa.</li> </ul>

Gaia	Eskumena	Saila/Erakundea	Gobernantza/Arkitektura	Dinamika eta jardunbide operatiboak
<b>Kultura eta hizkuntza-politika</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioa eta komunikazio digitala</li> <li>- Elkarrekin bizitzen ikastea</li> </ul>	<b>Hezkuntza Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskadiko musika-irakaskuntzen aholku-kontseilua.</li> <li>- Musikene Patronatua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondare saria.</li> <li>- Mugimet.</li> </ul>
		<b>Kultura eta Hizkuntza Politika Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Euskararen agenda estrategikoa 2017-2020.</b></li> <li>- Euskararen Aholku Batzordea.</li> <li>- Eskolaren eta eskola-kirolaren euskal kontseilua.</li> </ul>	-

### c. *Koherentzia-azterketa nazioarteko parametroetan oinarrituta (ELGA)*

Aurreko kapituluaren aurkeztutako mapaketan jasotako dinamika eta jardunbide operatiboak eta arkitekturari dagokienez dokumentuetan zein sakoneko elkarrizketak eginez bildutako informazio guztia aztertzearen emaitzak aurkezten dira kapitulu honetan.

GJPK ikuspegiaren araberrako **azterketa**, **kantitatiboa** eta **kualitatiboa** izango da, eta 3. Eranskinean zehatz-mehatz aurkeztutako **ELGAren tresnan** oinarrituko da. Bertsio hau txosten honen berezko eremura eta testuingurura **itzuli** eta **egokitzearen** emaitza da, eta kapitulu honen lehen atalean azaldutako kontzeptuzko esparruan hartutako **GJPKaren printzipio eta irizpideekin osatuko** da.

Horrelako lehen txostena dela aintzat hartuta, azaldu berri dugun azterketaren emaitzak aurkezteaz gainera, 21 item edo galderetarako eskuragarri dauden ebidentziei buruzko lehen balorazio bat partekatuko da. Balorazio horri esker, GJPKari dagokionez item bakoitzerako detektatutako aurrerapen-maila haztatu ahalko da, eta hori balio handiko erreferentzia izango da, etorkizuneko txostenetarako horrelako informazioaren sistematizazioa hobetzeko bidean.

#### c.1 *Irizpide bakoitzari buruz eskuragarri dagoen informazio-maila*

Eskuragarri dagoen informazioaren kantitatea eta egokitasuna baliagarritasunaren ikuspegitik ikusteko, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuko eta balioetan oinarritutako prestakuntzako GJPKan aurrera egin dezan, hiru mailako eskala bat erabiliko da. Gorriak maila txikia adierazten du, horiak maila ertaina, eta berdeak maila handia, hurrenez hurren. Azterketa hiru blokeetako bakoitzerako egin da, 8 ataletarako eta 21 itemetarako.

#### 1. blokea. IKUSPEGIA ETA LIDERGOA

	Informazio-kantitatea	Informazioaren egokitasuna
<b>1.1 KONPROMISO POLITIKOA</b>	HANDIA	HANDIA
1. Printzipioak, balioak, helburuak eta ekintzak	HANDIA	HANDIA
2. Esparru-estrategiak	HANDIA	HANDIA
3. Beste Sail batzuekin partekatzea	HANDIA	HANDIA
<b>1.2 EPE LUZERAKO IKUSPEGIA</b>	HANDIA	HANDIA
4. Arrakalak	HANDIA	HANDIA
5. Tresnak	HANDIA	HANDIA
6. Kanpo-pertsonak	HANDIA	HANDIA
<b>1.3 POLITIKEN INTEGRAZIOA</b>	ERTAINA	ERTAINA
7. Ikasketa-planetan	ERTAINA	ERTAINA
8. Deialdien baremazioa	ERTAINA	ERTAINA
9. Aurrekontuko eta beste baliabide batzuetako	HANDIA	ERTAINA

Hiruretan ondoen dokumentatuta dagoena da bloke hau. Izan ere, lan-esparru eta planei buruzko erreferentzia berri ugari daude (kontsultatutako Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio espezifiko guztiaren % 40, 2. Eranskinean jaso dena), GJPK Gobernu-ekintzan integratzeari zein hezkuntza-eremuan 2030 Agendaren eta GGJaren printzipio eta balioen sustapenari heltzen diotenak, Hezkuntza Sailaren planetan zein Eusko Jaurlaritzako beste Sail eta instantzia batzuen planetan izan.

23 elkarrizketetan gai horiek sakonetik aztertu direnean, pertsonak aukera izan dute beti beren erantzunak beren erantzukizunpeko eremuan ezagunak diren esparru estrategikoekin erreferentziatzeko, esparru horiek Gobernuak zein nazioartekoak izan. Izan ere, elkarrizketatuek emandako informazioari esker, aztertu beharreko hezkuntza-eremuko arkitektura eta dinamika eta jardunbide operatiboen oinarri dokumentala osatzeko aukera izan da, eta planifikazioari zein estrategia eta zabalkunde operatiboari buruzko 40 dokumentuen zerrenda (ikus 2. Eranskina) dugu horren emaitza.

Maila guztietan erreferente dokumental ugari eskura izaki, elkarrizketatutako pertsonak ez dute arazo handirik eduki 1.1 eta 1.2 ataletako itemei erantzuteko, eta ikuspegi, printzipio eta balioei dagokienez bat etortzeko joera argia nabari da.

1.3 atala askoz ere operatiboagoa da, eta eskuragarri dagoen informazioa askoz ere ugariagoa eta askotarikoagoa; alabaina, hainbat instantzia eta Sailen artean barreiatuta dagoenez, zailtasun gehiago sorrarazi ditu hura eskuratzeko garaian, eta elkarrizketatuek ere aukera gutxiago izan dituzte informazio hori ongi oinarritutako balorazioen formulaziorako aprobetxatzeko. Hortaz, informazio-bilketan baino gehiago, informazioa sistematizatzean eta partekatzean hobetu behar da, informazio hori eraginkortasun handiagoz aztertu ahal izateko, Gobernuak hezkuntzaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuaren barruan GJPK aurrera eraman beharreko bidea erraz dezan.

## 2. blokea. EKINTZA KOORDINATUA

	Informazio-kantitatea	Informazioaren egokitasuna
<b>2.1. POLITIKEN KOORDINAZIO HORIZONTALA (Sailen artean)</b>	ERTAINA:	TXIKIA
<b>10. Sailen arteko koordinaziorako egituren funtzionamendua</b>	ERTAINA	TXIKIA
<b>11. Egoera gatazkatsuen kudeaketa</b>	HANDIA	ERTAINA
<b>2.2. POLITIKEN BARNE-KOORDINAZIOA (Hezkuntza Sailaren barruan)</b>	ERTAINA	ERTAINA
<b>12. Barne-koordinazioko mekanismoak</b>	ERTAINA	ERTAINA
<b>2.3. INTERES-TALDEEN PARTE-HARTZEA</b>	HANDIA	ERTAINA
<b>13. Haiekiko identifikazioa eta harremana</b>	HANDIA	ERTAINA
<b>14. Kontsulta egitea eta parte hartzea</b>	HANDIA	ERTAINA
<b>15. Haien lana bultzatzea</b>	ERTAINA	ERTAINA

Bloke hau da informazio-atalari dagokionez hobetzeko tarterik handiena duena, ia dokumentaziorik ez dagoelako blokea osatzen duten atal eta itemei zuzenean loturik. Hortaz, bildutako informazio gehienak balorazio subjektiboak dira, eta oso zaila da horiei eusteko moduko oinarri dokumental bat aurkitzea, Eusko Jaurlaritzatik kanpoko beste interes-taldeen harremanaren eta parte-hartzearen kasuan izan ezik.

GJPKarekin lotutako dinamika operatiboarekin harremanik zuzenena duen blokea da. Elkarlana eta koordinazioa errazten duten **60 instantzia** bildu dira guztira (**batzordeak, kontseiluak, lantaldeak, etab.**). Ia guztiek funtzionamendu-erregelamenduak dituzte, eta beren bileren aktak egiten dituzte. Koordinazio-jarduna, baterako jarduna eta politiken koherentzia sustatu, baloratu eta hobetzearekin lotutako jardunbideak badaudela frogatzeko ebidentziarik ez dago, ordea.

Hortaz, ikuspegi hau barneratu ahala, oso litekeena da, eta hala hobe gainera, maila guztietako koordinazioari buruzko informazio baliagarriaren bilketan arreta jartzea, hobetzeko ekintzak gauzatu, lortutako aurrerabideak egiaztatu eta ikasitako ikasgaien ebidentziak eduki ahal izateko.

### 3. blokea. INPAKTUA ETA ERABAKIAK HARTZEA

	Informazio-kantitatea	Informazioaren egokitasuna
<b>3.1. INPAKTUAK</b>	ERTAINA	TXIKIA
<b>16. Eraitzen, betetzearen eta inpaktuaren ebaluazioak</b>	ERTAINA	TXIKIA
<b>17. Beste Sail batzuen feedback-a</b>	TXIKIA	TXIKIA
<b>18. Hausnarketa eta hobekuntza koordinazioan eta</b>	ERTAINA	TXIKIA
<b>3.2. JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA</b>	HANDIA	ERTAINA
<b>19. Adierazleen baliagarritasuna</b>	ERTAINA	ERTAINA
<b>20. Ebaluazio-txostenen komunikazioa</b>	HANDIA	HANDIA
<b>21. Kanpo-auditoriak</b>	HANDIA	ERTAINA

Hirugarren blokean alde nabarmena nabari da, kantitatean eta erabilgarritasunean, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuari loturik eskuragarri dagoen informazioaren —prozesu hori zabaldutako plan eta programa guztietan barneratua dago, ebidentzia ugari erakusten dutenez— eta aztertutako ekimen bakoitzak lortutako inpaktuari eta politika publikoen koordinazioa eta koherentzia hobetzeko prozesuen gaineko inpaktuari buruz eskuragarri dagoen informazioaren artean. Aurreko blokearen harira adierazi denez, ebidentzia horrek argi eta garbi erakusten du GJPKaren kultura hastapeneko fase batean dagoela, Eusko Jaurlaritzako sailen barneko eta arteko ohiko dinamikan integratzeari eta hezkuntza-eremuari dagokienez.



## c.2 Irizpide bakoitzaren betetze-maila: ebidentzia aipagarriak eta hobetzeko arloak

### 1. blokea. IKUSPEGIA ETA LIDERGOA

#### 1.1 KONPROMISO POLITIKOA:

**HELBURUA:** Konpromiso politiko sendo eta inklusibo bat eta politikaren maila goreneko lidergo bat eraikitzea, Eusko Jaurlaritzak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren arloan, GGJ sustatzearen alde egin dezala bultzatzeko.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
1. Printzipioak eta balioak, helburuak eta ekintzak	HANDIA
2. Esparru-estrategiak	HANDIA
3. Beste Sail batzuekin partekatzea	ERTAINA

#### Adierazleak:

1.- Giza Garapen Jasangarriarekin (GGJ) lotuta egonik, plan eta estrategia horien edukia eta zabalkundea gidatzen duten **printzipio eta balioak, helburuak eta ekintzak.**

Garapen-maila GJPKari dagokionez:	<b>HANDIA</b>
-----------------------------------	---------------

Kontzeptuzko esparruaren definizioa egitean aipatu denez (16. or.), politika publikoa Giza Garapen Jasangarriarekin koherentea izatea lortu nahi bada, **GGJaren kontzeptuaren berezkoak** diren **balio, printzipio eta helburu** jakin batzuetan oinarritu eta orientatu behar da, eta horiek guztiak sustatu eta lortu behar ditu. **Eusko Jaurlaritzak (2015)** GJPKari buruz **emandako definizioarekin** bat etorri. Horren ondorioz, Gobernuak gero eta GJPK handiago bat lortzeko abian jarritako ekintzak printzipio gidari batzuk eduki behar ditu, kontzeptuzko esparruan honela formulatu direnak: "**hemen eta orain**", "**beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin**", eta "**beste gizarte batzuekin, beste toki batzuetan**".

Horregatik guztiagatik, argi dago **adierazle hau funtsezko erreferente bat dela Gobernuaren edozein ekintza GJPKaren ikuspegitik aztertzean.** Eta funtsezkoa da ikuspegi honen garapenaren zutabe global eta estrategikoetako bat delako, gobernuak GGJaren mesedetan abian jarri nahi duen edozein ekimenetarako erreferentzia-esparrua izanik.

**Eusko Jaurlaritzak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuan, ongi identifikatutako eta formulatutako printzipio eta balioen sorta oso bat dauka,** guztiak ere GGJaren sustapenari lotuak, eta bereziki, aztergai den eremuaren garapenean zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gobernu-entzako guztiek partekatzen dituztenak.

“**Hemen eta orain**” printzipioarekin lotutako printzipio eta balioek (egungo balioak eta erronkak: berdintasuna, inklusioa, zuzentasuna, giza eskubideak) ordezkari eta garapen zabala izan dute betidanik. “**Beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin**” izeneko printzipioa, berriz, (gizateriaren eta planetaren etorkizunarekiko konpromisoa, jasangarritasuna) 21 Agendaren eta Ingurugelen bitartez gauzatu da maila operatiboan, eta garrantzi handiagoa hartzen ari da 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Estrategiaren bitartez. “**Beste gizarte batzuekin, beste toki batzuetan**” (beste herrialde batzuekin ekintza itundua duten erreferentzia globalak: lankidetzak, elkartasuna, bizikidetzak lokala eta globala) printzipioa, ordea, ezer gutxi ezarri da, eta horregatik bultzada handiago bat behar du, batez ere, 2030 Agenda garatzeko euskal programaren eta eLankidetzak bultzatutako [\(H\)ABIAN 2030](#) estrategiaren laguntzarekin.

Jarraian, horri dagokionez, bildu diren ebidentzia ugariak aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzak eta hezkuntza-politikak printzipio, balio eta helburuak partekatzen dituela eta horiek guztiek GGJarekin lotura argia daukatela dioen balorazioa justifikatzen dutenak.

**2030 Agendaren lehentasunen euskal programak** argi eta garbi zehazten du Gobernu-ekintzarako esparru globala, hezkuntza-politika espresuki barnean hartuta eta honako printzipio, balio eta zeharkako ardatz hauez osatua:

- **Printzipioak:** apaltasuna eta mugen kontzientzia; balio positibo iraunkorraren aitortza eta kontzientzia; erantzukizun eta kontzientzia etiko pertsonala; elkartasuna eta giza duintasunaren kontzientzia.
- **Balioak:** elkarrizketa, lankidetzak, jarraikitasuna, erantzukidetasuna.
- **Zeharkako ardatzak:** proaktibitatea, barne- eta kanpo-dimentsioa, genero-berdintasuna, COVID inpaktua, aliantza.

Nabarmentzekoa da programa honen lau helburuetako bat **politiken koherentzia sustatzea** dela, barneko kohesio soziala handitzea erraztearekin, bake, justizia eta jasangarritasunaren aldeko nazioarteko ahalegin onenetan parte hartzearekin, eta 2030 Agenda lehentasun eraldatzaileak bultzatzeko konpromiso gisa hartzearekin batera.

Hezkuntza-politikaren eremu espezifikoa, politika hori zehazten duten planek jomuga argia dute: guztiontzako **eskola inklusibo** bat sustatzea, inor ere atzean utziko ez duena, eta **bizikidetzak positiboaren, kohesio sozialaren, berdintasunaren, bikaintasunaren hezkidetzaren eta dibertsitatearekiko arretaren** balio bereizgarriak izango dituenak.

*Hezkuntza Sailaren zuzendaritzak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten denez, "apustu argi bat egin da pertsonak jardunen erdigunean jartzeko... Ikasle guztiek axola dute, eta guk ikastetxe bakoitzari erantzun nahi diogu. Ez dago lehentasunik ikastetxeekiko eta pertsonenganako arretan. Ez dugu inor atzean utzi nahi ... Ikasle guztien arrakasta bilatzen da".*

**2019-2022 aldirako eskola inklusibo bat garatzeko Esparru Planak** honako erreferentzia-balio hauek definitzen ditu:

- EAEko hezkuntza-eredu pedagogikoarekiko koherentzia.
- Inklusioa, berdintasuna eta bikaintasuna.
- Bizikidetzaren positiboa.
- Erantzukidetasuna hezkuntza-zereginetan.
- Ebaluazioa eta kontu-ematea.

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-ekintza bultzatzen duten planen helburuak, azaldu berri diren printzipio eta balioekin bat etorriz, aniztasunari erantzun egoki bat ematean zentratzen dira, baita inklusioa, berdintasuna eta kohesio soziala sustatzean ere.

Ikasle guztien premiei eta aniztasunari erantzun nahi zaie, baita desparekotasuna murrizteari, ikasle kalteberen babesari, ikaskuntza komun baten sustapenari, pertsona guztien ahalmena garatzeari (haien aniztasuna edozein dela ere) eta bizikidetzaren positibo bat sustatzeari ere. Eta arreta berezi bat jartzen da mota guztietako zailtasunak dauzkaten ikasleentzako garapena eta integrazioa erraztean.

Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuko gai espezifikoak heltzen dieten hainbat plan eta ekimenen bitartez, eta Gobernutik horiek bultzatzen edo horietan parte hartzen duten instantzietatik, aipatu berri direnekin koherenteak diren, eta horiek osatu eta xehatu ere egiten dituzten printzipio, balio eta helburuak identifikatzen dira.

**Giza eskubideen**, bizikidetzaren eta bakearen eremuan, hezkuntza-eremuak bereizten dira berdintasuna, justizia, pertsonen protagonismoa, bakearen eraikuntza, bizikidetzaren, elkartzasuna, aniztasuna eta enpatia sustatzen dituztelako, eta hori guztia giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik.

**Ikasle etorkinen** kasuan, dagokion planak honako printzipio eta balio hauek hartu ditu aintzat:

- Erantzukidetasun soziala.
- Berdintasuna eta konpromisoa.
- Aukera-berdintasuna.
- Aniztasuna.
- Profesionaltasuna
- Berrikuntza.
- Kalitatea.
- Malgutasuna.

- Gardentasuna.
- Zeharkakotasuna.

**Bizikasi** ekimenaren helburua da ikastetxeak **bizikidetza positiborako gune seguru** bihurtzen laguntzea, erreferentziatzeko balio hauetan oinarrituta:

- Bizikidetza positiboa.
- Sexu-jazarpenarekiko zero tolerantzia.
- Ikasleei laguntzea.
- Eskola ingurune seguru bihurtzea.
- Ikuspegi sistemiko-ekologikoa.
- Hezkuntza-paradigma errestauratiboa.

*Berritzequne Nagusitik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten dutenez, Bizikasi-ren helburua da “ongizate sozioemozionalaren ikuspegitik **osasungarri diren inguruneak eta ingurune seguru eta atseginak sortzea, hori ikaskuntza on bat garatzeko funtsezkoa baita. **Talde baten, hezkuntza-komunitatearen kidesun-sentimendua** agertzeko bidea errazten da, eta ikasleari bere hezkuntza-prozesuaz jabetzen laguntzen zaio, **bizikidetza positibo baten eraikuntzarako aktibo nagusia eta jazarpen-dinamiken aurkako lehen oztopo handia den heinean. Bizikasi GGJan oinarritzen da, eta eraginpeko hezkuntza-komunitatean balioak eraikitzean zentratzen da”.*****

**Sexu orientazioari** eta genero-identitateari dagokienez **aniztasuna** defendatzearen eremuan, **Berdinu zerbitzuak** hezkuntza-komunitatearekin lan egiten du, **LGTBI pertsonen giza eskubideak babesteari** buruzko [Yogyakartako printzipioen](#) errespetutik abiatuta.

Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren arloko politikak **Hezkidetza Planean** heltzen dio **gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta detekzio goiztiarrari**, honako ildo nagusi hauei jarraikiz:

- Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean
  - Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista
  - Emakumeen jakituria eta haren ekarpen sozial eta historikoa integratzea.
  - Gatazkak modu baketsuan eraldatzea, hezkidetza-bizikidetzako, autonomia pertsonaleko eta independentziatzeko proiektuen eskutik.
  - Ikastetxeko espazioak eta jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoak
  - Afektibitate- eta sexu-hezkuntza berdintasunean
- Prebentzioa eta jarduna emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean **Berdintasuna** sustatzeaz, eta horretarako, **emakumeen aurkako indarkeria**, eta, zeharka, mota guztietako indarkeria

**oztopatzeaz** arduratzeaz gainera, hezkidetzak **soldata-arrakalaren aurkako borrokan** ere jartzen du arreta, Giza Eskubideen babesean.

Ingurumen-kontserbazioari dagokionez, hezkuntzatik

**Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia** bat garatu da, honako hauek sustatzeko helburuarekin:

- Euskal herritar sentsibilizatu, erantzukide, kritiko eta parte-hartzaileak.
- Herri eta hiri hezitzaile eta jasangarriak.
- Ingurune berde bat, sozialki arduratsua, kulturalki aktiboa eta osasungarria, demokrazian eta bakean oinarritua.
- Jasangarritasuna integratua dago politiketan eta erabakiak hartzeko garaian.
- Jasangarritasunerako hezkuntza lehentasun bat da Eusko Jaurlaritzarentzat eta gizartearentzat.

Jasangarritasunerako hezkuntza GGJari estu lotuta dagoela ulertzen da. Hezkuntza-mailan lantzen diren GGJko printzipioek **jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumeneko** bat sustatzean jartzen dute arreta. Horretarako, **parte hartzeko, lankidetzazko eta sareko** hezkuntza-prozesu bati jarraitzen zaio, **pentsamendu kritiko** bat eta bizitzaren aurrean GGJra daraman jarrera bat sortzeko bidea erraztearren.

**Kirol-hezkuntzaren** eremuan, **lankidetzazko** da baliorik bereizgarriena: lehenbizi lankidetzazko, ondoren lehiatzeko. Lehiakortasuna soilik sustatzen duen hezkuntza tradizionalaren aurrean, une honetan azpimarratu nahi da ikasleek beren emozioez kontziente izan behar dutela gero emozio horiek kontrolatu ahal izateko, eta enpatia-sentimendua ere garatu nahi da.

Digitalizazioaren arloko hezkuntzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **herritarren konpetentzia digitala** sustatzen du, **Unescoren** konpetentzia digitalen esparruan inspiratuta: bizitzen ikastea, izaten ikastea, ikasten ikastea.

Herritarren konpetentzia digitalean **5 arlo** bereizten dira:

- Informazioa kudeatzea.
- Komunikazio eta koordinazio digitala: herritartasun aktiboa, kausa sozialetan esku hartzea, erakundeekiko harremana, nortasun digitala (sare sozialak).
- Edukiak sortzea (programatzen ikastea, pentsamendu konputazionala).
- Segurtasuna: aparatuetan, datu pertsonaletan, ongizate digitalean, IKTen erabileran ingurumena babestean.
- Arazoen konponketa: teknikoak, soluzio digitalen eskutik konpontzen ditugun eguneroko erronka profesional edo pertsonalak.

**Boluntariotzaren** hezkuntza-alderdiari dagokionez, nabarmentzen da haren balioak GGJaren maila guztiekiko zeharkakoak direla, eta GJHen kontzeptuzko esparruan ezin hobeto lerrokatuta eta integratuta dagoela.

**2. Eusko Jaurlaritzaren eta Hezkuntza Sailaren estrategia eta orientazio politikoa GGJari dagokionez, plan horiek inspiratzen dituzten herrialde-mailako esparru-estrategiak, eta GGJ GJPKaren ikuspegi baten bitartez sustatzeko beharko liratekeen beste estrategia batzuk.**

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**HANDIA**

Aurreko adierazlean kontrastatutako printzipio, balio eta helburuak zehazten dituen posizionamendu ideologikotik abiatuta, alde aurretik aipatutako zutabeen benetako garapena erraztuko duten esparru-estrategien definizioan zenbaterainoko aurrerapena egin den egiaztatzea izango da hurrengo urratsa. Adierazle honek oso informazio garrantzitsua dakar posizionamendu eta plan estrategikoak zenbateraino garatu diren eta zenbaterainoko sendotasuna eta arrakasta duten neurtzeko, horien "babesean" ekimenak zabaltzeko aukera izango delarik, GGJarekin bat etorri balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politika harmoniaz, koherentziaz, efikaziaz eta efizientziaz sustatzeko lagungarri.

Eusko Jaurlaritzak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremutik **GGJ sustatzearekin lotutako askotariko plan estrategiko, programa eta adierazpen- eta legegintza esparru ugaritan** jasotzen ditu aurreko adierazlean bildutako printzipio, balio eta helburuak. Planen multzo horren bitartez, GGJaren erronka eta eremu zehatz guztiak bete nahi dituen hezkuntza-politika baten berezko espezifikotasunak estaltzen dira, gai horri buruzko nazioarteko konpromiso eta erreferenteekin bat etorri. Ildo horretan, **GJPKaren hiru printzipioak** ("hemen eta orain", "beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin", eta "beste gizarte batzuekin, beste toki batzuetan") dokumentu estrategiko eta programatiko horietan daude jasota, baina berriz ere azpimarratu behar da lehena dela garapen-maila handiena lortu duena.

Aldez aurretik adierazitakoaren alderdi positiboa gorabehera, elkarrizketatuek nagusiki aipatu dute **oraingoz ez dagoela esparru-dokumentu globalik**, eta dokumentuen azterketa-sakonak ere berretsi du hobetu beharreko arlo nagusia hori dela, GGJarekin lerrokatutako hezkuntza-politika baten zabalkundea egituratu ahal izateko, nahiz eta epe laburrean asmo hori garatzeko borondatea badagoen. Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-arloko ekintza eta politika osoaren erreferente komun horrek funtsezko argitasuna eta sendotasuna emango lioke GJPKari eremu horretan, GGJaren sustapenetik ahalik eta probetxurik handiena atera ahal izateko, eta, kapitulu honen b atalean jaso denez, Eusko Jaurlaritzako instantzia guztietatik hezkuntza-eremuan une honetan zabaldua dauden ekimenen multzo zabaletik ahalik eta sinergia gehien sortzeko.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan abian jarritako plan estrategiko, programa eta adierazpen- eta legegintza-esparruak zehatzago aurkezten dira, GGJaren sustapenaren eta defentsaren alde egin duten ekarpena azalduz.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan hartu duen posizionamendu estrategikoa bat dator, argi eta garbi, **GGJaren sustapenaren eta defentsaren nazioarteko erreferenteekin**. Orientazio politiko hori jasota dago, une honetan zein etorkizunari begira Gobernuaren hezkuntza-arloko ekintzaren esparrua osatzen duten dokumentu estrategiko ia guztietan.

**2030 Agendaren lehentasunen euskal programak** argi eta garbi adierazten du atxikimendu-eta etapa batetik proaktibitate pasatzeko asmoa, Gobernuaren politikak maila ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan eraldatzeko Agenda horren parametroei jarraikiz. Haren **Atarian** eta **4. GJHan** (Bidezko eta kalitatezko hezkuntza inklusibo bat bermatzea bizitza osoan ikasteko aukerak guztiontzat sustatzea) bildutako jardun-ardatzek lehentasunezko esparru bat osatzen dute, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politikaren xedeetarako. Posizionamendu hori bat dator, halaber, [Incheongo adierazpenarekin](#) non kalitatezko eta bidezko hezkuntza inklusibo baten alde egiten den, guztiei ikasteko aukerak emanez eta bazterkeriari bide ematen dioten oztopoak hautsiz.

GJPKaren ikuspegitik, aipatu berri duguna izango litzateke, ez bairik gabe, hezkuntzaren eremuan Gobernuaren ekintza gidatzeko erreferenterik onena. Eszenatoki horrekin bat etorriz, Hezkuntza Sailak planteatzen du erronka estrategiko nagusia zein den: egungo legegintzaldirako **Gobernu-programa**, non GGJ ardatz nagusietako bat den, **Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin uztartzea**. Horri esker, bien arteko koherentzia indartuko litzateke, eta politika guztietarako **esparru global bakarra** ezarriko litzateke, politika bakoitza bultzatzen duen Saila edozein izanik ere. Esparru komun horrek argia eman beharko luke Gobernu-ekintzaren helburuak Sail guztien artean eta elkarlanean zehazteko, hezkuntza-eremuan kasu honetan, eta helburu horiek lortzeko bidea errazteko.

Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzak aitortzen duenez, oraingo ez dago dokumentu propiorik, GGJarekin bat datorren hezkuntza-politika baten zabalkundea egituratu ahal izateko. Nolanahi ere, lanean ari dira ildo horretan, eta horren erakusgarri dugu **“Hezkuntzaren Auzolana. Guztiontzako hezkuntza”** 2030 Agendako lehentasunez euskal programan sartu dela, haren zazpi proiektu esanguratsuen artean. Programa hori zeharkako programa baten antzera konfiguratu da, hezkuntza-etapa guztietan ekimenak abian jarri eta kolektibo kalteberenei arreta berezia eskainiz. Hiru ardatzetan esku hartzea proposatzen da: (1) **zuzentasuna eta berdintasuna**, (2) **aniztasunarekiko arreta** eta (3) **kohesio soziala eta elkartasuna**. Haren helburu nagusia da **guztiontzat aukera-berdintasuna bermatuko duen bidezko eta kalitatezko hezkuntza inklusibo eta justuan** sakontzea, gizarte kohesionatuago, solidarioago eta jasangarriago bat sustatzeko helburuarekin.

Orain arte, **Heziberri 2020** izan da Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremurako esparru-dokumentua, hau da, Hezkuntza Sailaren hezkuntza-sistema hobetzeko plana, Europako eremuan hezkuntzari dagokionez ezarritako ildo estrategikoekin bat datorrena, eta gizarte bidezkoago, kohesionatuago eta aktiboago bat lortzeko bikaintasunerantz aurrera egiteko helburua duena.

Heziberri 2020 planetik **2019-2022 aldirako eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana** konfiguratu da, eta azken horren babesean hainbat ekimen zabaltzen dira, hala nola **Bizikasi** ekimena, **Ikasle Etorkeinenzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan 2016-2020, II Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023, edo Adimen-gaitasun Handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Plana 2019-2023**, besteak beste. Horietatik abiatuta, hainbat protokolo, programa eta jardun-ildo landu dira gai jakin batzuen gainean, esaterako, **Herri Ijitoarekiko Euskal Estrategian** jasotako ikasle ijitoen eskolatzea hobetzearen gainean.

Estatu-mailan, **LOMLOE** legeak **eskola-curriculum berri** bat garatzeko betebeharra dakar. Bere hitzaurrean adierazten duenez, "garapen jasangarriari erantzuteko garrantzia aitortzen da, 2030 Agendan ezarritakoari jarraikiz. Hala, garapen jasangarrirako eta munduko herritartasunerako hezkuntzak inkardinatu behar du nahitaezko irakaskuntza osoaren hezkuntza-plan eta hezkuntza-programetan, pertsona guztiek bizitza emankor bat izateko, oinarritutako erabakiak hartzeko eta munduko herritar guztiei dagozkien arazo komunei aurre egin eta konpontzean tokian-tokian eta munduan zeregin aktibo bat hartzekobehar dituzten ezagutza, gaitasun, balio eta jarrerak txertatuz." Horrenbestez, **curriculum berria garatuko da GGJ zeharka integratu behar dela kontuan hartuta.**

Gizonen eta emakumeen berdintasunerako hezkuntzan eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta detekzio goiztiarrean, **II Hezkidetza Plana** da egungo erreferentzia-esparrua, eta haren elaborazioan honako hauek hartu dira kontuan: **Eusko Jaurlaritzaren zazpigarren Berdintasunerako Plana, 2030 Agenda, Europako Batzordearen Emakume eta Gizonentzako Konpromiso Estrategikoa 2016-2021, hezkuntzan generoa bereizteari buruzko Ministro Batzordearen gomendioak, eta Aukera Plan Estrategikoa 2018-2021.**

II. Hezkidetza Plana urrats handia izan da, gai jakin batzuk hobeto lurreratzeko bide eman duen heinean, hezkuntzaren zeregina besteak beste. Horren ondorioz, Hezkuntza Sailak eta Emakundek hainbat material lantzeko konpromisoak hartu dituzte, esaterako, ikastetxeentzat gida bat egitea diagnostiko bat eta hezkidetza- edo berdintasun-lan bat egiten laguntzeko. Modu osagarrian, **Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboa** dago erabilgarri, horietako ardatz bat berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat sustatzean zentratzen delarik.

Ingurumen-kontserbazioari dagokionez, **2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Estrategia** da Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-politikarako erreferentziatzko dokumentua, ingurumen-hezkuntzan zentratutako ikuspegi batetik jasangarritasunerako hezkuntza erreferentzia-puntutzat hartzera bideratua.

*Ingurumen Sailburuordetzatik emandako ebidentzia-adibidea: aitortzen da "jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzeko dekretu berria funtsezko elementua dela, bertan garrantzi handiko hainbat ekimen biltzen direlako, hala nola Hezkuntza Jasangarriari buruzko Ezagutzaren Kudeaketarako eta Berrikuntzarako Zentroa, Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Kanal Digitala edo ataria abian jartzea, "Ikastetxe Jasangarria" zigituko Akreditazio Sistema bat garatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe Jasangarrien direktorioa sortzea".*



Giza eskubideei, bakeari eta bizikidetzari dagoekenez zabalduko hezkuntza-eremuko jardunaren erreferentziako esparrua **2016-20** aldirako **Bizikidetz**a, **Giza Eskubide eta Aniztasunerako Plan Estrategikoa** da, hezkuntzan zentratutako ekimen espezifiko bat biltzen duena, eta **2021-2024** aldirako **Bizikidetz**a, **Giza Eskubide eta Aniztasunerako 2024 Udaberri Plana**, hezkuntzarako jardun-ildo bat definitzen duena.

**Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari** dagokionez, eLankidetzak **(H)abian 2030** estrategia bultzatu du, baina Eusko Jaurlaritzak ez du esparru-dokumentu globalik sortu. eLankidetzak, Hezkuntza Sailarekin eta Gobernuko beste instantzia batzuekin elkarlanean, hezkuntza-eremuan bultzatzen dituen lan-ildoen erreferenteak honako hauek dira: [“Hezkuntzak altxor bat du gorderik”, XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOrentzat egindako txostena](#) edo **Delors Txostena** (1996), **2020 Heziberri**, **2030 Agenda**, **Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentziako esparrua**, **Gizarte Eraldaketarako lan-ibilbidea** (Paulo Freire eta beste batzuk), **herritartasun unibertsala eraikitzeko hezkuntzaren bost belaunaldiak**, eta seigarrena hasi berritan, eta 2007ko **Garapenerako Lankidetzaren Legea**.

Eusko Jaurlaritzak boluntariotzaren eremuan sustatutako hezkuntza-zereginari dagokionez, **Boluntariotzaren Legea** da haren erreferentziako esparrua, eta kontuan hartu behar da, halaber, **GJHetako 10.aren** (desparekotasuna murriztea) helburuen artean boluntariotza sustatzea dagoela.

**3. Hezkuntza Sailak, plan eta estrategia horietan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako beste Sailekin partekatzen dituen printzipioak eta balioak. Printzipio eta balio horien pertzepzioa eta integrazioa ekimen horietan parte hartzean.**

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

Lehen adierazlearen osagarri, kasu honetan azpimarra jartzen da, Gobernuko hainbat instantziatetik, printzipio eta balioak hezkuntza-eremuan zenbateraino partekatzen diren kontrastatzean. Hortaz, lehen "froga-harri" bat da, GJPKaren alorrean pixkanaka aurrera egiteko baldintza egokiak garatu eta sortzeko ekimenean lortutako aurrerapen-mailaren inguruan.

Maila orokorrean, **bat-bateko bat-etortze** bat nabari da Eusko Jaurlaritzako instantzia guztien artean hezkuntza-eremuan GGJ interpretatu eta bultzatzeari dagokionez, eta ez dago esaterik hori proaktiboki bilatu denik, elkar elikatzeko espaziorik ez dela izan adierazi baita. Alabaina, printzipio eta balio unibertsalak direnez, hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren diseinuan eta zabalkundean batera parte hartzen duten pertsona eta Sail guztiek partekatzen dituzte.

Bestetik, bildutako beste zenbait balorazioren arabera, Gobernuaren aldetik lidergo, ikuspegi eta posizionamendu argi eta irmo bat egon arren GGJ hezkuntza-politiketan eta gainerako politiketan integratzeari dagokionez, **trantsizio hori behar bezala egituratzeko** jardun baten falta nabari da, Sailetara egokitzeko bidea erraztearren. Ildo horretan, helburu komun batzuk

zehaztu beharko liratekeela aipatzen da, eta, ondoren, horiek nola zabaldu behar diren adierazteko prozedurak garatu, instantzien arteko elkarguneari dagokionez bereziki.

Hezkuntza-eremuan badira ekimen ugari Eusko Jaurlaritzako hainbat Sail eta instantziaren baterako parte-hartzea dutenak, eta eragile guztien aldetik **argitasuna eta adostasuna** nabari dira lortu nahi dutenaren inguruan, GGJaren printzipio eta balioen ildotik. Zailtasunak maila operatiboan ageri dira, **instantzia bakoitzaren erantzunak orekatzea** zaila delako; izan ere, aitortzen dutenez, lan egiteko modu desberdinak dituzte, eta oraindik **elkarrekin jarduten ikasteko prozesuaren** erdian daude gainera, lan-dinamika berri hori bultzatzen denbora gutxi daramatela kontuan hartuta. Ildo horretan, irizpide operatiboak bateratzeko urratsak egiten ari direla baieztatzen da, baina arazo nagusia hausnarketarako behar adinako denbora edukitzea dela, gauzak lasaitasunez eta patxadaz aztertzeke, eta, hortik abiatuta, ahalik eta bat-etortzerik onena bilatzeko. Horregatik, oraindik bakoitza bere kasa dabilela aitortzen da, eta koordinazio-une baregoen falta nabari dela.

Jarraian, Gobernuko instantzia desberdinek hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuan partekatzen dituzten ebidentzia nabarmenenak azaltzen dira, eta horien azterketa bat egiten da GJPKaren arabera.

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan **7 proiektu esanguratsu** identifikatu dira, Eusko Jaurlaritzako hainbat arlotako parte-hartzea dutenak. **Hezkuntzaren Auzolana, guztiontzako hezkuntza (2022-24)** izena daramana, Hezkuntza Sailburuordetzaren eta eLankidetzaren parte-hartzearekin diseinatu eta bultzatu da. Hezkuntza Sailak zeharka garatu behar du, hezkuntza-etapa guztietan ekimenak antolatuz eta kolektibo kalteberenei arreta berezia eskainiz. **Kanpo-dimentsio** bat ere izan behar du, Euskaditik kanpo, **Hezkuntza Sailaren eta eLankidetzaren arteko lankidetzari** esker. Kasu honetan, kohesio soziala eta elkartasuna sustatuko dira Malawiko Connect My School proiektuarekin elkarlanean, EAEko lehen eta bigarren hezkuntzako eskolak elkartrukatzuz inklusioa, teknologia berriak eta eguzki-energia lantzeko Malawiko harrera-komunitateetan eta iheslari-esparru batean kokatutako eskoletan.

*Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da, "2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa. 2021-2024 aldirako jardun-plana" ekimenari dagokionez, "'Sail guztiek alde aurretik Planaren alde egiteko joera erabatekoa dela, hau da, Plana babestu eta partekatzen dutela, bideragarri ikusten dutela, eta ekarpenak egiteko prest daudela."*

Adierazten da, halaber, oraindik badagoela zer hobetu Eusko Jaurlaritzaren barruan **2030 Agenda osotasun baten antzera** ulertzeko bidean, eta haren atariko oso kontuan hartzekoa dela ildo horretan, haren funtsezko alderdiak argi eta garbi zehazten direlako, 17 GJHetatik haratago. **Hezkuntzako GJHari** dagokionez, **politiken koherentziaren arabera**ko interpretazio bat egin beharko litzateke, maila lokal eta globaleko jomugak ezarriz eta gainerako eremuetan eragin beharko lukeen eremutzat joz.

HEZKUNTZA-EREMUKO GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO TXOSTENA  
*eLankidetzatik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten denez, "Hezkuntza Sailetik ikuspegi globala galtzen da batzuetan, eta GGJaren balioak logika horretatik lantzeko aukera izan liteke. eLankidetzatik, globalarekin lotzeko begirada horizontal hori eman liteke, beste lurralde batzuekin, desparekotasunaren egiturazko kausekin lotzeko, etab."*

Hezkuntza-politika hainbat plan eta jardun-esparruren bitartez gorpuzten da, eta horrek **Sailen arteko bikoiztasunak saihesten** laguntzen du, Hezkuntza, Ekonomia, Lan, Justizia edo Berdintasun arloetan eskumenekoak direnen artean adibidez. Nolanahi ere, Hezkuntza Sailaren zuzendaritzatik aitortzen da **kohesio sozialari lotutako begirada globalean askoz ere gehiago sakondu beharko litzatekeela, eta GGJ kultura horren bizkarrezurra izan litekeela**, arloen eta Sailen arteko interakzioa areagotzean eta malgutasunean oinarritutako kultura baten **ardatza**.

Maila partikularrago batean, **Hezkuntza Sailak eremu soziosanitarioarekin elkarlanean** diharduela adierazten da, ongizate sozioemozionalaren arloan bereziki, non eraikuntza komuneko ikuspegi bat hartu den eremu horretan eta jokabide kaltegarrien prebentzioan, autolesioetan adibidez. Maila diskurtsiboan eta aplikatiboan GGJaren balioak partekatzen direla adierazten dute, baina beste Sail batzuekin baterako lan gehiago egitea komeniko litzatekeela nabarmenduta.

Bestetik, **Emakundek eta Hezkuntza Sailak** batera parte hartu dute Hezkidetzaren Planaren diseinuan eta jarraipenean. Eta aitortzen da, halaber, bi erakunde horien artean Beldur Barik eta Nahiko programen zabalkundearen koordinatu direla. Hezkuntza Sailak Emakunderi laguntzen dio programa horien diseinuan eta inplementazioan, baita hezkuntza-eragileen arteko zabalkundearen ere.

Bi alderdiek adierazten dute koordinazio horrekin pozik daudela, baita material eta gidak batera diseinatzeko ezarritako lantaldeen funtzionamenduari ere. Azpimarratzen da bi instantziek **berdintasunaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen** balioak partekatzen dituztela, eta, Sail guztiek berdintasun-unitate bat dutenez, Emakundek horiek ordezteko ez, baizik eta horiek osatzeko esku hartzen duela. Hezkidetzaren izaera Eusko Jaurlaritzako goi-mailako instantzietatik zehaztuta dator, eta beraz, Gobernu-ekintzan orokortuta dagoela esan dezakegu. Adibidez, Eusko Jaurlaritzako Sail guztiek **soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko estrategia** bat partekatzen dute, eta hezkuntza-eremuak zeregin espezifiko bat bete behar du horretan. Azpimarratzekoa da emakumea STEAM proiektuetan parte hartzea sustatzen dela, teknologia-arloan bereziki, soldata-arrakala hori gainditu ahal izateko.

**Ingurumen Sailburuordetzak harreman jarraitua eta arina** dauka **Hezkuntza Sailarekin, Ingurugelak** bultzatuz eta unibertsitatekan kanpoko zentroetako **ikasgeletan 2030 Agenda** (lehengo 21 Agenda) **aplikatzeko laguntzak** emanez, eta ekintza horretan Lehendakariarekin ere interaktuatzen du, **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren** bitartez.

**Boluntarioria**-eremuko hezkuntza-arloan, berriz, **beste Sail batzuen parte-hartzea urria izan dela** uste da. Egindako topaketa guztietan, Hezkuntza Sailaren falta nabari da, eta parte-hartze aktiboago bat, aldiz, Boluntarioriazaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuran. Boluntarioria-estrategia berriaren arabera, ordea, beste Sail batzuekiko topaguneak sustatu nahi dira baterako ekimenak garatzeko, horietako batzuk hezkuntza-eremuan.

**Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun** Zuzendaritzak **eLankidetzarekin** eta **Hezkuntza Sailarekin** partekatzen ditu **balio, printzipio eta ekimenak**, hezkuntza-eremuan. Hobekuntza-

Hezkuntza-eremuko **dimentsio digitalari** dagokionez adierazten da **Hezkuntza Sailaren eta beste Sail batzuen arteko interakzioa eskasa dela**. Gehienetan, beste Sail batzuek eskatu ahalako **kolaborazio puntualak** izaten dira, eta oraingoz behintzat foro iraunkorrik ez dago eremu horretan kolaborazioak bultzatzeko. 2015ean, **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak** Hezkuntza Sailari jakinarazi zion **nerabeen ongizatearekin** kezkatuta zegoela **sare sozialen erabilera zela-eta**, eta teknologia berrietan hezkuntza lantzeko gida pedagogiko bat egiteko eskaera egin zion, [Egon Line](#) izeneko.

## 1.2 EPE LUZERAKO IKUSPEGIA

**HELBURUA:** Epe luzerako ikuspegi estrategiko bat zehaztea, aplikatzea eta komunikatzea, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren arloan Eusko Jaurlaritzaren koherentzia politikoa bultzatuko duena, eta Eusko Jaurlaritza eta alderdi interesdunak GGJaren helburu komunetarantz gidatuko dituena.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
4. Arrakalak	HANDIA
5. Tresnak	ERTAINA
6. Kanpo-pertsonak	HANDIA

**Adierazleak:**

4. Plan eta estrategia horien bitartez konpondu nahi diren arrakalen identifikazioa.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**HANDIA**

Komenigarria litzateke 2. adierazlean identifikatutako eta aztertutako plan eta strategiak konponbideen bilaketara bideratzea, hain zuzen ere, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremutik, gizartean dauden arrakaletarako konponbideak bilatzera.

Lehentasun operatibo hori GGJaren kontzeptuaren berezkoa da, baita giza eskubideen printzipioen berezkoa ere. Hortaz, adierazle horrek erakutsiko du hezkuntza-politikak bokazio finalista hori zenbateraino integratu duen.

**Asko eta asko** dira Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremutik heldu nahi dizkien **arrakalak**, eta GGJ bultzatu eta sustatzearekin estu lotuta daudenak. Horieta batzuk **egiturazkoagoak** dira eta gizartean sustraituago daude, eta beste batzuk, berriz, berriagoak eta **koiunturalagoak** dira. Aipatzen denez, Eusko Jaurlaritzak ekimenen zabalkunde zabala eta zehatza egiten du hezkuntza-eremuan, egun indarrean dauden oso askotariko **arrakala sozioedukatibo**,

**ekonomiko eta kulturelei** heldu nahian. Gizarte- zein denbora-mailan erronka hurbilenei erantzuteko begi-bistako ahalegin hori, ingurumen-jasangarriaren berezko erronkei heltzeko ekimenarekin osatzen da, baina oraindik ez du garapen baliokide bat lortu beste toki eta komunitate batzuetan GGJrako dauden zailtasunei dagokienez, ezta haien konponbidearen gaineko erantzukidetasunari dagokienez ere.

Jarraian, zehatz-mehatz azaltzen dira nabarmenentzat jo diren ebidentziak, Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren arloko planek eta ekimenez, arrakala desberdinen heltze positiboa integratzeko nola jokatzeko duten erakusteko.

**2019-2022 aldirako eskola inklusibo baten garapenerako Esparru Planak** heltzen die, ikastetxean eta ikasgelan horretarako espezifikotasunen baten beharra duten ikasle guztien **aniztasunari, kohesio sozialari eta inklusioari** erantzun egoki bat emateko planteatzen diren erronka guztiei. Ildo horretan, guztiz lerrokatuta dago **Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren**, eta, bereziki, **Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren** eraginpeko arrakalekin.

**2016-2020 aldirako eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruko ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako II. Planaren** helburu nagusia aniztasun horri erantzun egoki bat ematea da, hizkuntza-arloari, familiek ikastetxean parte hartzeari, ikastetxeen planifikazioari eta ikastetxe bakoitzeko ikastetxe motari dagokienez.

**Etorkinek** hizkuntza-erronka argia dute. Horregatik, proiektu pilotu bat garatu da, **murgiltzea errazteko hizkuntza-premiei erantzuteko** eta pertsona horiei **hezkuntza-mundura egokitzeko** bidea errazteko. Oraingoan, emaitzak oso onak dira maila guztietan, hizkuntzari zein integrazioari dagokienez. Programa horrek premia sozioafektiboak ere heltzen die, neurri handi batean, hizkuntza-hutsuneen ondorio direnak. Ekimen hori zabaldu nahi da, hartatik ikasten jarraitzeko eta sistematizatzeko, sistema osora zabaltzearen.

**2019-2023 aldirako berdintasunaren eta tratu onaren bidean EAEko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetzaren planak, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak murriztean** jartzen du arreta, bereziki **arrakala digitalari, lanaren munduko arrakalari (soldata-arrakala) eta ikasketen hautaketaren arrakalari** dagokienez. **Emakumeen aurkako indarkeriarekin** zerikusia duen guztiari ere heltzen zaio.

*Hezkuntza Saileko berdintasun-arlotik emandako ebidentzia-adibidea: "Hezkidetzaren Plana honako zutabe hauetan oinarritzen da: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen jakituriaren integrazioa, gatazken eraldaketa baketsua, autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa, espazioak, sexu-hezkuntza berdintasunean, eta indarkeria matxistaren aurrean prebenitzea eta esku hartzea."*

Hainbat egiturari lotutako materialak eta prestakuntza (bigarren hezkuntzarainoko hezkuntza-etapa guztietako ikastetxeetako irakasleak, hezkidetzaren arduradunak, Berritzeguneetako aholkularitzak, Hezkuntza Ikuskaritza) zutabe horietan oinarritzen dira.

**Indarkeria matxistaren arrakalaren** aurrean hezkuntza-eremuan jarduteko ardatzak **jardun- eta detekzio-protokolo** baten diseinuan jarri du arreta, Berritzeguneen, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Emakunderen parte-hartzearekin, haurrak babestearren gaia eta Arartekoaren jarraibideak barne.

**COVID-19aren** pandemiaren geroztik, hezkuntza-helburuak **3 zutabetan** ardatzen ari dira, **3**

arrakalari lotuta:

- **Ikasle gazteenak eskolatzea**
- **Ikasle kalteberenen desparekotasunak konpentsatzea**
- **Teknologia eta estrategia digital berriak garatzea**

Hezkuntza Sailaren ustez, hiru arrakala horiek estaltzeari dagokionez egoera nahiko ona da, lehen eta hirugarren zutabeetan batez ere.

Gai horiei dagokienez, **neska gazteek karrera zientifikoak garatzeari** lotutako arrakalan dago kezka nagusia (STEAM). **STEAM Euskadi Estrategia** erronka horri heltzen ari zaio.

COVID-19arekin batera, zenbait **arrakala** azaleratu dira: **digitala** (eskolatze ez-presentziala), **teknologikoa** (konektibitatea, baliabide teknikoak), eta **metodologikoa** (online edo modu mistoan lan egiteko laguntza behar duten irakasleak). Erronka horiei erantzuteko, **Digitalizazio Plana** bultzatzen ari da. Eremu horretan, 2000ko hamarkadaz geroztik ikastetxeei laguntza ematen zaie, haien eskura baliabideak jarriz eta oinarrizko gaiak irakatsiz: plataformak, posta elektronikoa, etab. Horri esker, plataformak planteatu zuen erronkari erantzuteko aukera izan zen. Plan horretan adierazten denez, kalteberatasun-egoeran dauden ikasleek ikasteko zailtasunak badituzte, kasu hori zehatz-mehatz aztertuko da, eta beharrezkoa izango den laguntza emango zaielako konpromisoa adierazten da. EAEren, Estatuaren eta Europaren arteko koordinazioa egokia dela adierazten da.

*Hezkuntza Sailetik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da "arreta metodologia aktiboan, ikaskuntzaren garapen unibertsalean jarri behar dela. Horrek esan nahi du diseinua premia eta pertsona bakoitzari egokitu beharra dagoela. Pertsona guztiek, dauden egoera eta dauzkaten gaitasunak edozein izanik ere, erantzun bat jaso behar dute hezkuntza-sistemaren eskutik, eta metodologia aktiboaren bidezko digitalizazioak bide hori erraz dezakeela uste da."*

**Digitalde** izeneko lantaldea sortu da, berritzegune nagusian eta beste ikastetxe batzuetan metodologiaren ikuspegitik esperientzia duten pertsonen osatua. Irakasleak **zibersegurtasunean eta ziberbizikidetzan** prestatzea lehenetsi da beste ezer baino lehen (Prest-Gara programaren eskaintzaren bitartez). Gobernu-mailan, zibersegurtasunaren gaineko esparru-estrategia bat egiteko borondatea nabari da.

Irakasleen prestakuntzaren harira, **Prest Garan inklusioaren** arrakalari heltzen zaio, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoei eta desberdinak direnekiko bizikidetzaren sustapenari dagokienez. Berritzegune nagusitik diseinatzen diren ikastaro indibidualetako (ia 200) edukiak **premia bereziak dituzten ikasleei** buruzkoak dira (irakasleen interesa), eta beste batzuk, berriz, pertsona desberdinekiko (atzerritarrak, ijitoak, etab.) **bizikidetzari** eta **kulturartekotasunari** buruzkoak.

**Ikaskuntza-komunitateen** proiektuan erabaki dute **desparekotasun sozialari** lotutako **hezkuntza-desparekotasunaren** gainean jarduteari lehentasuna ematea, eta **indarkeriaren prebentzioari** lehen adinetatik sakonetik heltzea, lehen edo bigarren hezkuntzan heltzen zaion arren, lehen adinetan hasten den arazo bat dela hartzen delako aintzat.

**Bizikasi** ekimenetik aintzakotzat hartzen da bete beharreko arrakala nagusia **bazterkeria** dela, eta esparru inklusiboaren ikuspegia bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusia dela uste da, inklusio-mailaren arabera maila batean edo bestean zehaztu beharko delarik: proiektuari edo ikastetxeari lotzea, **kidetasun-sentimendua**. Ikuspegi horrek hiru onura handi dauzkala azpimarratzen da:

- Ikasleak bazterkeriatik urruntzen ditu.
- Ikaslea kolektibo baten parte da bere eremu sozialetik, pertsona gisa garatzeko eta hazteko.
- Kolektibo intelektualarekin lotzen du, bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko.

**Adimen-desgaitasunaren eta buru- eta jokabide-osasunaren** problematikan murgildutako ikasleei dagokienez, Hezkuntza Sailak azpimarratzen du espazio komunean nahi bezala uztartzeak suposatzen duen erronka. Nolanahi ere, ikasle horiekiko lan espezifikoak alferrikako lana litzatekeela uste da, baldin eta **hezkuntza-komunitatearen gainerakoarekin zubi sendorik** ezartzen ez bada. **Hori da konpondu beharreko arrakala nagusia.**

Errealitate horren aurrean, hainbat estilotako baterako jardunak diseinatzen ari dira, **hezkuntza-ibilbide inklusiboak** prestatuz horrelako ikasleak baldintza egonkorretan aurki daitezen, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko, eta **hezkuntza-komunitatearekin lotura bat sortzeko** moduan, ikasle horiek, kanpo-zerbitzuak jasotzera mugatutako eta gainerakoekin normaltasunez bizitzeko ezindutako pertsonak izan ez daitezen. Esku hartzeko espazio arruntak sortu nahi dira, ikasleen eta familien konpromisoarekin eta ahalik eta egoerarik normalizatuenean egon daitezen.

**LGTBI** pertsonen dagokienez, gainerako pertsona heteronormatiboen askatasun berberarekin ez direla bizi aipatzen da. Aditzaera ematen denez, eremu askotan, hezkuntza barne, ez dute beren sexu-orientazioa aipatu ere egiten, arazoak saihestearren. Eremu askotan, **hitzeko erasoak eta eraso fisikoak** pairatzen dituzte beren sexu-orientazioa dela-eta. Haien askatasuna mugatzen duen kultura matxista homofoboaren substratu bat nabari da. Zaila da errealitate horri buruzko datuak biltzea, familia-estatistikarik ez dago gai delikatu delako, eta identitate eta orientazio sexuala ez azaltzeko eskubideak babesten du, azalduz gero diskriminazioa paira dezakezulako. Horrek zailago egiten du erabakiak hartzea edo politika jakin batzuk justifikatzea, hezkuntza-eremutik kasu honetan. **Integritate fisikoa eta psikologikoa** eta laneko eta beste hainbat eremutako **diskriminazioa** dira detektatu diren arrakala nagusiak.

**2020ko Gazte Planari** dagokionez nabarmentzen da heltzen dizkion gaietako asko **kohesio sozialari** lotuta daudela, gazte bat ere atzean gera ez dadin. Nolanahi ere, hezkuntza-ikuspegitik, **PRISA Programaren txostenarekin** lotutako elementuak aipatzen dira bakarrik. Hezkuntza Saileretik adierazten da komeniko litzatekeela, plan horretatik abiatuta eta hezkuntza-eremuari loturik, **jasangarritasunaren** gaiari ere heltzea, baita **eskola-porrotgatiko bazterkeria-arriskuan dauden gazteentzako** laguntzari eta **inoren kargura ez dauden adingabe etorkinei** erantzuteko gaiei ere.

**2018-2022 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko familiei laguntzeko erakundearteko IV. Plana** hezkuntza-eremuari lotzen zaio **familia eta lana bateragarri egitea** sustatzen duen heinean, **Haurreskolak** Partzuergoaren eskutik garatzen ari dena, eta EAEn jaiotze-tasa txikiari dagokionez dagoen **erronka demografikoari** heltzearekin ere dauka zerikusia.

**Bizikidetzaren, giza eskubide eta aniztasunerako Planak bizikidetzari, erradikalizazioaren detekzioari, desberdintasuna onartzeari eta gatazkak konpontzeari** dagozkien erronka eta arrakalei heltzen die tolerantzia eta errespetua sustatuz hainbat ekimenen eskutik, horietako gehienak hezkuntza-eremuari loturik, alde aurretik azaldu den bezala.

**2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planak** hezkuntza-ingurunerako garrantzitsuak diren arrakala jakin batzuei heltzen die, hala nola **droga-mendekotasunen edo alkoholismoaren prebentzioari eta haur- eta gazte-obesitateari**.

**2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasunerako hezkuntzaren estrategia,** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Hezkuntza Sailak batera bultzatutako programa bat da, **ingurumen-hezkuntzaren** gaineko arrakalari heltzen diona, eta, 2030 Agendak emandako begiradari esker, **jasangarritasun**-elementuak ere biltzen ditu, ikuspegi integralago batetik. Ere horrek Hezkuntza Sailaren barruan garrantzi handiagoa har dezala sustatu nahi dela adierazten da, 21 Agendatik eta Ingurugeletatik garatutako lanari jarraipena eta osagarritasuna emanez.

5. Planak egiteko erabili diren tresnak (diagnostikoak, eszenatokiak, desparekotasunen azterketa).

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

**Plangintza batek sendotasuna eta legitimitatea eduki dezan,** funtsezko irizpide honi jarraitu behar dio: **behar bezala planteatutako eta zabalduko aurretiko fase analitiko batean oinarritzea.** Hortaz, adierazle horrek aukera emango digu 2. adierazlean identifikatutako planen sendotasuna egiaztatzeko, haren konfigurazioan erabilitako tresna eta prozesuen bitartez.

**Nahiko ohikoa da diagnostikoak eta ebaluazioak** erabiltzea Eusko Jaurlaritzako balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-kulturaren arloan bildutako egungo planak, 2. adierazlean aipatutakoak, konfiguratzeko, **horrek ekimen guzti-guztiak estaltzen ez baditu ere.** Aipatzen denez, ekimen batzuen barruan, planak oinarritzeko eta eguneratzeko lana txertatu da, diagnostiko eta ebaluazio sistematizatuak eginez, eta maila operatiboan gertatutakoa zuzenean ikasiz eta harekin harremanetan jarritz. Beste instantzia batzuetan aitortzen da, ordea, erreferente urri daukatela, beren ardurapeko hezkuntza-politika eta hezkuntza-ekimenak ezagutza handiagoarekin formulatzeko.

Eusko Jaurlaritzako instantzia desberdinen artean errealitatea aldatzea da beraz, hezkuntza-eremuko planak eta programak egiteko tresnen erabilerari dagokionez, jarraian zehatz-mehatz azalduko dugunez.

**2030ko Agendako lehentasunen euskal Programa,** Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzatik egindako **Euskadi Basque Country 2030 Agendako lehen 5 urteetako balantzean** oinarrituta egin da, neurri handi batean. **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritzak landu ditu erronka eta ondorio berriak,** eta Sail guztiekin partekatu dira.

Hezkuntza-politikaren mailan, hainbat eremutan eragina duen **premier diagnostiko** bat egin



zen. Errepikatzen diren kasuistikak islatu ziren diagnostiko horretan, gizarte-zerbitzuen, segurtasunaren, osasunaren/pediatriaren eta instantzia judizialen eremuekin lotuta daudenez horretarako behar adinako gaitasunik ez dutelako eskola-eremuan behar bezalako erantzuna jasotzen ez duten arazo eta kexa ohikoenak. Horren ondorioz, ISEI-IVEIk **ikastetxeen kalteberatasun-indize** bat landu zuen, egoera ekonomikoen arabera. Ondorio global gisa atzematen da, ingurune sozial kalteberenetan emaitza akademikoak okerragoak direla, eta bete beharreko premia espezifikoak detektatzen direla.

Modu osagarrian azaltzen da 18 Berritzeguneez eta Hezkuntzako ikuskaritzak **hezkuntza-errealitateari gertu-gertutik** jarraitzen diotela, eta hartan gertatzen denari buruz bete-beteko ezagutza eguneratua daukatela, hobetzeko ekintzak eta planak formulatzeko orientagarri.

**Eskola inklusiborako Esparru Planari** dagokionez, 2012-2016 aldian aurrekari bat izan zenez eta haren ebaluazioa egin gabe zegoenez, esparru-plana aprobetxatu zen eremu horretan egiten ari zen guztia biltzeko eta egin zitekeena proiektatzeko.

**Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Estrategian, diagnostiko** bat egin da ordura arte eremu horretan garatuta zegoen guztiaren inguruan, kanpainak, emandako laguntzak eta eskola jasangarrien funtzionamendua aztertuz. Ingurumen Sailak Gobernu Zentralari laguntzen dio **jasangarritasunerako hezkuntza orokorreko ekintza-plana** garatzeko lanetan. Ez du zuzenean parte hartzen Hezkuntzako dekretu berriaren garapenean, baina bai Ingurugelen bitartez.

**II. Hezkidetzaren Plana** egiterakoan, **Eusko Jaurlaritzako zazpigarren Berdintasun Plana** hartu da erreferentzia-esparrutzat. Ildo horretan, 3. helburu estrategikoan (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako prebentzioa, detekzioa eta arreta) sartu dira kontrolatzeko eta informazioa biltzeko sistema bat edukitzeko mekanismoak, **ikastetxeetan atzemandako emakumeen aurkako indarkeria-kasuen** berri izateko, mota guztietako erasotzaileak barne, etab.

Egungo Hezkidetzaren Plana egiteko diagnostiko eta erreferenteen mailan, **aurreko planaren ebaluazioa** erabili zen lehenik eta behin. Ondoren, **ISEI-IVEIk** Bizikasi ekimenarekin estu lotuta **egindako azterlanen** emaitza aprobetxatu zen. Espezifikoki genero-indarkeriari buruzko datuak ez badira ere, oso baliagarriak izan dira haientzat. Genero-indarkeriari buruzko **estatu-mailako azterlanetan** ere oinarritu dira (María José Díaz Aguado). Azkenik, **Emakundek emandako datuak** hartu dira kontuan, Hezkuntza Sailarentzat hezkidetzaren arloko erreferente nagusia den heinean.

II. Hezkidetzaren Planaren materialak landu gabe daude oraindik. Familia, irakasle eta gainerako guztientzako informazio guztia **Hezkidetzaren Gunea** webgunean argitaratu da orain gutxi. Une honetan, hezkuntza-etapa guztietarako materialak garatzen ari dira. 2021aren amaierarako material guztiak edukitzea da helburua. **Beldur Barik** programari dagokionez, orain urte batzuetatik irakasleentzat prestatuta zeuden materialak berrikusi dira eta ekarpen berri batzuk erantsi zaizkie, egungo hezkidetzaren planaren zutabeetara egokitu ahal izateko, irakasleak egitura horrekin funtzionatzen ohituta baitaude.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak sustatutako hezkuntza-ekimen guztietan, **premier barne-azterketa** bat egin da, **kanpo-kontrasteekin, dokumentu- eta tresna-proposamen** bat egin eta kontrastatu da, eta, amaitzeko, jasotako *feedback-a* erantsi zaie.

**Ikaskuntza Komunitateen Plana**, 1996an lau eskolatan hasitako **proiektu pilotu** batetik dator; funtzionatzen zuela ikusi zenean, ikastetxe, autonomia-erkidego eta herrialde gehiagotara zabaldu zen.

**Ijito Herriaren** hezkuntza-inklusioa sustatzeari dagokionez, Hezkuntza Sailak **diagnostikoak** egiteko zailtasuna aipatu du, besteak beste. Nolanahi ere, adierazten da, ikasle ijitoekin diharduten entitateen eta ikastetxeetan egiten diren inkesten bitartez, errealitate hori zeharka ezagutzeko aukera izan dela.

Hezkuntza-sistemaren **digitalizazioaren** eremuan, **baliabideen premiari buruzko azterketak** egiteko joera nabari da. Hezkuntza Sailatik adierazten da oraingoz ez dela asmatu eremu horri lotutako bestelako gabezia eta eskarien diagnostikoa egitean. Izan ere, azpimarratzen da espero dela COVID ondoko berreraikuntzarako Europako funts gehienak dispositiboak erosteko izango direla, bestelako premier diagnostikoan nabari den gabezia hori dela-eta.

Hezkuntzatik **bizikidetzaren** sustatzeari dagokionez, **ikastetxeetako bizikidetzaren planak** dira tresna nagusia, eta horietan diagnostiko-elementua konstante bat da, baita hobetzeko lerroak ezartzeko garaian ere. Modu osagarrian, ikastetxe guztietan **Bizikidetzaren behatokiak** daude, eta **BAT taldeak** sortu dira (Bizikidetzaren Aldeko Taldeak, Bullying Aurkako Taldeak). Talde horiek aliatu handi baten antzera dihardute, bullying-eko edo bizikidetzaren positiboaren hausturako kasuei buruzko informazio asko emanez. Eta azkenik,

**mintegien** hedapen zabala nabarmentzen da, **Berritzegune** guztiek sustatua.

**2019-2022 aldirako Adimen Gaitasun Handiko Ikasleei Hezkuntza Arreta emateko Planaren** kasuan, ISEI-IVEIk Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egindako eta planean bildutako **ebaluazio** bat izan zen abiapuntua.

eLankidetzan aitortzen da **diagnostikoak** egiteari dagokionez gabezia nabari dela baliabiderik eza dela-eta, eta **ebaluazioa** ere eskasa dela uste dute, alderdi batean eta bestean **hobetzeko tarte handia** atzematen delarik. Termino zehatzagoetan, **(H)abian 2030** estrategia eta **GOLDATU Plana** egitean **egoera-diagnostikoak eta aurretiko azterlanak** egin dira, sektorean premiak eta potentzialitateak detektatzeko helburuarekin.

**Boluntariotzari** dagokionez, **2020an boluntariotzaren egoerari buruzko txosten** bat egin zen (aurrekoa 2017koa zen), non, besteak beste, EAEko boluntariotzaren egoera, boluntarioek behar duten prestakuntza eta digitalizazioaren hobekuntza jaso ziren. Estrategia berrian, prestakuntzako premia eta ekintza guztiak bateratu nahi dira, eta horiei guztiei erantzun oso bat emango dien boluntariotza-eskola bat sortu nahi da (komunikazioa, digitalizazioa, etab.).

6. Eusko Jaurlaritzatik kanpo badaude ere, GGJan edo plan eta estrategia horiek egiteko lana gidatzen duten balio eta printzipioetan adituak diren pertsonak parte hartzea.

**Garapen-maila GJPKari dagokionez:**

**HANDIA**

Gobernuko instantzietatik garatutako plan eta estrategien behin betiko elaborazioan, dagokion gaian ospea lortu duten eta adituak diren pertsonak parte hartzea eta ekarpenak egiteak ere plan eta estrategia horien sendotasuna indartzen du. Barneko (Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuan gertatzen den bezala) zein kanpoko ekarpen horiek lagungarri izan daitezke, halaber, interes orokorren gaineko interes alderdikoen ondorioz gerta litezkeen injerentziak prebenitzeko. Adierazle horrek 5. adierazlearen azterketa osatzen du, GGJarekiko bat-etortzeari eta laguntzeari loturik hezkuntza-eremuko planek eta estrategiek duten sendotasun-mailari dagokionez.

Hezkuntza-eremuan zabalduko planak, programak eta ekimenak egiteko **administrazioaren baliabideak erabiltzearen aldeko jarrera argia** atzematen bada ere (**Berritzeguneak eta Eusko Jaurlaritzako Saisetako langileak**), hori ez da oztopo, hainbatetan, **oso gai zehatz eta espezializatuetan adituak diren pertsona eta erakundeen parte-hartzea** edukitzeko. Adierazten denez, ekarpen horiek selektiboki integratzen dira, eta Eusko Jaurlaritzako langileen ezagutza eta esperientziaren osagarritasunean justifikatzen.

Hurrengo paragrafoetan, kanpoko pertsona eta erakundeek Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko ekimenak konfiguratu eta planifikatzean egindako kolaborazio esanguratsuenak zehazten dira, elkarriketatuek horien inguruan egindako azterketa barne.

**2030 Agendaren lehentasunen euskal programa** egitean, **kontsulta publikoaren ekarpenak** jaso ziren, baina dokumentuaren zati handiena **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritzaren** baliabideekin landu da.

**Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Estrategiaren** konfigurazioan eta zabalkundeetan,

Ingurugelek emandako **datu eta ezagutza propioetatik** abiatuta lan egiten da.

**Hezkuntza Sailaren planak** konfiguratzeko, **jende espezializatuari** egiten zaio kontsulta, (hezkidetzako eta genero-indarkeriako adituei, adibidez), helburuak kontrastatzeko eta esku hartzeko lehentasunezko ildoak ezartzeko helburuarekin. Nolanahi ere, **Sailaren baliabideetara** jotzen da normalean, zehazkiago, oso kontsolidatua dagoen **Berritzeguneen** laguntza-sarera, eta horiek ere kanpoko adituak proposatzen dituzte batzuetan. Maila partikularrean, **Heziberri 2020** planerako ikastolen eremuko adituak hartu ziren.

*Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzatik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten denez "horrelako planak esternalizatzen direnean, eta kontratatutako enpresak Sailaren eskutik oso testuinguru argia jasotzen ez badu lortu nahi denaren eta eskuragarri dagoen informazioaren gainean, gero nolabait desfektatuta daudela ikusten da. Nire ustez oso garrantzitsua litzateke geure kasa egiten ahalegintzea, baina ulertzen dut batzuetan egitura batzuek horretarako bide ez ematea, behar besteko jendea eduki ezean. Kanpoko begiradak oso aberasgarriak iruditzen zaizkit, betiere ekimenarekin nolabait bat badatoz, eta jarduteko behar den informazioa eskuragarri badago."*

**Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoei** arreta emateko planetarako, **unibertsitate**ra jotzen da oro har, kontrastatzeko eta kontsultatzeko. **Elkarteekin** ere kontaktatzen da, autismoko, adimen-desgaitasuneko eta desgaitasun fisikoko, gorreriko eta dislexiako elkarteekin, adibidez. Urtean bilera batzuk egiten dira normalean, eta Hezkuntza Sailaren erabakietan dute eragina.

**2019-2022 aldirako Adimen Gaitasun Handiko ikasleei Hezkuntza Arreta emateko Plana** egiteko lanetan, **Deustuko Unibertsitatearen** kolaborazioa izan zen.

Irakasleentzako **Prest-Gara** ikastaroen kasuan, Eusko Jaurlaritzatik **kanpoko erakundeek** ematen dituzte guztiak (EHU, elkarteak, Agintzari, Gure Sarea, etab.).

**Ikaskuntza-komunitateen** proiektuak, **Bartzelonako Unibertsitatearen INCLUD-ED** koordinatzen duen taldearen kolaborazioa dauka. **Deustuko Unibertsitateko** pertsonak ere parte hartzen dute, baita lan-ildo beretik dabilen **EHUko** pertsonak ere. **Ijito Herria gizarteratzeko estrategiak** pisu handiagoa du **Katalunian** EAEn baino, eta horregatik aholkularitza eskatzen zaie. Bartzelonako Unibertsitatearen kasuan, **CREA - Centro de Investigación en Teorías y Prácticas que superan las Desigualdades** Ikerketa Zentrora jotzen dute, gai horren gaineko Europako ikerketaren eta inpaktu sozialeko adierazleen elaborazioaren buruan dagoen Ikerketa Zentrora, hain zuzen.

**Immigrazio Planaren jarraipen-foroan**, kanpo-eragileek parte hartzen dute, Unicef-ek adibidez, eta hirugarren sektore sozialeko beste erakunde batzuek ere bai.

**Hezkuntza fisikoari** dagokionez, hezkuntza fisiko-emozionalaren arloko adituei kontsulta egiten zaie, ikaslearen hezkuntza globalari, hau da, **bizitzen jakiteari**, heltzeko prozesuan barneratuz. Bestetik aitortzen da ikasle etorkinek eragina izan dutela **integrazioaren balioa** kirolaren barruan txertatzean. Unesco Etxean ere bilerak egin dira, GJHen berri izateko.

**Bizikasi** ekimena, **bizikidetzan, balioetan oinarritutako hezkuntzan eta bullying-ean** adituak diren pertsonekin kontrastatu zen, konfiguratzeari begira. **Ikastetxeetako zuzendaritzekin, ikasketa-burutzekin, Berritzeguneekin eta Ikuskaritzarekin** ere kontrastatu zen.

**Berdinu** zerbitzuaren kasuan, Idazkaritza Teknikorik ez dago, eta kanpo-erakunde batek zuzenean ematen du zerbitzua.

Hezkuntza-eremuaren **digitalizazioari** dagokionez, erreferente gehienak **Euskaditik kanpokoak** dira.

**Hezkidetza Plana**, berriz, barne-baliabideen bitartez lantzen da. Nolanahi ere, Emakundek enpresen laguntza izan du aurrera eramandako lanak egiteko, eta Hezkuntza Saila horren zeharkako onuradun izan da.

Mintegi eta jardunaldietan adituen eta ponenteen parte-hartzea izaten da. Nahiko-n adibidez, kanpo-ponenteekin lan egiten da. Eta gauza bera materialak prestatzean, gida bat egitean adibidez.

*Hezkuntza Sailaren berdintasun-arlotik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da “orain II. Hezkidetza Planaren ekintzetako bat egiten ari dela, protokolo bat zehazkiago, eta kanpoan laguntza eskatu beharrean geundela, indarkeriari buruzko protokolo bat egiten ez genekielako.”*

**Giza Eskubideen Zuzendaritzak** garatutako hezkuntza-programak barne-baliabideekin egin dira, **Eskura** izan ezik, diseinurako kanpoko parte-hartze puntual bat izan duena.

**eLankidetzak eragile berriak** txertatu ditu bere hezkuntza-ekimenetan, elkarrizketa, tailer eta kontraste-taldeen bitartez. GJPKaren kasuan zehazki, Eusko Jaurlaritzak mintegi bat antolatu zuen Natalia Millán andrearen eskutik. **Hezkuntza-proiektuen ebaluazio** formalarik eta ez-formalarik dagokionez, egin dira eta Eusko Jaurlaritzatik kanpo lizitatu ziren. Orain gutxi, taldea handitu da, eta barne-baliabideekin gauzak egiten hasi dira, komunikazioaren, aliantzen eta plangintzaren eremuetan, besteak beste.

### 1.3. POLITIKEN INTEGRAZIOA

**HELBURUA:** Hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren integrazioa hobetzea, GGJ horietan eta horien finantzaketan sartzeko bidea errazteko, eta, ildo horretan, politika ekonomiko, sozial eta igurumenekoaren eremuen arteko sinergia eta onurak aprobetxatzea, baita autonomia-erkidegoetako eta nazioartean aitortutako garapen jasangarrirako helburuen artekoak ere.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
7. Ikasketa-planetan	ERTAINA
8. Deialdien baremazioa	ERTAINA
9. Aurrekontuko eta beste baliabide batzuetako zuzkidura	HANDIA

#### Adierazleak:

7. Hezkuntza-mailako plan eta esparru globalerako printzipio eta balioak ikasketa-planen konfigurazioan txertatzea.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

GGJari dagokionez Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-politikaren erreferentziarako esparru globala osatzen duten printzipio eta balioak laburbildu eta kontrastatu ondoren, GJPKaren ikuspegiaren arabera azterketa osatzen da beste urrats bat aurrera eginez, adierazpen-plan horiek oinarritutako hezkuntza-ekintzan zenbateraino txertatu diren egiaztatzeko. Horretarako, adierazle hau funtsezkoa da, printzipio eta balio horiek ikastetxetako ikasketa-planetan zenbateraino integratu diren egiaztatzeko aukera ematen duen heinean.

Hezkuntza-planen curriculumak dekretu bidez finkatzen dira. [LOMLOE](#) legeak behartuta, Eusko Jaurlaritzak bere curriculum-dekretua argitaratu beharko du, GGJaren erreferentziarako balio eta printzipioak kontuan hartuz eta LOMLOE legean jasotako jarraibideekin bat etorritik.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-arloan sustatutako erreferentziarako esparrua (balioak, printzipioak, helburuak, planak, estrategiak, programak, etab.) **oso modu desberdinetan** iristen da ikasgelara, **ekimen eta gaien arabera**. Kasu guztietan denak bat datoz asmoa horixe dela adieraztean, baina artikulazio hori hezkuntza-sistemaren azken bazterreraino eramaten dela ziurtatu eta egiaztatzeko zabalkunde operatiboa oso desberdina da intentsitatean eta baliabideetan.

Diagnostiko hori ebidentzia batekin osatzen da: GGJaren printzipio eta balioak ikasketa-planetara eramateari dagokionez **egiteke eta sendotzeke dagoen zabalkundearen** zati handienak honako hauekin dauka zerikusia, nagusiki: ingurumen-jasangarritasuna eta etorkizuneko belaunaldiekiko konpromisoa, eta beste toki eta komunitateekiko

Zehazkiago, ekimen batzuetan (**Bizikasi**, adibidez), bizikidetza positibo bat eraikitzeko hartutako hezkuntza-esparrua ikasgelara eramatea da **izateko arrazo** nagusia, eta aldi berean erronka nagusia, ekimenaren porrotari edo neurrigabeko erabilerari dagokionez ager litezkeen kasuak geldiarazten laguntzeko. Planteamendu horrekin bat etorriz, Bizikasik **ikasleak ahalduntzeko** estrategia jarri du abian, sentsibilizazio- eta kontzientziakantainekin osatuz. Hain zuzen ere, asmo hori abian jartzeko, BAT taldeak prestatuko dira ikastetxe publiko guztietan eta itunpeko batzuetan, irakasleei etengabeko prestakuntza eskainiko zaie berritzeguneen bitartez, eta familientzako eta irakasle ez direnentzako prestakuntza bideratuko da.

**Hezkidetzaren** eremuan, bigarren planak **ikastetxeentzako informazioa** hartzen du barne, hartatik eratorritako jarduerak diseinatuz. **Irakasleen** eskura **prestakuntza** jartzen da, **eta mintegietan parte hartzeko** aukera ere ematen zaie, ondoren ikasgelan, hezkidetzaren errazten duten balio, printzipio eta dinamikak azal ditzaten.

*Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten denez, "Bizikasi-ren (bizikidetza positiboa ikasgelaren barruan) eta Hezkidetzaren (genero-berdintasuna) tutore-ekintzako planean, ikasgelako transmisioan asko ahalegintzen dira kemen handiarekin, curriculumetik haratago."*

**Hezkuntzaren digitalizazioaren** eremuan ere bilatzen da beti ikasgelan inpaktua eragitea. [Sare Hezkuntza](#) proiektua da ekimen nagusia arlo horretan, azken 5 urteetan eduki digitalak sortzeko eta ondoren ikasgelara eramateko ekimena bultzatu duena, kontuan hartuta irakasleek sortutakoa sarean partekatu beharra dagoela [Amaraura](#) plataformaren bitartez. Nolanahi ere, aitortzen da transmisioen balioa ikasleei benetan iristen ote zaien ziurtatzerik ez dagoela, ikasleek kanpotik input pila bat jasotzen dutelako, sare sozialen bitartez bereziki.

Erreferentzia horietatik haratago, Eusko Jaurlaritzak garatutako gainerako hezkuntza-ekimenetan ohikoena da metodologia eta dinamikak GGJarekin bat datozen erreferentzia-esparruaren eragina jasotzea, baina aldi berean **zailtasunak** agertzea **curriculumera eramatean eta praktika-mailan hezkuntza-komunitatearengana benetan iristen ote den egiaztatzeko garaian**. Arrazoiak askotarikoak dira. Batzuetan, ikastetxeei ekimen gehiegiren ardura ematen zaie, eta, horrenbestez, irakasleen borondatearen, prestasunaren eta inplikazio-mailaren mende egoten da. Beste batzuetan, berriz, kontzeptu, printzipio eta balioak zenbateraino zabaldu diren eta lortu nahi den inpaktua azkenean lortzen ote den kontrastatzeko tresna eta prozesurik ez dago.

8. Hezkuntza-mailako plan eta esparru orokor guztien printzipio eta balioak Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-deialdien baremazioan integratzea.

**Garapen-maila GJPKari dagokionez:****ERTAINA**

Hezkuntza-politikaren eremuan, erreferentziazko esparru orokoraren eta haren printzipio eta balioen translazio operatiboak argitasuna eta zehaztasuna eskatzen du, eremu horretan Gobernuaren deialdiak barematu eta erabakitzeko erabili behar diren irizpideak zein diren adierazteko garaian. Horregatik guztiz zentzuzkoa da GGJ deialdietako baremazioetan zenbateraino sartu den islatzen duen adierazlea bat edukitzea.

Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan, adierazle horren aurrerapen-maila aldakorra da. **Irakasleen hautaketari** dagokionez, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, prozeduraren baremazioan ez dira aintzat hartzen GGJaren berezko printzipio eta balioak, ezta hezkuntza-praktikatik haren garapenean metatutako esperientzia ere. Irakasle-postu baterako aurkezteko prozesuan, hari lotutako prestakuntzak eta esperientzia akreditatzen direnean, kulturarteko hezkuntzaren printzipioekin, inklusibitate-planekin, gatazkak konpontzeko prozedurekin eta beste zenbaitekin loturarik ba ote duten baloratzen da. Nolanahi ere, gehienek uste dute **eremu horretan hobe daitekeela, argi eta garbi.**

**Irakasleen prestakuntzari** buruzko proposamenetan, aldiz, GGJari lotutako printzipio, balio eta gaiak sartzea hartzen da kontuan. Eta gauza bera gizarte-arrakala murrizteko eta desparekotasunak murrizten laguntzeko helburua duten **bekak** ematerakoan, eta horrenbestez, bekak ematean, ikastetxeetako ikasleen kalteberatasunarekin zerikusia duten alderdiak hartzen dira kontuan. Eta jasangarritasunerako hezkuntzaren balioen integrazioa eta sustapena kontuan hartzen da, halaber, gai horren berezko deialdietan.

GGJaren printzipio, balio eta helburuak kontuan hartzen dira, halaber, **ikastetxeentzako** eta hezkuntza-eremuan zerbait proposatzen duten **elkarteentzako laguntzen** deialdietan. [Ikastetxe publiko eta itunpekoentzako hezkidetza-planak egiteko deialdia](#) dugu horren adibide argi bat.

9. Inklusioa, bizikidetza, berdintasuna, generoa eta giza eskubideak sustatzeko hezkuntza-ekintzek jasotzen dituzten baliabideen erabilera eta aurrekontu-zuzkidura.

**Garapen-maila GJPKari dagokionez:****HANDIA**

8. adierazleak emandakoaren osagarri, adierazle honek hezkuntza-politikaren alderdi operatiboan jartzen du arreta, GGJaren printzipio eta balioak garatu eta sustatzeko baliabideen eskuragarritasunari dagokionez. Bildutako informazioa baliagarri izango da, erreferentziazko esparruak eta planak eta GGJari dagokionez hezkuntza-ekintzatik lortu nahi diren asmoak eta jomugak, maila operatiboan lortzeko eta garatzeko funtsezko erabakietan zenbaterainoko eragina duten baloratzeko, erabaki horien haritik, heldu beharreko erronketara egokitutako baliabide operatiboak eta antolamendu-egitura eraginkor eta efizienteak eratorri beharko direlarik.



Balorazioaren arabera, GGJ sustatu eta defendatzearen ikuspegitik hezkuntza-esparruaren zabalkunderako baliabide-hornidura **nahikoa da maila ekonomikoan, baina hobetzeko modukoa giza baliabideei dagokionez.**

Hezkuntza-sisteman, ikasle etorkinen integrazioa errazteko lanpostu espezifikoak sortzen dira (hizkuntza-errefortzurako, adibidez), edota aniztasunari, hezkuntza-premia bereziei, buru-arazoei arreta emateko edo Ingurugelen funtzionamendua bideratzeko lanpostuak. Baina berriz ere aipatzen da kopuruan ez direla nahikoak goraka doazen premiei behar bezala erantzuteko (esaterako, buru-arazoak dauzkaten ikasleentzako arreta ez da nahikotzat jotzen), eta bidezkoa litzatekeen ordainsaria ere ez dutela jasotzen.

Aitzitik, egiaztatzen da hezkuntza-berrikuntzako aurrekontuak nagusiki inklusioarekin eta premia bereziekin zerikusia duen guztiari ematen diola lehentasuna, eta gehienetan, aurrekontu operatiboa (langileen soldatak kontuan hartu gabe) nahikoa dela uste da.

**Digitalizazioaren** kasu espezifikoan adierazten da baliabide gehienak **aparatuak erosteko** izango direla, multinazional handien gomendioei jarraikiz, eta herritarren kompetentziaren berezko balioak kontuan hartu gabe.

## 2. blokea. EKINTZA KOORDINATUA

### 2.1. POLITIKEN KOORDINAZIO HORIZONTALA (Sailen artean)

**HELBURUA:** Eusko Jaurlaritzan balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan diharduten instantzien guztien koordinazioa bermatzea, eremu horren lehentasunen arteko desadostasunak identifikatu eta arintzeko, eta Sailen eta Gobernuko beste instantzia batzuen artean ekarri laguntzeko ekintzak sustatzeko.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
10. Sailen artean koordinatzeko egituren funtzionamendua	ERTAINA
11. Egoera gatazkatsuen kudeaketa	ERTAINA

10. Sailen arteko koordinazio-egituren funtzionamenduaren balorazioa: batzordeak, mahaia, kontseiluak, lantaldeak, etab. Sortutako lantaldeen, partekatutako proiektu,

jardunbide egokien eta lidergoen, plan eta estrategien aldaketaren eta beste hainbaten identifikazioa.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

Gobernuko —hezkuntza-politikaren arloko, kasu honetan— instantzien arteko koordinazioan lortutako jarduna funtsezko alderdietako bat da GJPKaren azterketan. Adierazle horrek garrantzizko informazioa eman beharko du, nola Sailen artean sortutako eta bultzatutako koordinazio-egiturei dagokienez, hala haien funtzionamendu-mailari dagokionez, bi parametroak aztertuz hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremutik GGJ sustatzeko egiten duten ekarpenaren arabera.

Adierazle honen funtsezko alderdian, atzemandako **batzorde, lantalde, foro, talde eragileen eta bestelakoen kopuru handia** nabarmentzen da, kapitulu honen b atalean laburbildu direnak, "Gobernantza/Arkitektura" epigrafearen barnean. Espazio formal horiei, koordinatu beharreko alderdiak lantzeko antolatutako bilera puntualak eta informalak ere erantsi behar zaizkie.

Gobernuko Sail eta instantzien artean, GGJ oro har, eta hezkuntza-eremuan bereziki, bultzatzearen oso aldeko jarrera nabari da, GJPKan sakontzeko jardun baten bitartez, baina errealitateak erakusten du **Eusko Jaurlaritzaren egungo arkitekturak ez duela** prozesu hori **errazten. Sail-egitura oso estanko bat** nabari da, ezer gutxi transbertsalizatua euskarari eta genero-berdintasunari dagokienez izan ezik, eta arduradun politiko bakoitzaren borondatearekiko gehiegizko mendetasuna duena; horrenbestez, egitura horretatik abiatuta zaila da baterako lana sustatzea eta agendak partekatzea. Gauzak horrela, sailarteko batzorde batzuetan ez da eman litekeen guztia ematen, eta batzordetik ere ez da jaso litekeen guztia jasotzen. Eta, horren guztiaren ondorioz, Hezkuntza Saileko hainbat instantzietan aitortzen dutenez, "foro horien eraginkortasuna hartan parte hartzen duten pertsonen mendean dago. Liderrak besteak bultzatzen ditu". Kasu batzuetan, foro horiek informazio-espazio soil bihurtzen dira, eta ez da erabakirik hartzen edo baterako ekintzarik garatzen. Izan ere, batzorde batzuk desagertu dira bultzada eta lidergorik eza dela-eta, Hezkuntza Sailaren eta garai hartako Familia Politikarako eta Aniztasunerako Zuzendaritzaren parte-hartzea zuen erakundearteko batzordea, esaterako.

Koordinazio bizi bat izaten den kasuetan, ordea, batzordeak, lantalde edo talde teknikoak edota talde eragileak sortzen dira, jarraipena, bilera informalak, jardunen zabalkundearen azterketa eta ebaluazioa egiten dutenak eta hobetzeko ekintzak, ekimen berritzaileak edo kolaborazio berriak proposatzen dituztenak. Horren erakusgarri dugu, Hezkuntza Sailaren eta Kultura Sailaren —zehazkiago, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren— arteko koordinazio bikaina, eta euskararen sustapenerako [HAKOBA](#) sailarteko eta erakundearteko batzordearen funtzionamendua.

Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da "Eusko Jaurlaritzan ez dagoela hezkuntza-eremuko plan, estrategia eta programa guztiak koordinatzeko egitura global bat. Oso egitura zatitua da, eta bakoitza bere kasa koordinatzen da, batzuetan beste Sail batzuekiko interakzio koordinatua bideratzen bada ere (adibidez, Hezkidetzeta Plana, Eskola inklusibo baterako Esparru Plana, Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana). Nolanahi ere, hainbat sailarteko batzorderen funtsezko zeregina informatzea edo kontrastatzea dela atzeman da, baina erabakitze ahalmenik ez dutela."

Berritzegune Nagusitik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten denez, "Bizikasi-tik, beste Sail batzuekiko koordinazioa ez da oso trinkoa; indartsuagoa izatea gustatuko litzaidake niri, kulturartekotasuna eta familia-politikak bultzatuz bereziki."

Ondorio gisa, eta Koherentziaren, Koordinazioaren eta Osagarritasunaren taxonomiari jarraikiz ondorioztatzen da, hezkuntza-eremuan eta GGJ sustapenari dagokionez Eusko Jaurlaritzaren sailarteko koordinazioa nahikoa aurreratua dagoela osagarritasun-mailan, zenbait ekimen kontsolidatu dauzkala koordinazio-mailan, eta hobetzeko tarte handia duela koherentziari dagokionez.

Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da Hezkuntza Sailean airtzen dutela "Sailak mugari batzuk jarri behar dituela, zer egin nahi den argi eta garbi utzita, eta denek horrekin bat etorri behar dutela. Saileko pertsona guztien artean lan egin behar da, beste sailordetzetako zuzendariekin, beste zerbitziburuekin elkartu behar da elkarlanean aritzeko, kultura hori falta zaigulako, horrela lan egitea kostatzen zaigulako."

**Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia** sortzea eta Lehendakaritzan kokatzea urrats egokia da egiturazko gabezia hori zuzentzen ahalegintzeko bidean, baina instantzia horrek COVID-19aren pandemia erantzuteari eman behar izan dio lehentasuna orain artean, eta beraz, oraingoz ezin izan du prozesu horren zeregin traktore eta koordinatzailea gauzatu. Idazkaritzari agindu zaio Eusko Jaurlaritza osoa 2030 Agendaren inguruan lerrokatu eta koordinatzeko, baina koordinazio-egitura zehatz eta iraunkor bat ez dago oraindik ere.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak emandako ebidentzia-adibide bat: "2030 Agendaren lehentasunen euskal programa. 2021-2024 jardun-plana" (Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza, 2021) dokumentuan adierazten da "Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak 2030 Agendarekiko konpromisoa dinamizatzeko eginkizuna beteko duela, Eusko Jaurlaritzaren barnean eta Eusko Jaurlaritzatik. Haren koordinazioa eta sailarteko, sail barneko eta gizarte-alorreko kolaborazioa bultzatuko du, politiken koherentzian, genero-berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batekin."

Ikuspegi **formaletik** adierazten da **batzordeen funtzionamendua bikaina** dela: lidergoa, deialdiak eta zereginen banaketa argiak dira. Alabaina, koordinazio-instantzien aurrerabidea neurri handiago batean lotzen da lidergoarekin eta bultzada politikoarekin, eta Sail desberdinetako pertsonen arteko interakzio modu berrien garapenarekin.

Lankidetzak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da koordinazioa hobetzeko komeniko litzatekeela, "gutxieneko espazio formal bat edukitzeaz gainera, garrantzitsua dela instantzia desberdinetako teknikari eta arduradun politikoen artean hasitako elkarrizketa bat eta baterako asmo bat izatea, elkarrekin egin beharreko gauzak identifikatzea. Elkarlanean aritzean, berritu egiten duzu, eta horrek guztiok hobetzen gaitu, eta hezkuntza-ekintza ere hobetzen du, kasu honetan."

## 11. Alderdi gatazkatsuak kudeatu eta konpontzea. Arbitraje-prozesuak kategorizatzen irizpideak.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

Sailarteko koordinazio-instantzien jardun-maila zehatz-mehatz aztertzen denean, **gatazka ekar dezaketen desadostasun-egoeren konponbide positiboari heltzea da alderdirik sentsibleena**. Horregatik egokia da horrelako egoerak egokitasunez eta eraginkortasunez zenbateraino konpontzen diren egiaztatzen adierazle bat izatea, jardunbide egokiak sistematizatzeko eta ikasitako irakasgaiak lortzeko helburuarekin, koordinazio eraginkor baterako erronken aurreko inspirazio eta erreferentzia gisa baliagarri izan daitezen.

Baieztatzen denez, foro gehienetan, hezkuntza-eremuko Gobernuko aktore nagusien arteko aldeak normalean ez dira oso handiak izaten, **eta horiei positiboki heltzeko edo konponbidek aurkitzeko tresnak eskuragarri daude**, koordinazio-mekanismoak behar bezala funtzionatzen ez duenean.

*Hezkuntza Sailak emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da, egoera gatazkatsuak ahalik eta ondoen konpontzeko, "guztiei entzuten zaiela, eta funtzionatzen duten jardunbide egokiak balioan jartzen direla, elkarrengandik ikasiz eta elkarri transferituz."*

Gobernutik kanpoko eragileek esku hartzen dutenean, egoera disfuntzionalak gertatzen dira batzuetan, neurri batean, aktore horiek administrazioaren funtzionamenduz ezer gutxi dakitelako, eta horrek oinarririk gabeko itzaropenak sortzeari ematen dio bidea.

Sailarteko batzordeetan funtzionamendu arinago bat izatearren, funtzionamendua neurtzen ari da, konpartimentutan zatitutako planen bitartez. Helburua da espazio bakoitzean identifikatzea alderdi zehatz bakoitza gidatuko duen Saila zein izango den.

Horrenbestez, gatazka-iturri izan daitezkeen egoeren kudeaketaren gainean bildutako esperientziak aditzera ematen digu tresna egokiak zein diren: entzute aktiboa, alde aurretik jarrera ireki eta malgu bat izatea, eta alderdi bakoitzak garatutako jardunbideen azterketa eta sistematizazioa ahalik eta ondoen aprobetxatzea.

### 2.2. POLITIKEN BARNE-KOORDINAZIOA (Hezkuntza Sailaren barnean)

**HELBURUA:** Hezkuntza Saileko maila delegatu eta operatiboak behar bezala konprometitzea ekintza koordinatuak susta ditzaten eta elkarren arteko koherentzia hobeto dezaten, GGJ bultzatzearen balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren bitartez.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
<b>12. Barne-koordinazioko mekanismoak</b>	<b>ERTAINA</b>

**Adierazleak:**

12. Sailaren barneko koordinazio-mekanismoak GGJaren balio eta printzipioen zabalkundeari dagokionez, ikastetxe-mailako norainokoa eta mekanismo horien funtzionamenduaren balioespena.

**Garapen-maila GJPKari dagokionez:**

**ERTAINA**

Politiken koherentziaren araberako azterketa osatzeko GJPKan hobekuntza progresibo bat zimendatzeko oinarriaren antzera, aurreko bi adierazleei beste hau eransten zaie, **Hezkuntza Sailaren eremuari** lotuta, Gobernuaren hezkuntza-politikaren ardatz gisa. Ikuspegi horretatik adierazleak informazioa eman behar du **esparru globalak** eta haien printzipio, balio, plan eta estrategiak **ikasgelara helarazteko moduaren eta eraginkortasunaren** gainean, eta **GGJaren sustapena ikasleen, irakasleen, familien eta oro har gizartearen artean zenbateraino gauzatzen den egiaztatzeko.**

**Hezkuntza Sailaren egituran** berriki egindako aldaketa errazten ari da, antza, **zuzendaritzen artean bat-etortze handiagoa** izatea, jarraibideak partekatzeari, politikak diseinatzeari, horien artean harreman estuago eta jarraituago bat edukitzeari eta ekimenak batera garatzeari dagokienez.

Adierazten denez, **Hezkuntza Saila osatzen duten erakunde eta maila operatiboan** (zerbitzu zentralak, lurralde-delegazioak, Berritzeguneak, Ingurugelak, ikastetxeak) **arteko koordinazioa hobetu egin daiteke.** Erreferentziatzko **printzipio eta balioei dagokienez bat datoz neurri handi batean**, baina **dinamika operatiboetan alde bakarretik aritzeko joera nagusitzen da nolabait**, erakunde bakoitzak egindakoari buruzko komunikazioa eta ezagutza urria izanik eta irizpide eta prozedurak bateratu gabe. Aditzera ematen da erakunde bakoitzak antolatzeke eta kudeatzeko modu propio bat duela, eta elkarren arteko konexioa hobe litekeela.

**Koherentziaren, Koordinazioaren eta Osagarritasunaren** araberako sailkapenaren arabera, Hezkuntza Sailaren barne-koordinazioa, oro har, **koordinazioaren eta osagarritasunaren arteko** bidegurutzean dagoela dirudi. Zantzu batzuen arabera, lehena indartzearen alde aurrera egiteko joera argia nabari da, gero eta barne-koherentzia handiago bat lortzeko bidean balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren ildotik, GGJaren sustapena eta defentsa ardatz gisa hartuta.

**Plan bakoitzaren zabalkundeari** dagokionez egiaztatzen da ia plan guztiek **koordinazio-mekanismoak** dituztela, eta, horien haritik, talde eragileak edo batzordeak sortzen direla.

**Planak ikasgelara helarazteko behar den koordinazio-mailari** dagokionez azaltzen da batzuek horretarako aukera gehiago dauzkatela beste batzuek baino. Esaterako, aditzera ematen da **Bizikasi** eta **Hezkidetza Plana** ikasgelara oso modu argian iristen direla.

*Hezkuntza Saitetik emandako ebidentzia-adibidea: aditzera ematen da “Berritzeguneen sarearekiko eta ikuskaritzarekiko koordinazioa Bizikasi ekimenaren marka bat dela, eta ikastetxeetako jardunean gauzatzen dela.”*

Eta gauza bera gertatzen da **Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planarekin, Elkarrekin bonuekin, Adi Adian** proiektuarekin eta **Berdinduren** zerbitzuarekin. Aldiz, **Eskola inklusiborako plana eta Ikasle etorkinentzako plana** bereziki estrategikoak direla uste da, ikasgelara iristen diren arren, aurrekoak baino maila apalago batean iristen direlako.

*Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzatik emandako ebidentzia-adibidea: adierazten da, 2019-2022 aldirako eskola inklusibo bat garatzeko Esparru Planaren zabalkunderako barne-koordinazioari dagokionez, "oraindik lan asko egin behar dugula, eskola inklusiboaren erreferente bat garen arren, oraindik arazo bat dugulako, izan ere, eskola inklusiboa lantzeko beste inork baino baliabide gehiago izanagatik, batera eta lankidetzan jarduteko erronkari egin behar diogu aurre (tutore eta adituen artean), baliabide horietatik guztietatik ahalik eta errendimendurik onena ateratzeko.”*

Kasu guztietan, **Lakuako funtzionarioentzako** (zerbitzuburuak) **eta irakasleentzako** prestakuntza txertatu da planetan. Aintzat hartzen da zerbitzuburuak kudeatzaile soil izatetik haratago joan behar dutela, eta ikastetxeetako eguneroko gertaeretan parte hartzeko gaitasuna ere izan behar dutela.

**Zerbitzu zentralen eta ikastetxeen arteko harremana arintzat eta etengabetzat** jotzen da. Aitortzen da plan eta proiektu asko daudela abian hezkuntza-mailan ezarritako helburu guztiak betetzeko, eta ikastetxe guztietan plan edo ekimenen bat dutela indarrean GGJaren sustapenari eta defentsari loturik. **Ikastetxeen artean aniztasun handia nabari da**, bakoitzak bere ikuspegia eta konplexutasuna dauka, baina irakasgai guztietan, **balioetan oinarritutako hezkuntza** ematen da zeharka, eta hori **faktore garrantzitsu bat da GGJarekin bat etortzearen xedeetarako**.

## 2.1. INTERES-TALDEEN PARTE-HARTZEA

**HELBURUA:** Interes-taldeak eraginkortasunez konprometitzea GJPKari babes zabala eman diezaioten eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan aplikatu dezaten.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	<b>GJPK maila</b>
<b>13. Haiekiko identifikazioa eta harremana</b>	<b>HANDIA</b>

14. Kontsulta egitea eta parte hartzea	ERTAINA
15. Haien lana bultzatzea	TXIKIA

**Adierazleak:**

13. Interes-taldeen eta haiekiko harreman-mekanismoen identifikazioa.	
Garapen-maila GJPKari dagokionez:	HANDIA

Gobernuko eragileengandik haratago, hezkuntza-politikarekin eta balioetan oinarritutako prestakuntzarekin lotutako interes-talde guztiek parte hartzea funtsezkoa da GJPKan ahalik eta aurrerapenik onena lortzeko. Lehen urratsa da mapaketa oso bat egitea da, aktore horiek zein diren zehazteko, eta, jarraian, diagnostiko bat egitea, Gobernuaren eta haien arteko harremana zertan den argitzeko. Adierazle horrek informazio osoa eta eguneratua eman beharko luke gai horien inguruan, azterketa sakon bat egiteko eta GGJ hezkuntza eremutik, GJPK indartu baten bitartez, bultzatuko duten hobekuntza-arloak identifikatzeko.

Zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzarentzat **ikasleak** dira hezkuntza-eremuko interes-talde nagusia, Sailak berak aitortzen duenez. GGJ sustatzearen ikuspegitik aintzat hartzen da gazteen zeregina erabakigarria dela haien garapenerako, eta hezkuntza giltzarria dela garapen hori positiboa izan dadin.

Eta jarraian, beste hainbat aktore agertzen dira, guztiak ere funtsezkoak hezkuntza-politikarako: **Gobernuko eta beste erakunde publiko batzuetako beste entitate batzuk, ikastetxeak, irakasleak, familiak eta elkarteak**. Horiekin guztiekin harreman erregular bat mantentzen da, intentsitatean aldatzen dena dagokion hezkuntza-ekimenaren espezifikotasunaren arabera.

Aurreko adierazleetan eta kapitulu honen b atalean aipatu ditugu jada **Eusko Jaurlaritzako hainbat Sail eta erakunde**, Hezkuntza Sailarekin batera parte hartzen dutenak edo haren zeregina osatzen dutenak, hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren konfigurazioan, zabalkundearen eta ebaluazioan.

Aitortzen da **irakasleek** funtsezko zeregina betetzen dutela hezkuntza-erreferente eta balio-transmisore gisa, eta horrenbestez, haien eskura laguntza eta prestakuntza jartzeko ekimen zabal eta etengabe bat hedatzen da, nagusiki, Berritzeguneen bitartez.

*Berritzequne Naqusitik emandako ebidentzia-adibidea: aditzera ematen da "Hezkidetzeta Planaren ekintzetako bat berdintasuneko beste eragile batzuekiko koordinazioa dela. Horretan aurrera egin da, mintegiei esker batik bat. Berdintasunaren alde diharduten kolektiboek eta kanpo-eragileek esku hartzen dute mintegietan, eta horiek ere ikasleekin lan egiten dute, eta beste ikuspegi bat ematen digute ikastetxeetara hurbiltzeko moduaren inguruan."*

**Ikastetxe publikoetako zuzendaritzen elkarte** erakunde berezizat jotzen da hezkuntza-

politikaren garapen operatiboan, eta horregatik laguntza jasotzen du bere eguneroko konplexutasuna kudeatzeko, horri esker GGJaren balioak hobeto zabaltzeko aukera duelarik gai praktikoagoengatik hurbil baitago.

**GURASOEN ELKARTEAK** eta bestelako elkarteak familiekin eta gizartearekin harremanetan jartzeko beharrezko bidetzat jotzen dira. Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde horien arteko topaketa informatiboak izaten dira oso neurri handi batean, nahiz eta, pixkanaka, baterako lanerako gune bihurtzeko ahaleginak egiten ari diren. Ikastetxeetatik familiei informazioa transmititu eta —Gobernuaren bitartekaritzaren bitartez— triangulazioaren arloan hobekuntza nabari da, eta arlo hori gehiago sistematizatzeko aukera ere badagoela aitortzen da.

**Bizikasi-erentzat, benetako parte-hartze handiago** bat sustatzea eta koordinatzea **eta interes-talde nagusiak integratzea** da hobetu beharreko elementu nagusia. Nahi horrek bultzaturik, familiekiko (Gurasoen Elkarteak) harremana indartu nahi da, ekimenak erakar ditzan, eta, ildo horretatik, komunitatearen garapenaren alde gehiago egin dezaten, ekintza integralago eta sistematikoago bat lortzeko helburuarekin. Horren aurrean, hurbilketa horretarako oztopo diren muga ikusezin batzuk detektatu dira. Bizikasi-k harreman estua dauka, halaber, elkarteekin (EDE eta Bakeola, besteak beste) eta udalekin (gizarte-ongizateko eta gizarte-zerbitzuetako arloak).

Jasangarritasunerako hezkuntzaren eremuan ere harremanak eratzen ari dira, eta dekretu berrian gauzatuko dira. Ingurugelak eta ekoetxeak aktore berezitzat jotzen dira eremu espezifiko horren garapenean, baita hezkuntza-sistema formalarekiko eta ez-formalarekiko konexioaren garapenean ere.

2030 Agendaren aplikazio progresiboaren eremuan, proiektu pilotu bat garatu da beste 17 eragilerekin batera, horietako batzuk hezkuntza-eremuak (Ingurugelak, EHU), prozesu hori erraztearren dokumentu hau garatuz: [Euskadi 2030 Gunea. Euskal erakundeentzako gida praktikoa. Nola ezarri 2030 Agenda eta garapen jasangarriari lagundu.](#) .

Prest Gara-n parte hartzen duten erakundeak ere, Eusko Jaurlaritzak mobilizatutako hezkuntza-sistemaren parte diren interes-taldeak dira, haien prestakuntza-ekintza gehienak enpresetara, unibertsitatera eta akademiara esternalizatzen direlako. Aditzera ematen denez, erakunde horietako batzuek dagoeneko partekatzen dituzte Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako GGJaren balioak, baina aitortzen da ildo horretan bat etortzeko ahalegin handiago bat egin beharko litzatekeela, eta horretarako, alderdi hori kontuan har litekeela jasotzen diren eskaintzen hautaketan eta baremazioan.

14. Interes-taldeei kontsultatzea eta parte hartzea planen elaborazioan, parte-hartze horren formalizazioa eta horren gaineko balorazioa.



**Garapen-maila GJPKari dagokionez:****ERTAINA**

Interes-taldeek GJPKaren aurrerabidean betetzen duten zereginaren alderdi zehatz bat honako hau da: balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremutik GGJ bultzatzeko baliatu nahi den instrumentazio guztiaren garapenean sartzea. Adierazle horrek informazio baliagarri bat emango du interes-talde nagusientzat errazten den parte-hartzeko maila bereizteko, baita ekarpen horrek GGJ sustatzeko dakarren balioa aztertze ere.

Interes-taldee bidea errazten zaie eta sustatu egiten zaie Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko konfigurazioan parte har dezaten, baina **ez da** plan guzti-guztietan **sistematikoki egiten**, ezta ahalik eta integrazio-maila handienarekin ere. Jarraian, ekintza horietako batzuk partekatzen dira lagin baten moduan, emandako balorazioa oinarritzeko.

Batzuetan, interes-talde nagusiei eskatzen zaie **dekretu jakin batzuen arauak garatzeko** ekarpenak egin ditzaten, **jasangarritasunerako hezkuntzari** dagokion dekretuaren kasuan adibidez. **Kontsulta irekietan, proiekturen baten diseinuan, eta estrategia batzuen elaborazioan** parte hartzeko aukera ere eskaintzen zaie batzuetan, ijito herriaren estrategia berrian adibidez, non haren kideak diren protagonista nagusiak.

**Bigarren hezkidetzaren planaren** garapenean, plana interes-talde batzuekin batera kontrastatu zen, eta haien ekarpenak baloratu ziren. Nolanahi ere, onartzen da plan hau ikastetxeetan oso zentratuta dagoela, eta familiak neurri handiagoan tartean sartzeko ahaleginak egin beharko liratekeela, familiak hezkuntza-komunitatearen funtsezko zati direlako, eta haien parte-hartzea sustatu nahi delako. Aitortzen da familiek errefortzu bat suposatzen dutela, lortu nahi diren helburuak lortzeko bidean eta sozializazio-zereginetan.

Hezkuntza-ekimenetako askotan, **gogobetetze-inkestak** egiten dira interes-taldeen eskutik feedback pixka bat lortzeko. Informazio hori osatzen da jardun batzuen garapenean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako instantzietako langileen balorazioekin, adibidez, Ingurugeletako taldeetako eta Ikastetxeetako langileen balorazioekin (esaterako, 2030 Agendaren garapenean parte hartzen dutenekin).

Baloratzen da, halaber, **unibertsitateek**, deialdien bitartez, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremurako definitzen duen lan-ildoarekin bat datozen ikerketetan parte hartzea.

Aitortzen da hobekuntza-arlo bat izango litzatekeela **eragile horiekiko guztiekiko harremana hobeto antolatzea**, haien ekarpenak jasotzeko batetik, eta formulatzen dituzten informazio- eta material-eskaerei behar bezala erantzuteko bestetik.

## 15. Interes-taldeen lana bultzatzea, haien ekimenak komunikatzea eta horren inguruko balorazioa.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**TXIKIA**

Aurreko adierazleen bitartez aztertutakoa osatzeko, interesgarria da jakitea Gobernuak interes-talde nagusien garapena eta ahalduak eta haien ekimenak zenbateraino babesten, bultzatzen eta errazten dituen, haien sendotasuna balio erabakigarri bat delako ekarpen esanguratsua formulatzeari dagokionez. Horrenbestez, adierazle hau zentratzen da Gobernuak interes-taldeein ematen dien laguntza horren gaineko ebidentziak biltzean, eta laguntza horren eraginkortasuna aztertzean.

Eusko Jaurlaritzaren **hezkuntza-sistematik kanpoko interes-taldeek** jasotzen duten laguntza-maila nahiko urria da. **Dirulaguntzak** dira gehien nabarmentzen den tresna, baita hezkuntza bereziko **itunpeko ikastetxeen** existentzia ere.

**Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak** abiarazitako hezkuntza-ekimenen kasuan, inplementazioa elkarrean bitartez egiten da, eta Elkarrekin Bonuak horiek indartzeko tresnak dira. Dirulaguntza-deialdiak ere irekitzen dira, horietako asko sentsibilizazio- eta hezkuntza-xedeetarako.

### 3. blokea. INPAKTUA ETA ERABAKIAK HARTZEA

#### 3.1. INPAKTUAK

**HELBURUA:** Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren politikaren ondorioak aztertzea eta ebaluatzea, erabakiak hartzea oinarritzeko, GGJan dituen ondorio positiboak areagotzeko eta talde kalteberengandak eta beste herrialde batzuen —garapen-herrialdeen bereziki— garapen-perspektibetan eragin ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
16. Emaitzen, betetzearen eta inpaktuaren ebaluazioak	ERTAINA
17. Beste Sail batzuen feedback-a	TXIKIA
18. Hausnarketa eta hobekuntza koordinazioan eta	TXIKIA

Adierazleak:

16. Emaizten, betetzearen eta inpaktuaren ebaluazioak, zenbatean behin egiten diren, informazioa hainbat interes-talderekin kontrastatu eta partekatzea. Ebaluazio horietatik abiatuta hartzen diren erabaki mota edo aurrerapen nagusien identifikazioa.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**ERTAINA**

Aurkeztutako adierazleetan azaldutako eta aztertutako guztiak benetako garrantzia izango du, baldin eta egiaztatzen bada, hezkuntza-politikaren bitartez GGJ sustatzean sortutako inpaktua eta emaitzak, lortu nahi zirenak direla. Horrenbestez, horri buruzko datuak bilduko dituen adierazle bat behar da, hobetzeko erabakiak hartzeko egokitzat jotzen den aldizkakotasun-, xehetasun- eta bereizte-maila izango duena. Adierazle horrek funtsezko zeregin bat betetzen du GJPKaren aurrerapen-maila eta GGJaren sustapenean duen eraginkortasuna kontrastatzeko, baita ahalegin horretan etengabeko hobekuntzak sartzeko bidea emango duten jarraibideak ahalbidetzeko ere.

Ebaluazioa egiten da bai **fase diagnostikoetan**, bai plan, estrategia, programa eta proiektu guztietan **lortutako emaitzak** neurtu, aztertu eta baloratzeko garaian. Jardun horiei guztiei esker lortutako **inpaktua ebaluatzearen** eremuan ezer gutxi garatu da orain arte.

Adierazle hori **GJPKaren printzipioen** arabera aztertzen badugu, lehen adierazle blokean atzemandako araua errepikatzen da: "**orain eta hemen**" arloa bereziki azpimarratzen da, eta **horri buruzko informazio dezente dago**. Hezkuntza-ekimenak "**beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin**" duten loturaren ikuspegitik ebaluatzeko **interesa areagotzen** ari da. Aldiz, "**beste gizarte batzuekiko, beste toki batzuekiko**" **interakzioaren** ikuspegitik balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren ondorioak eta integrazioa kontuan hartzen duten **oso erreferentzia gutxi ageri dira**.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak garatutako balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren barruko ebaluazio-dinamikaren garapen-mailaren ebidentzia batzuk azaltzen dira.

**LOMLOE** legearen ondorioz, curriculumak aldatzen ari da, eta horretarako, aurreko curriculumaren ebaluazio batetik abiatzen da. Konpetentzien arabera curriculum bat izango dela berresten da, eta transbertsalek egun duten garrantziari eutsiko diotela. Nolanahi ere, aitortzen da ez dela ebaluatu konpetentziak behar adina landu ote diren, ezta ikuspegi horretatik eratorri diren emaitzak ere.

**Planifikazio**-mailan, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-eremuko plan guztiak ebaluatzen direla egiaztatzen da. Hala eta guztiz ere, hobetzeko arlo argi bat atzeman da, izan ere, GGJ eta GJHak sustatzearekin batera lotzeko ikuspegi askoz ere integralago bat ez da oraindik garatu, ebaluazioak oso modu partzelatuan garatzen direlako.

Besteak beste hezkuntza-ikuskaritzaren bitartez **ikastetxeen** eskutik biltzen den informazioari dagokionez, zuzendari taldearen eskutik jasotzen da normalean, eta horrek nolabaiteko ziurgabetasuna dakar, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-politika ikastetxe horietan eragiten ari den inpaktuaren gaineko egia osoa jakiteari dagokionez. Hortaz, adierazten da **hezkuntza-ikuskaritzak** akonpainamendu- eta laguntza-zeregin bat betetzen duela batez ere, prestakuntza-ebaluazioa bultzatuz ikuspegi positibo eta orientatzaile batetik.

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-politikaren berezko eginkizunetako bat da bi urtean behin **ebaluazio diagnostiko** bat egitea, eta ebaluazio horren esparruan **konpetentziak baloratzen dira, besteak beste zibikoa**, konpetentzia zientifikoaren maila berean. Ikastetxe bakoitzean landutako **konpetentziak** aztertzen dira, baina ekimenak eta planak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuan planteatzen diren erronken gainean eragiten ari diren **inpaktua** neurtu gabe. Salbuespen gisa, ISEI-IVEIk **sexu-jazarpenaren gaineko ebaluazio** bat egiten duela aipatzen da.

Azken batean, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko ebaluazioak **jardueretan** jartzen du arreta, eta **antolamendu-dimentsioarekin** zerikusia duen horretan. **Inpaktuak ez dira nabarmentzen**, nahiz eta adierazten den interesgarria litzatekeela, egiten dena balioan jartzeko lagungarri izango litzatekeelako. Horretarako instrumentazio egokirik ez dagoela argudiatzen da.

Ildo horretan aipatzen da datu-bilketa zaila dela, adierazle batzuk neurtzea ez dela batere erraza, eta beste batzuek garrantzizko informaziorik ez dakartela (parte-hartzaile kopurua, etab.). Ondorioztatzen da diseinu-mailan hobe daitekeen zerbait dela, eta batzuetan datu asko eskatzen direla, hirugarrenak nabarmen inplikaturik, eta gero gainera datu horiek ezer gutxi erabiltzen direla. Hala eta guztiz ere, aitortzen da deialdi guztietan eranskin bat eskuragarri dagoela, neurriak izan duen inpaktua baloratzeko informazio baliagarria biltzeko aukera emango lukeena. Ezbairik gabe, hobetu beharreko arlo bat da.

2030 Agendaren lehentasunen Euskal Programak puntu batean islatzen du **2030 Agendak herritarrei eragiten dien inpaktua** neurtzeko premia.

*Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak emandako ebidentzia-adibide bat: "2030 Agendaren lehentasunen euskal programa. 2021-2024 jardun-plana" (Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza, 2021) dokumentuan adierazten da "jarraipena emango zaiola, halaber, hartutako konpromisoak betetzeari buruzko urteko txostenen prozedurari. 2030 Agendari dagokionez politika publiko sektorialen garapena baloratzeaz gain, ezarritako lehentasunak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko da, baita Eusko Jaurlaritzaren ekintzak zenbateraino betetzen diren ere, Garapen Jasangarrirako Helburuei loturik."*

17. Hezkuntza-plan eta hezkuntza-estrategietan integratutako GGJaren printzipio eta balioen gainean beste Sail batzuen eskutik jasotzen den feedback mota, eta baterako lan koordinatuago bat egiteko aukera sustatzeko duen balioa.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**TXIKIA**

GJPKaren bitartez lortutako emaitza eta inpaktuen azterketak eskatzen du balioetan

oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren garapenean sartutako Saisetarik jasotako berrelikaduraren berri izatea eta berrelikadura hori aztertzea, GGJaren sustapenaren ikuspegitik. Adierazle horrek informazio zehatza eta osoa eman behar du gai horren gainean.

Eusko Jaurlaritzako Sail eta instantzien artean hezkuntza-eremutik GGJ sustatu eta defendatzearen gainean partekatutako berrelikadurari dagokionez egiaztatzen da ildo horretan doazen **jardunak urriak** direla, eta sortzen direnak, gehienetan, **informazio-truke soil** batera mugatzen direla. Jarraian, errealitate hori zehatzago azaltzen da.

**Hezkuntza Saisetarik gidatutako planei** dagokienez, Hezkuntza Saisetarik adierazten da Gobernuko beste **Sail batzuetatik feedback gutxi** jasotzen dutela, eta aitortzen da onena **baterako kontraste bat** egitea litzatekeela, planifikatutakoa eta egindakoa erkatuz, eta garatzeke geratu denaren atzean dauden arazoak eta egindakoa hobetzeko arloak aztertuz. Dinamika horrek oso salbuespen gutxi dauka. Esaterako, egiaztatu da eLankidetzak ikastetxe publikoen sarean parte hartu duela, eta bertara, herritartasun globalaren eta elkartasunaren begirada dakarrela.

**Beste Sail batzuetatik gidatutako planen** ebaluazioetan, aldiz, Hezkuntza Sailak parte hartzen duen atalei buruzko **informazioa eta datuak eskatzera** mugatzen direla adierazten da.

**Gobernutik haratago** doazen instantzietatik (familiak, elkarteak, Arartekoa, etab.), nagusiki **bete gabeko premiak** partekatzen dira Eusko Jaurlaritzarekin hezkuntza-eremuari dagokionez, baita interes-taldeek hezkuntza-plan eta hezkuntza-politikei egindako ekarpenak ere, 14. adierazlean jaso direnak.

Adierazle honetan, eta jasotako ebidentziekin bat etorritik, GJPKaren hiru printzipioak ez dira batera garatu.

18. Ebaluazio horietatik abiatuta, hausnarketa egitea, plan eta estrategia horiek Sailen artean modu koherenteago eta koordinatuago batean kudeatzearen haritik datozen onura eta kostuei buruz, eta ikuspegi hori zabaltzeak suposatzen dituen ahaleginei buruz.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

**TXIKIA**

GJPKaren ebaluazio-dinamikei buruzko ezagutza eta azterketa osatzeko, badago beste adierazle bat, hezkuntza-eremutik GGJ bultzatzeari dagokionez ekintza koordinatu eta koherenteak suposatzen duen ekarpen bereziari buruzko ebaluazioetatik lortutako ondorioen gaineko balantzean zentratzen dena.

17. adierazlean aipatu berri dugunarekin bat etorritik, GGJaren balio, printzipio eta helburuen arabera balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren arloko ekimenak modu koordinatuago eta koherenteagoan garatzeko azterketa, hausnarketa eta hobekuntzak egitean ez da ia aurrerapenik egin, **eta lan-dinamikak Sail artean zatikatuta** jarraitzen du.

16. adierazlean jasota geratu denez, plan, estrategia eta programetako **ebaluazioen emaitzak partekatze bilerak** egiten dira. Eta, planifikazioak berrorientatzeko baliagarritzat jotzen badira ere, garatzeko dauden eta hurrengo planetan heldu behar zaizkien elementuen berri emanez, oraingoz, **baterako sailarteko lan-dinamika baterako biderik ematen ez dutela**

aitortzen da.

Argudiatzen da, modu sistematikoago batean diharduten batzorde batzuetan izan ezik, harremana urria edo eskasa dela. Argi eta garbi hobetzekoa den errealitate horren aurrean, Hezkuntza Sailak argudiatzen du konponbideak bilatu behar direla **koherentziaren** aurrerabidea eta horrek berekin dakarren **dedikazioaren eraginkortasuna** orekatzeko, baterako funtzionamendu hori **jasangarria** izan dadin. Urrats hori behar-beharrezkotzat jotzen bada ere, argudiatzen da batera landu beharreko lehentasunak hautatu beharko lirakeela, eta erabaki hori Gobernuko instantzia gorenetan hartu beharko luketela, GJPKaren aldeko esparru estrategiko eta operatibo argi eta seguru bat ahalbidetzearen. Hezkuntza-eremuko plan, estrategia, programa edo ekimen bakoitza, Hezkuntza Saitetik edo hura gidatzen duen Eusko Jaurlaritzako instantzietatik diseinatu, zabaldu, gidatu eta ebaluatu ondoren, Gobernu osoaren mailako **askoz ere gobernantza eta erabaki-hartze integralago** batekin osatuko litzateke, eta, horrenbestez, GGJaren printzipio, balio eta helburuekin bat etorritik.

17. adierazlean bezala, GJPKaren hiru printzipioak ez dira batere garatu.

### 3.2. JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA

**HELBURUA:** Jarraipen-, informazio- eta ebaluazio-sistemak indartzea, froga kualitatibo eta kuantitatiboak biltzeko balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren inpaktuari buruz; eta eremu horri lotutako GJPKaren arloan izandako aurrerapausoei buruz informazioa ematea.

**Balorazioa:** atal honetan lortutako ebidentzietatik honako aurrerapen-maila hauek ondorioztatzen dira hezkuntza-eremuko GJPKari dagokionez:

	GJPK maila
19. Adierazleen baliagarritasuna	ERTAINA
20. Ebaluazio-txostenen komunikazioa	TXIKIA
21. Kanpo-auditoriak	TXIKIA

**Adierazleak:**

## 19. Planetan agertzen diren adierazleen erabilgarritasuna.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

ERTAINA

GJPKaren aurrerabidean ebaluazio-dinamikak daukan garrantzia ikusirik, egokitzat jotzen da jarduera horren beraren alderdi bereziak aztertzeko adierazleak edukitzea. Horietako bat da hezkuntza-eremuko ekimen, plan eta estrategiei lotutako adierazle-sistemaren baliagarritasuna ezagutzea eta azterzea, GGJaren sustapenari dagokionez jardun horiek hobetzeko egiten duen ekarpenaren ikuspegitik.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuan abian jarritako plan, estrategia eta programa guztiek adierazpen sorta bat daukate beren jarraipenari eta ebaluazioari loturik. Ekimen bakoitzaren hobekuntza gidatzeko duten balioa behar bezala kontrastatuta eta dokumentatuta dago. Alabaina, egiaztatzen da **GGJari zuzenean lotutako adierazleak inoiz gutxitan txertatzen direla**, eta kontuan hartu behar da adierazle horiek baliagarri direla ekimenak beren printzipio, balio eta helburuen arabera berrorientatzeko. Jarraian, ildo horretan nabarmendu diren erreferentzia nagusiak azaltzen dira.

**Bizikasi** ekimena, pilotaje-fasean dagoen tresna bat garatzen ari da, **ikastetxeetan bizikidetzaren positiboa nola eraikitzen ari den** neurtzeko, 12 irizpiderekin eta azpiko irizpide ugariekin. Adierazleez eta ebidentzia-iturriez osatutako tresna hori erabiltzeko ikuspegiak, dimentsio prebentibo zein erreaktibo argia dauka.

*Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak emandako ebidentzia-adibide bat: "2030 Agendaren lehentasunen euskal programa. 2021-2024 jardun-plana" (Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza, 2021) dokumentuan adierazten da "Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak, Eustatekin batera, 2030 Agendaren betetzeen jarraipenerako adierazle-sistema bat diseinatu eta landuko duela, NBEren adierazleetan eta hainbat lurralde-mailatan erabakiko diren beste adierazle garrantzitsu batzuetan oinarrituta."*

GJPKaren hiru printzipioak oso antzera hartu dira aintzat, baina oraindik oso maila ahul eta eskasean, eta beraz, oraindik ezinezkoa da, horien gainean, Eusko Jaurlaritzak garatutako balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren ikuspegi horren inspirazio-eta aurrerapen-iturria ezartzea.

## 20. Legebiltzarrari eta iritzi publikoari ebaluazio-txostenak komunikatzea.

Garapen-maila GJPKari dagokionez:

TXIKIA

GGJaren printzipio eta balioen arabera, Gobernuaren zereginaren berezko alderdi bat da gardentasuna eta komunikazio proaktiboa zabaltzea hezkuntza-eremuan garatutako ebaluazioetatik ateratako ondorioetan, eta ondorio horiek baliagarriak izan daitezten GGJaren sustapenean zein GJPKan aurrera egiteko. Gaia eta edukiaren bilakaera zertan diren diagnostikatzean zentratuko da adierazle hau.

Adierazten da komunikazio-ekintzak garatzen direla Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eremuaren barruan aurrera eramandako ebaluazioen inguruan. Hala ere, politika horren eta haren ekimenen arduradunek aitortzen dute **jardun horiek eskasak eta noizbehinkakoak** direla, eta eremu hori argi eta garbi hobetzeko arloa dela ematen dute aditzera.

Hezkuntza Saileko zuzendaritzak aitortzen du **hobetzeko tarte zabala** dagoela **egiten ari den komunikazioari** dagokionez, eta ahalegin handi bat egin beharko litzatekeela transmititzeko gai izateko eta barneko zein kanpoko ondorioen ardura hartzeko. Apustu egiten da, pixkana-pixkana, hezkuntza-planetan garatzen dena **partekatze joera handiago bat izango duen kultura** bat sortzearen alde, gizartean eta irakasleen artean eragina izango duen kultura bat. Esaterako, argudiatzen da barne-mailan, Hezkuntza Sailaren barnean zehazkiago, eremu horretan zer garatzen den ez dakitela, nahiz eta eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana eta bigarren hezkidetza-plana aurkeztu ziren, bakoitza bere egunean. Pertsona bakoitza sartua dagoenean soilik zentratzeko inertzia bat atzeman da, eremu mugatukoa izanagatik eta haratago begiratu gabe.

Kanpo-komunikazioari dagokionez, **komunikabideen** eta **gizarte-eragileen** aurrean unean-unean egindako aurkezpenen berri ematen da. Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzatik sustatutakoak dira aktore horiek gehien eskatzen dituzten ekimenak. **Webgunean** ere, Gobernutik hezkuntza-eremuan garatutako ia ekintza guztiak jasotzen dira. Eta **Legebiltzarrean**, berriz, aurkezpenak egiten dira Hezkuntza Batzordearen eskaerari jarraikiz, esaterako, Bizikidetza eta Hezkidetza proiektuen ebaluazioa aurkeztu da, eta ikasle etorkinentzako arretaz hitz egiteko bertaratu dira.

GJPKaren hiru printzipioen garapenari dagokionez, "orain eta hemen" printzipioarekin lotutakoak beste biek baino nabarmen presentzia handiagoa duela esan daiteke, nahiz eta oraindik oso maila hasiberrian egon.

## 21. Kanpo-auditoria independenteen garapena.

**Garapen-maila GJPKari dagokionez:**

**TXIKIA**

Ebaluazio-ekintza orok sendotasun eta sinesgarritasun handiagoa hartzen du kanpo-egiaztapen independente eta kualifikatu bat badu. Adierazle honek informazioa bilduko du garatutako ebaluazio-prozesuen gaineko kanpo-auditorien garapenaren eta aprobetxamenduaren inguruan.



**Hezkuntza-ikuskaritza** soilik arduratzen da kanpo-auditoriak egiteaz, **ISO kalitate-eredua** hartu duelako. Eta oso gutxi dira **kanpo-eragileen** eskutik garatzen diren **ebaluazioak**, neurri handi batean, barne-mailan eskuragarri dauden baliabideek hartzen dutelako zeregin horren ardura. Esaterako, hezkidetza-planean, EHUK Nahiko ekimena ebaluatu zuen, kontrol-talde baten bidezko azterketa baten bitartez.

Nolanahi ere, Hezkuntza Saileko zuzendaritzak nahiko luke **kalitateko kudeaketa-eredu bat hartzeko joera** hezkuntza-ikuskaritzatik haratago **zabaltzea**, antolamendu- eta prozedura-arloetako dinamika eta egiturak hobetzeko eta sendotzeko helburuarekin.

16. eta 17. adierazleetan bezala, GJPKaren hiru printzipioak ez dira batere garatu adierazle honetan.

### c.3 Kontrol-koadroa blokearen arabera

Atal honetan, hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzaren GJPKaren maila ebaluatzeko tresna osatzen duten **hiru blokeetako bakoitzaren azterketa orokor** bat aurkezten da. Irakurketa orokorrako horrek errazago egiten du ondorio eta gomendio estrategikoago eta orientagarriagoak lortzea GGJaren sustapenean eta defentsan hobekuntzak txertatzeko, Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren bitartez.

#### 1. blokea. IKUSPEGIA ETA LIDERGOA

Bloke honen adierazleetan egindako balorazioen arabera, Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntzak eta hezkuntza-politikak **dimentsio** honetan egin du **aurrerapen handiena, GJPKari dagokionez**. Adierazleen erdiak baino gehiagok, eskalaren maila altu batean kokatzeko behar adinako ebidentziak ematen dituzte, kopuruan eta kalitatean. Eta adierazle bat ere ez dago eskala horren mailarik beherenean.

Horrenbestez esan dezakegu Eusko Jaurlaritzak **etorkizun handiko erreferentzia-esparru** bat duela posizionamendu politikoari dagokionez, eta **GGJaren sustapenean eta defentsan aurrera egitearen aldeko apustu argia** egiten ari dela, GJPKarekiko gero eta bat-etortze handiagoa erakusten duen artikulazio politiko-administratibo baten bitartez.

Planteamendu horien sendotasunari, argitasunari eta irmotasunari dagokienez, hobetzeko tarte dagoela atzematen da, Eusko Jaurlaritzaren baitan gertatu beharko litzatekeen **egiturazko eta sakoneko kultura-aldaketa operatibo** baten funtsezko zutabeak izateko bidean, aldaketa horren ildotik, GJPK bermatzeko, GGJ sustatu eta defendatzeko balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren gotorleku baten antzera. Azkenaldiko aurrerapenek aditzera ematen dute hautatutako bidea bat eta bakarra dela, eta bide horretan azken muturreraino joatea denbora-kontu bat baino ez dela.

	GJPK maila
<b>1.1 KONPROMISO POLITIKOA</b>	HANDIA
<b>1. Printzipioak, balioak, helburuak eta ekintzak</b>	HANDIA
<b>2. Esparru-estrategiak</b>	HANDIA
<b>3. Beste Sail batzuekin partekatzea</b>	ERTAINA
<b>1.2 EPE LUZERAKO IKUSPEGIA</b>	HANDIA
<b>4. Arrakalak</b>	HANDIA
<b>5. Tresnak</b>	ERTAINA
<b>6. Kanpo-pertsonak</b>	HANDIA
<b>1.3 POLITIKEN INTEGRAZIOA</b>	ERTAINA
<b>7. Ikasketa-planetan</b>	ERTAINA
<b>8. Deialdien baremazioa</b>	ERTAINA
<b>9. Aurrekontuko eta beste baliabide batzuetako</b>	HANDIA

#### 2. blokea. EKINTZA KOORDINATUA

GJPK zabaltzeko abiapuntu eta eusteko oinarri izan behar duen **egiturazko dimentsio operatiboa aurreko urrats batean** dago, hezkuntza-eremutik GGJ sustatu eta defendatzearen aldeko posizionamendu politiko eta estrategikoan egindako aurrerapenaren aldean. Ezbairik gabe, lehen dimentsioaren hobekuntza-tartea giltzarri da GJPKaren bigarren zutabe horretan behar bezala aurrera egin ahal izateko, eta **sailen barneko eta arteko funtzionamendu orekatuago, kohesionatuago eta integratuago** bat sendotuko duten aldaketak lagungarri izango dira, halaber, GGJaren printzipio, balio eta helburuekin bat datozen plan, politika, programa eta proiektu partekatuak sortzeko. Hortaz, bi dimentsioek indarra ematen diote elkarri, eta batera aurrera egitea komeniko litzateke.

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuari dagokionez egun indarrean dauden **egituraketa eta dinamika operatibo eta erlazionalek** ez dute errazten **eremu horretan GJPK zabaltzea eta garatzea**, orain hartu eta zabaltzea nahi denarekin zerikusirik ez duen paradigma politiko-administratibo batetik pentsatu zirelako. Behar-beharrezkoa da **baterako lanerako ikuspegi eta espazio erlazional berriak irekitzea**, balioetan oinarritutako prestakuntzatik eta hezkuntza-politikatik GGJ sustatu eta defendatzeko ekimenak bikaintasuna lor dezan.

Eusko Jaurlaritzaren barnean hobetu beharreko arlo horiekin batera, hezkuntza-eremuko **interes-talde nagusien zeregina pixkanaka integratu eta indartu** behar da, balioetan oinarritutako prestakuntzari eta hezkuntzari lotutako plan, politika, programa eta proiektuak aberasteko, legitimatzeko eta eraginkortasun handiagoz hornitzeko bidean, gizartean GGJaren printzipio, balio eta helburuak zabaltzeko eta sendotzeko ahaleaginean:

	GJPK maila
<b>2.1. POLITIKEN KOORDINAZIO HORIZONTALA (Sailen artean)</b>	ERTAINA
<b>10. Sailen arteko koordinaziorako egituren funtzionamendua</b>	ERTAINA
<b>11. Egoera gatazkatsuen kudeaketa</b>	ERTAINA
<b>2.2. POLITIKEN BARNE-KOORDINAZIOA (Hezkuntza Sailaren barruan)</b>	ERTAINA
<b>12. Barne-koordinazioko mekanismoak</b>	ERTAINA
<b>2.3. INTERES-TALDEEN PARTE-HARTZEA</b>	ERTAINA
<b>13. Haiekiko identifikazioa eta harremana</b>	HANDIA
<b>14. Kontsulta egitea eta parte hartzea</b>	ERTAINA
<b>15. Haien lana bultzatzea</b>	TXIKIA

### 3. blokea. INPAKTUA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Eusko Jaurlaritzak ahalegin argiak egiten baditu ere berak bultzatutako hezkuntza-ekimen guztiak ebaluatzeko, **GGJaren eta GJPKaren aurrerabidean inpaktua egiaztatzean** arreta jartzen duen dimentsioa da **maila txikienean** dagoena, oraindik ezer gutxi garatu delako.

Ikuspegia aldatu beharra atzematen da, hain zuzen ere, **jardueran eta emaitzetan oinarritutako ebaluazio-ikuspegi** batetik hezkuntza-ekimenen ondoriozko **inpakturaino** barne hartuko duen beste ikuspegi batera **bilakatzeko** beharra.

Gainera, aurreko bi blokeetan aipatutako **egiturazko zatikatzeak** eragiten du, halaber, azterketa eta hausnarketen eta hobekuntza-formulazioen baterako garapen sinergiko baten ahalik eta aprobetxamendurik onenean, nola balioetan oinarritutako prestakuntzan eta hezkuntza-politikan, hala GJPKaren aurrerabidean.

	GJPK maila
<b>3.1. INPAKTUAK</b>	TXIKIA
<b>16. Emaitzen, betetzearen eta inpaktuaren ebaluazioak</b>	ERTAINA
<b>17. Beste Sail batzuen feedback-a</b>	TXIKIA
<b>18. Hausnarketa eta hobekuntza koordinazioan eta</b>	TXIKIA
<b>3.2. JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA</b>	TXIKIA
<b>19. Adierazleen baliagarritasuna</b>	ERTAINA
<b>20. Ebaluazio-txostenen komunikazioa</b>	TXIKIA
<b>21. Kanpo-auditoriak</b>	TXIKIA

#### **4. ONDORIOAK**

Kapitulu honetan azaltzen dira, zehaztasunez eta laburbilduta, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-eremuko GJPKari buruzko azterketaren **ondorio nagusiak**. Haien edukiak hurrengo urratsak gidatuko ditu, eta lortutakoa sendotzeko bidea erraztuko du, baita atzemandako hobekuntza-arloen benetako integrazioan eta zabalkundearen aurrera egiteko bidea erraztu ere.

Txostenaren aurkezpenean esparru arauemaile, estrategiko eta dokumental ugari aipatu dira, eta guztiek ere babesten dute Eusko Jaurlaritzak **garapenerako politiken koherentzia Gobernu-ekintzarako oinarritzko erreferentzia** gisa onartzearen alde egindako apustu argia. Bestetik, 1/2007 Legeak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari eskumena ematen dio **urteroko txosten bat egin dezan euskal administrazio publikoen jardunek koherentzia-printzipioa zenbateraino betetzen ote duten neurtzeko**. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren GJPKaren aurrerapen-mailaren gaineko azterketa eta azterlan espezifikoak egiteko beharra sortu da, oinarri horretatik abiatuta, GJPK maila gorenean zabaltzeko lagungarri izango diren ekintzak garatzearen.

Ikerketa honen eremua mugatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua hartu da aintzat, eta bertan adierazten da Eusko Jaurlaritzak GJPKan dauzkan lehentasunak zein diren: kanpo-ekintza batetik, eta balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politika bestetik. Bigarrena bereziki garrantzitsua da, hezkuntza-eremuan abian diren ekimen ugarien haritik **ikaskuntza-ahalmen** handia bildu delako, eta horrek GJPKan aurrera egiteko bide ematen du, **giza garapen jasangarri eta bidezko baten eredu bat inspiratzen duten printzipioak zabaltzeko** lagungarri. Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan bultzatutako ekimenen azterketa eta laburbiltze ordenatua baliagarri dira berez, eta gainera, horren haritik tresnak eta ikaskuntzak sortu beharko lirarteke, ekintza berriak garatzeko, eta Gobernuaren GJPKari lotutako arkitektura bat eraikitzeko.

Hortaz, txostenaren helburua zen **Hezkuntza-esparruari dagokionez Eusko Jaurlaritzan GJPKaren egoera zertan den jakitea**, eta, hortik abiatuta, **ikaskuntzak eta hobekuntza-elementuak** sortzea giza garapen jasangarriaren printzipioak bultzatuko dituzten politiken koherentzia-ekimenak martxan jartzeko.

Helburu hori bete ahal izateko, zenbait produktu garatu behar izan dira, lortu nahi den xede onerako baliagarri izateaz gainera, berezko balioa duten produktuak. Honako hauek dira:

- ✓ **Kontzeptuzko esparru** bat zehaztea, **Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziaren ulertzea, oinarritzea eta inplikazioa** erraztuko duena.
- ✓ **Hezkuntza-eremuaren barruan GJPKan aurrerapen nabariak dakartzaten ekimenen mapaketa oso eta ordenatu bat garatzea**, horietan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako instantzien berri emanez.

- ✓ Aztergai diren ekimenak garatuz Eusko Jaurlaritzak lortutako **koherentzia-maila aztertzeo tresna bat identifikatu, zehaztu eta balidatzea.**

Txostenaren helburu nagusiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eremuko GJPKan egindako aurrerapena neurtzeko tresnaren 21 adierazleetako balorazioak eta horien bertsio agregatua ikusi ondoren, azken hori hiru bloketan eta 8 ataletan sailkatuta, iritzi orokorra da **bidea egin dela**, baina oraindik ere **asko** dagoela **egiteko**.

1. blokeari (Ikuspegia eta lidergoa) dagokionez, nabarmenena da ebidentzia argiak eta nahikoak daudela Eusko Jaurlaritzak ikuspegi horren alde eta **GGJ sustatu eta defendatzeko konpromisoaren** alde egindako apustu irmoa berresten dutenak, hainbat dokumentutan esplizituki formulatu denez. Posizionamendu hori berresten da neurri batean, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremua bakarka aztertzen denean, nahiz eta oraindik **erreferentziako esparru espezifikoa** egitea eta onartzea falta den, hezkuntza-arloko proiektu, programa, estrategia eta plan guztiak printzipio, balio, helburu eta parametro operatibo berberen —GGJaren berezkoak, azken finean— inguruan lerrokatzeo eta integratzeko lagungarri izango dena. **2030 Agendaren lehentasunen euskal Programa, Heziberri 2020, 2019-2022 aldirako eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana, 2019-2023 aldirako II Hezkidetzeta-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, 2016-2020 aldirako Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan**, eta **Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia** dira prozesu hau abiarazteko erreferente egokienak. Nabarmenezkoa da, 2030 Agendaren esparruan, **4. GJHak** (Bidezko eta kalitatezko hezkuntza inklusibo bat bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak guztiontzat sustatzea) erreferente argi bat izan beharko lukeela, GJPKari dagokionez Eusko Jaurlaritzak balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuan planteatutako edozein aurrerapeni begira.

2. Blokean (Ekintza Koordinatua) barneratzean ohartzen gara hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzak koordinazio eta topaketarako egitura eta tresna ugari dauzkala (ikus 3. kapituluko b atala), horietako batzuk argi eta garbi kontsolidatuta daudenak eta beren eginkizuna bikain betetzen dutenak. Alabaina, aldi berean atzeman da heldu beharreko erronka nagusietako bat zein den: zaila da GJPKari dagokionez aurrera egitea, Eusko Jaurlaritzako **egitura eta dinamika operatiboak** beste paradigma mota baterako diseinatu direlako. Hezkuntza Sailaren barnean zein sailarteko mailan **koherentzian eta koordinazioan** atzeman diren **hobekuntza**-arloek eta gabeziek are garrantzi handiagoa eta bereziagoa hartzen dute, GJPKak eskatzen duen funtzionamendu orekatu, integratu eta partekatu baten asmoekin kontrastatzen direnean.

Dimentsio hori aztertzeo **Osagarritasunean, Koordinazioan eta Koherentzian** oinarritutako tresna aplikatu denean, honako ondorio hau aterata da: aztertutako eremuaren antolamenduko praktika eta diseinuaren zati handiena **Osagarritasunaren** kontzeptuarekin bat dator, ekosistema horren zati txikiago batek **Koordinazio**-kontzeptuaren arauak betetzen ditu (hezkidetzeta, eskola inklusiboa, ikasle etorkinak), eta **Koherentziaren** ebidentzia argi eta esanguratsu bat ere ez da aurkitu, zenbait ekimen piloturi eta abiarazte-fasean dauden planifikazio eta estrategia batzuei dagokienez izan ezik.

Azaldu berri ditugun bi planoetako egoerari (esparru politikoa eta estrategikoa, eta antolamendu-egitura eta -dinamika) **aldi berean ekin behar zaio**, txanpon beraren bi aldeak baitira: bata giltzarri da bestearentzat, eta alderantziz. Bateko aurrerapenek besteko aurrerapenak errazten dituzte, eta lorpen horiek baldintzatzen, aldi berean.

3. Blokeari dagokionez (Inpaktua eta erabakiak hartzea), argi dago **asko dagoela egiteko**. GJPKaren bitartez hezkuntza-eremuan GGJ sustatu eta defendatzeko trantsizioan etengabe txertatu beharreko **aldaketa eta hobekuntzen ebaluazioan, komunikazioan eta orientazioan**, garapen egoki baterako ezinbestekoak diren **antolamendu-dinamika, baliabide eta tresnen** falta nabari da. Balantze hori ez da harritzekoa, dimentsio horrek aurreko biak zehaztea eskatzen duelako itxura hartzeko, eta operazio-mailan efikaziaz eta eraginkortasunez zabaltzeko.

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak **2030 Agendarekin** bat egiteko erabaki irmoa hartu duela erreferentzia-esparru izan dadin, hezkuntza-eremuko GJPKak GJHetako 4.7 jomuga hartu beharko luke bere lehentasunezko adierazleen artean, eta hartan egiten diren aurrerapenen jarraipen erregularra egin: "2030erako, ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoen jabe direla bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarriak hartzeko hezkuntza, giza eskubideak, generoen arteko berdintasuna, bakean oinarritutako indarkeriarik gabeko kultura bat sustatzea, munduko herritartasuna, eta kultura-aniztasunaren eta kulturak garapen jasangarrirako egiten duen ekarpenaren balorazioa".

Aurreko bien funtzionamendu sinbiotikoarekin gertatzen den bezala, ekimenak edo proba pilotuak abiarazten badira honako hauek edukitzeko asmoarekin:

- tresnak eta lortzen ari den inpaktuaren emaitzak,
- batera hausnartzeko, aztertze eta hobetzeko erabakiak hartzeko prozesuak,
- lortutako emaitza eta inpaktuen komunikazio sistematizatuago eta proaktiboago bat, eta
- egiatzapen independente eta zorrotza hirugarrenen eskutik,

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-eremuko esparru politikoa eta estrategikoa eta antolamendu-dinamika eta antolamendu-egitura oinarri sendoagoekin konfiguratuko dira, GGJ sustatu eta defendatzearen alde egiteko eta GJPKaren printzipioei jarraikiz.

**GJPKaren printzipioen** arabera tresnaren lehen eta hirugarren blokeak aztertu direnean, erabateko ondorio bat atera da: "**orain eta hemen**" printzipioan fokalizazioa maioritarioa izan da erabat hirugarren blokean izan ezik, non hiru printzipioak batere garatu ez diren.

Hezkuntza-ekintza bakoitzak "**beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin**" dauzkan inplikazioetan arreta jartzeko joerak ibilbide garrantzitsua egin du, eta gero eta presentzia eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gainera, **2030eko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiak eta 2030 Agendaren lehentasunen euskal programak** erakusten dutenez, nahiz eta operazio-mailan aurrekoaren mailan oraindik zabaldu ez den, ekimen hauek berri-berriak direlako.

Azkenik, "**beste gizarte batzuekiko, beste tokiekiko**" eragin eta konpromisoekiko fokalizazioak ordezkari txikiegia dauka, argi eta garbi, nahiz eta 2030 Agendak eta Eusko Jaurlaritzako instantzia gutxi batzuek ikuspegi eta printzipio horiekin diharduten, **eLankidetzak** eta **Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak**, besteak beste, horrek etorkizunean garrantzi handiagoa izateko aukera irekitzen duelarik. GGJ sustatu eta defendatuko duen gizarteraldaketa baterako **herritartasun global** bat eraikitzea oso garrantzitsua denez, komeniko litzateke printzipio horrek, aurreko biekina batera, garrantzi eta presentzia handiagoa hartzea Eusko Jaurlaritzatik sustatutako balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren ekimen guztietan.

Tresna horretatik abiatuta atzemandako beste hobekuntza-arlo bat **hiru printzipioen baterako garapen eta aplikazio integrala eta holistikoa** da, kontzeptualizazio eta translazio operatibo zatikatu bati aurre egiten diona, non batzuk besteen kontura garatzen diren.

Eusko Jaurlaritzan GJPK aztertzeke lehen aldiz erabilitako **tresnaren balidazioari** dagokionez. ELGAK garatutako eta kontrastatutako tresnara (*Toolkit*) jotzea aukera egokia izan dela berretsi da, **egitura argia** duelako batetik, informazioa aztertzeke mesedegarri, eta **helduen dizkien arloak bete-betekoak eta egokiak** direlako bestetik. Adierazleen bitartez betetako arlo guztiak beharrezkoak eta nahikoak dira, GJPKaren aurrerapen-mailaren gainean diagnostiko egoki eta fidagarri bat edukitzeke.

Azkenean erabilitako tresna **itzuli** egin behar izan da, eta horrez gain, azpimarratzekoa da **aztertu beharreko eremu jakinerako** (Eusko Jaurlaritzaren balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politika) **formulazioak egokitu** beharrak ere bere garrantzia izan duela tresna horren egokitasunean, baita informazioa biltzeko erabilitako itemen sinplifikazioak ere. Jatorrizko bertsioak 29 galdera ditu; Talde Eragileak egindako ekarpenei esker aberastu zen 32 galdera izateraino; eta azkenik galdera horiek laburtu eta lehenetsi egin ziren, **21 adierazleko** panela lortzeko. Adierazle-taula hori erabili ondoren ulertzen da lortzen den estaldura egokia dela, eta erabili beharreko aldagai kopuruak ez luke kopuru hori gainditu beharko, itemetako bat beste batzuetan integratzeke aukera ere izanik, **tresna hori areago sinplifikatzearen**. 1.3, 2.1, 2.3 eta 3.1. atalekin egin liteke hori.

Azkenik esan, tresnaren bertsio hau GJPK **beste eremu batzuetan** aztertzeke erabiliko balitz, **ikerketan honetan jarraitutako prozesua erreplikatu** beharko litzatekeela, formulazioen eta adierazleei lotutako galdera kopuruak dagokion eremu zehatzaren errealitatea islatu beharko luketelako.



**1. ERANSKINA. GJPKari BURUZKO ERREFERENTZIA DOKUMENTALAK**

1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. *(H)abian 2030*, 2016.
2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. *Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana, 2018-2021*, 2018.
3. SIANES Antonio; ORTEGA CARPIO M<sup>a</sup> Luz; eta CORDÓN PEDREGOSA M<sup>a</sup> Rosa: "¿Puede la educación para el desarrollo promover una mayor coherencia de políticas para el desarrollo?", *Revista de Economía Mundial*, 2014, 37. zenbakia, 249.-278. or.
4. Coordinadora ONGD de España eta Red Española de Estudios del Desarrollo (REEDES). *ICPDS (2019), El Índice de Coherencia de Políticas para el Desarrollo Sostenible. El cambio inaplazable*.
5. Euskadiko GGKEen koordinakundea. *Giza garapen jasangarrirako politiken koherentzia. Euskadiko enpresak nazioartekotzeko politika azterketa*, 2017.
6. Euskadiko GGKEen koordinakundea. *Politiken eta Giza Garapen Iraunkorraren ikuspegiaren arteko koherentziaren azterketa. Proposamen metodologikoa*, 2018.
7. Euskadiko GGKEen koordinakundea, *Garapenerako politika publikoen koherentziarako esparru-dokumentua*, 2018.
8. Coordinadora de ONG para el desarrollo – España. *Un nuevo sistema de cooperación para transformar el mundo*, 2021.
9. European Commission. *EU report on Policy Coherence for Development*, 2019.
10. Futuro en Común. *La coherencia de políticas en el corazón de la transición a la sostenibilidad. Un sistema integral de coherencia de políticas para el desarrollo sostenible en la acción de Gobierno*, 2020.
11. Eusko Jaurlaritz. *Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak*, 2015.
12. Eusko Jaurlaritz. *Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua*, 2016.
13. CEJUDO, Guillermo M.; MICHEL Cynthia L. "Coherencia y políticas públicas: Metas, instrumentos y poblaciones objetivo", *Gestión y política pública: Mexiko*, 2016 urt./ekain., 25. lib., 1. zenbakia.
14. MARTÍNEZ, Ignacio. "Coherencia de políticas: una mirada a los Gobiernos descentralizados", *Otro mundo está en marcha. X Informe anual de la Plataforma 2015 y más*, 2013. 75.-85. or.
15. ALONSO, José Antonio (zuz.); AGUIRRE, Pablo; MADRUEÑO, Rogelio; eta MILLÁN, Natalia. *Coherencia de políticas para el desarrollo en cinco donantes del CAD: lecciones para el caso español*, Fundación Carolina, 2010.
16. ESPINOSA FAJARDO, Julia. "Un análisis feminista de la Coherencia de Políticas para el Desarrollo", *Revista Española de Ciencia Política*. 2014ko uztaila, 35. zenbakia, 113.-133. or.
17. CAMPOS SABORÍO, Natalia. "Política educativa hacia el siglo XXI. Un análisis de su misión", *Revista Educación*, 1997, 21 (1), 23.-28. or.
18. MILLÁN, Natalia. *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko politiken koherentziarako taldearekiko tailerra* [bideoa eta PPT-a], 2020ko urtarrila.
19. ELGA. *Policy Coherence: Vital for Global Development, OECD Observer Policy Brief*, 2003ko uztaila.

20. ELGA. *Kontseiluaren gomendioa, garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzkoa*, 2019
21. ELGA. *Policy Coherence for Sustainable Development 2019: Empowering People and Ensuring Inclusiveness and Equality*, 2019.
22. OMAL. *Coherencia de políticas*
23. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Informe de coherencia de políticas para el desarrollo*, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioa, 2012.

## **2. ERANSKINA. ERREFERENTZIA DOKUMENTALAK EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZA-EREMUAN ABIAN JARRITAKO EKIMENEN INGURUAN**

1. Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa. *Euskadi 2025ean zibersegurtasun-polo industrialerako Plan Estrategikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2021.
2. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. *Euskararen agenda estrategikoa 2017-2020*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. *Euskadiko erakundearteko ekintzaitetza-plana, EEP-2020*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
4. Hezkuntza Saila. Bizikasi ekimena, <https://bizikasi.euskadi.eus/eu/inicio>.
5. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. *Heziberri 2020, Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*, Eusko Jaurlaritza, 2014.
6. Hezkuntza Saila. *Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Plana, 2016-2020ko eskola-eredu inklusibo eta kulturartekoaren esparruan*, Eusko Jaurlaritza, 2016.
7. Hezkuntza Saila, Osasun Saila, Osakidetza. *Hezkuntza-Osasun Mentalaren elkarlanerako oinarri orokorra*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
8. Hezkuntza Saila. *II Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
9. Hezkuntza Saila. *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
10. Hezkuntza Saila. *2019-20 ikasturteko memoria, II Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
11. Hezkuntza Saila. Ebazpena, 2021eko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak gauzatzeko eskaera egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako. (IE2 Hezkuntza Inklusiboa eta Aniztasunari Erantzuna), Eusko Jaurlaritza, 2021.
12. Hezkuntza Saila. Ebazpena, 2021eko maiatzaren 13koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, 2021-2022 ikasturterako prestakuntzan eta ikaskuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroetan, berritzeguneetan eta ingurugeletan hainbat lanpostu —zerbitzu-eginkizunen, eta, hala behar balitz, behin-behineko esleipeneko erregimenean— betetzeko deialdia egiten da. Eusko Jaurlaritza, 2021.
13. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *IV, Gizarteratzeko euskal plana*, Eusko Jaurlaritza, 2017.
14. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *LGTBI pertsonen arreta emateko eta sexu eta genero-aniztasuna kudeatzen laguntzeko Berdindu Zerbitzuaren administrazio-klausula partikularren agiria*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
15. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *LGTBI pertsonen arreta emateko eta sexu eta genero-aniztasuna kudeatzearen alorrean prestakuntza eta laguntza teknikoa emateko Berdindu zerbitzu publikoaren prestazioari lotutako baldintza teknikoaren agiria*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
16. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Berdindu Eskola, LGTB diskriminazioko problematikak edo sexu-aniztasuna lantzeko interesak dituzten ikastetxeen aholku emateko zerbitzu espezifikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2019.

17. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Enplegu-plan estrategikoa 2017-2020*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
18. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana 2020*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
19. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. *EAEko Familiei laguntzeko erakunde arteko Plana 2018-2022*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
20. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. *Gazte Plana 2020*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
21. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. *Udaberri 2024, Bizikidetza, Giza Eskubide eta Aniztasunerako Plana*, Eusko Jaurlaritza, 2021.
22. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, *2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
23. Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Plana 2013-2020*, Eusko Jaurlaritza, 2013.
24. Osasun Saila. *Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
25. Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza. *Euskadi 2030 Gunea, Nola ezarri 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuei lagundu. Euskal erakundeentzako gida praktikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
26. eLankidetza. *Mundua Eskolan, eskola munduan material didaktikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
27. Emakunde. *Nahiko! programa. 2018-2019 ikasturteko ebaluazio orokorraren emaitzak*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
28. Emakunde. *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
29. Emakunde. *Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
30. Jokabide-nahasmenduak dituzten haur eta nerabeekin esku hartzeko protokoloaren jarraipenerako taldea. *Jokabide-nahasmenduak dituzten haur eta nerabeei arreta emateko diziplina anitzeko protokoloa martxan jartzeko gida praktikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
31. Bakerako eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. *Gizalegez akordioa*, Eusko Jaurlaritza, 2013.
32. Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Elkarrekin Bonuak programa*, Eusko Jaurlaritza, 2014.
33. Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Adi-adian hezkuntza-modulua, Giza duintasunari, bizikidetzari eta enpatiari buruzko ikaskuntzak, biktimen testigantzak entzuteko esperientziaren bidez*, Eusko Jaurlaritza, 2017.
34. Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *2017-2020rako bizikidetzaren eta giza eskubideen plana: gizarte elkartzeko helburu, enpatiaren aldeko hautua*, Eusko Jaurlaritza, 2017.

35. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Eskura Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroaren Proiektua*, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala, 2018.
36. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Herenegun unitate didaktikoa*, Eusko Jaurlaritza, 2018.
37. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Uztartu programa*, Eusko Jaurlaritza, 2019.
38. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. *Eusko Jaurlaritzak 2017-2020 legegintzaldian giza eskubideen eta bizikidetzaren alorrean sortutako dokumentuen bilduma, 6. kapitulua – Hezkuntza*, Eusko Jaurlaritza, 2020.
39. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. *Euskadi Basque Country 2030 I. Agendaren 4. Jarraipen Txostena*, Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza, 2020.
40. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. *2030 Agendaren lehen tasunen euskal programa, 2021-2024 jardun-plana*, Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza, 2021.

### **3. ERANSKINA. GJPK AZTERTZEKO TRESNA**

#### **1. blokea. IKUSPEGIA ETA LIDERGOA**

##### **1.1. KONPROMISO POLITIKOA:**

**HELBURUA:** Konpromiso politiko sendo eta inklusibo bat eta politikaren maila goreneko lidergo bat eraikitzea, Eusko Jaurlaritzak, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren arloan, giza garapen jasangarria sustatzearen alde egin dezala bultzatzeko.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da**:

- Eusko Jaurlaritzaren osoaren ikuspuntuak sendotzea balio eta hezkuntza-politika-eremuko prestakuntza-arloan GJPKrantz lehentasunezko arloak eta GJPKn aurrera egiteko epeak eta errendimenduko funtsezko adierazleak dituzten ekintza-planak definituz, eta emaitzak iritzi publikoari komunikatzea.
- Inklusioa, berdintasuneko (desparekotasunak gutxitzea), generoko, ingurumen-jasangarritasuneko (naturaren eskubideak) eta giza eskubideetako ikusmolde bat sistematikoki aplikatzea GJPKko esparruei 2030 Agendak pobrezia leku guztietan eta forma guztietan amaiarazteko duen anbizioarekin uztartuta, eta emakume eta neska guztiak ahaldunduz.
- Neurriak hartzea GJPK gobernu-egituraren barruan sustatzeko, eta, hori horrela, GJPKrekiko konpromisoak hauteskunde-zikloei eta Saileran izaten diren aldaketari biziraungo die, baita Saileran konposizioei eta Sailerako programei ere, erakunde lider baten identifikazioa barne, zeina balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan GJPK sustatzeko, ikuskatzeko eta aplikatzeko arduradun izango den.
- Eusko Jaurlaritzan lidergo-ahalmena garatzea sektore guztietan garapen jasangarriarekin koherenteak diren politikak sistematikoki formulatzeko, aplikatzeko eta ikuskatzeko.

#### **CHECK-LIST KONPROMISO POLITIKOA. Ebaluaziorako galderak**

- 1. Badago maila goreneko deklarazio politikorik Gobernuak giza garapen jasangarriarekin duen konpromisoa azaltzen duenik (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?**
- 2. Gobernuak maila guztiei eraginkortasunez komunikatzen zaie konpromiso hori?**
- 3. Gobernuak identifikatu ditu GJPKrako lehentasunezko arloak (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan) eta garatu ditu dagozkion ekintza-planak?**
- 4. Badago "katalizatzaile" instituzional bat (unitate zentrala, Saila, lantaldea, eta abar) GJPK sustatzeaz arduratzen dena (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta**

eremuan)?

5. Badago neurririk sektore guztietan garapen jasangarriarekin bateragarriak diren politikak modu koherentean formulatzeko eta aplikatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan) administrazio publikoaren ahalmena garatzeko?

## 1.2. EPE LUZERAKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

**HELBURUA:** Epe luzerako ikuspegi estrategiko bat zehaztea, aplikatzea eta komunikatzea, koherentzia politikoa bultzatu, eta Eusko Jaurlaritza eta alderdi interesdunak garapen jasangarriko helburu erkideetarantz bideratuko dituen.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da:**

- Garapen jasangarriaren arloan nahi diren emaitzak, eszenatokiak eta Hezkuntza Sailaren eta Gobernuko beste Sail eta instantzien arteko koherentzia hobetzeko ekintzak definitzen dituen epe luzerako ikuspegi estrategikoa garatzea tokiko zein nazioarteko giza garapen jasangarria eraginpean hartu dezakeen balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan.
- Egungo tresnak erabiltzea, hala nola aurreikuspen estrategikoa, eszenatokien garapena eta pentsamendu sistemikoko ikuspuntuak, hezkuntzako eta balioetan oinarritutako prestakuntzako politiken formulazioan eta aplikazioan, ongizatearen gaineko egiazko eta balizko inpaktuak identifikatzeko, prebenitzeko eta arintzeko, baita etorkizuneko belaunaldien garapen jasangarriko perspektibak ere.

### CHECK LIST EPE LUZERAKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOA. Ebaluaziorako galderak

6. Badago epe luzerako ikuspegi batean oinarritutako garapen jasangarrirako esparru estrategiko bat (estrategia nazionala, ekintza-plana, gidalerroak, eta abar) epe luzerako erronka konkretuak definitzen dituen eta gai ekonomiko, sozial eta belaunaldien arteko ingurumenekoekin lotutako helburu, erreferentzia-puntu eta adierazleak biltzen dituen (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?
7. Gobernuak tresna jakin batzuk erabiltzen ditu politiken formulazioan eta aplikazioan (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan), hala nola aurreikuspen estrategikoa, desparekotasunen azterketa, eszenatokien garapena eta pentsamendu sistemikoko ikuspuntuak?
8. Badago orientazio edo xedapen argirik erantzukizun politikoa duten pertsonak etorkizuneko belaunaldien eta beste lurralde batzuetako ongizatearen gaineko aurkako inpaktu egiazko eta balizkoen identifikazioan, prebentzioan eta arintzean gidatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

9. Badago xedapenik edo mekanismorik giza garapen jasangarriarekiko konpromiso iraunkorra bermatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan) hauteskunde-zikloetatik haratago?

10. Badago gunerik giza garapen jasangarrira bideratutako balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politiketan adituak diren eta epe luzerako ikuspegi estrategiko horren formulazioan laguntza eskatu dezaketen pertsonak biltzen dituen?

### 1.3. POLITIKEN INTEGRAZIOA

**HELBURUA:** Hezkuntza-politikaren eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren integrazioa hobetzea, GGJ haietan eta haien finantzaketan sartzeko bidea errazteko, eta, ildo horretan, politika ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren eremuan arteko sinergia eta onurak aprobetxatzea, baita autonomia-erkidegoetako eta nazioartean aitortutako garapen jasangarrirako helburuen artekoak ere.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da:**

- Aurrekontu-prozesuan eta kontratazio publikoan bildutako politikak planteatzeko mekanismo eta tresnak estrategikoki erabiltzea sinergiak eta konpentsazioak kudeatzeko, eta garapen jasangarria balioetan oinarritutako prestakuntzan eta hezkuntza-politikan integratzea.
- Giza garapen jasangarriaren ikusmoldea, dagokionaren arabera, balioetan oinarritutako prestakuntzarekin eta hezkuntza-politikarekin lotutako planetan, garapen jasangarriko estrategietan eta finantzaketa-planetan sartzea, eta laguntza-tresnak egitea, hala nola gidalerroak edo erregelamenduak, baita koordinazio-mekanismoak ere Hezkuntza Saila eta beste Sail eta gobernu-erakunde batzuei ere beren mandatuak, politikak eta helburu sektorialak garapen jasangarriko beste helburu zabalago batzuekin lerrokatu ditzaten laguntzeko.
- Tokiko eta nazioarteko garapena balioetan oinarritutako prestakuntzan eta hezkuntza-politikan integratzea GJHen inplementazioaren epe luzerako plangintza estrategikoaren maila guztietan sinergia handiena lortzeko.

#### CHECK-LIST POLITIKEN INTEGRAZIOA. Ebaluaziorako galderak

11. Badago gidalerrorik edo xedapenik garapen jasangarria Eusko Jaurlaritzaren plan eta politiketan sartzeko balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken arloan?

12. Badago lege eta erregelamenduen berrikuspen espezifikorik garapen jasangarriarekin gatazkan sartu diren eta garapen jasangarriko helburuak legeria berrian eta erregelamenduetan sartzen diren egiaztatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren



eta hezkuntza-politiken eremuan)?

13. GJH garapen jasangarria Eusko Jaurlaritzaren ekitaldi erregularretan integratuta dago (adibidez, plangintza, aurrekontu-prozesua)?

14. Badago esparrurik erakunde publikoen garapen jasangarriarekiko errendimendua ebaluatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

15. Munduko herritarren hezkuntza, (i)batetik, eta garapen jasangarrirako hezkuntza, bestetik, (ii)zenbateraino sartzen diren honako hauetan: (a) hezkuntza-politikak; (b) ikasketa-planak; (c) irakasleen prestakuntza; (d) eduki horiek prestatzea/bereganatzea erakunde publikoen barruan (funtzionarioak eta gainerako langileak); eta (e) ikasleen ebaluazioa (GJHen 4.7.1 adierazlea)

## 2. blokea. EKINTZA KOORDINATUA

### 2.1. POLITIKEN KOORDINAZIO HORIZONTALA (SAILEN ARTEAN)

**HELBURUA:** Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan diharduten Gobernuko instantzia guztien koordinazioa bermatzea, eremu horren lehentasunen arteko desadostasunak identifikatu eta arintzeko, eta Sailen eta Gobernuko beste instantzia batzuen artean elkarri laguntzeko ekintzak sustatzeko.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da**:

- Goi-mailako koordinazio-mekanismoak erabiltzea, Hezkuntza Sailaren Zuzendaritzan edo Gobernuko beste instantzia batean kokatuta daudela ere, dagokionaren arabera, GJPK eta garapen jasangarriaren integrazioa sustatzeko balioetan oinarritutako prestakuntzan, eta Sailen, zuzendaritzen eta beste instantzia publikoen arteko hezkuntza-politikan;
- Mandatu eta ahalmen garbiak ezartzea, eta baliabide egokiak mobilizatzea, dagokionaren arabera, GJPKk 2030 Agendaren aplikazioarekin lotutako desadostasunak eta gatazkak identifikatu ditzan balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan, dagokionean, eta zuzendu ditzala edo hobetzeko proposamenak egin ditzala;
- Sailen arteko eta Sailen eta beste instantzia batzuen arteko komunikazio eraginkorra bultzatuko duten gobernantza formaleko akordioak eta lan-metodo informalki sustatzea, haien babespean, balioetan oinarritutako prestakuntzari eta hezkuntza-politikari dagokionez.
- GJPKrako administrazio publikoetan ahalmena sortzea, beharrezkoa denean, eta balioetan oinarritutako prestakuntzarekin eta hezkuntza-politikarekin lotutako estrategiak eta agente publikoentzako programak GJHen helburuen printzipioekin eta izaera integratuarekin lerrokatzea.

## CHECK-LIST POLITIKEN KOORDINAZIO BERTIKALA. Ebaluaziorako galderak

16. Badago koordinazioko mekanismo formalik garapen jasangarriaren arloan (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?
17. Koordinazio-mekanismoa estrategikoki kokatuta dago Gobernuaren antolamendu-egituraren barruan koherentzia sustatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan) eta gatazka politikoak bideratzeko?
18. Badago mandatu argirik eta arbitraje-prozesurik gatazka politikoak prebenitzeko eta bideratzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?
19. Koordinazio-mekanismoak aukerarik ematen al du *ex ante* informatzeko politika nazionalen elaborazioari buruz balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan), baita kanpo-politikekin duen interfazeari buruz ere? Koordinazioko mekanismo formal horrek GJPK sustatzen duten ekimenak martxan jartzeko (beste Sail edo agente batzuekin) egin beharreko aliantzak identifikatzeko funtzioa dauka?
20. Badago euskal funtzionarioen etengabeko prestakuntza bultzatzen duen neurririk giza garapenaren eta jasangarritasunaren erronkekin lotutako zenbait gaitan?

**2.2. POLITIKEN BARNE-KOORDINAZIOA (HEZKUNTZA SAILAREN BARNEAN)**

**HELBURUA:** Hezkuntza Saileko maila delegatu eta operatiboak behar bezala konprometitzea ekintza koordinatuak sustatu ditzaten eta elkarren arteko koherentzia hobetu dezaten, garapen jasangarria bultzatzearen balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren bitartez.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da**:

- GJPK sustatzea balioetan oinarritutako prestakuntzarekin eta hezkuntza-politikarekin lotutako Hezkuntza Sailen maila guztietan, eta interes-talde nagusiekin (familiak, GGKE, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboak, eta abar) dagozkien lege-esparruetan GJPKren aplikazioa bermatzen duten tresnak, planak eta balioetan oinarritutako prestakuntzako eta hezkuntza-politikako ekintzak garatzeko, baita GJHak kokatzeko ere;
- Hezkuntza Saileko maila guztietako hezkuntza-politika eta hezkuntza-ekimenen arteko sinergiak sustatzea balioetan oinarritutako prestakuntzako eta hezkuntza-politikako helburuekin hobeto lerrokatzeko, eta helburu horiek lortzen laguntzea, nazioarteko konpromisoak eta garapenerako nazioarteko lankidetzaren helburuak barne, bere erantzukizunen eremuaren barruan eta modu orekatuan.

**CHECK-LIST POLITIKEN KOORDINAZIO BERTIKALA. Ebaluaziorako galderak**

21. Badago mekanismorik Hezkuntza Sailaren maila guztien arteko atzeraelikadura eraginkorrik bermatzen duenik garapen jasangarria lege eta erregelamenduetan integratzeari dagokionez (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?
22. Badago mekanismorik nazioarteko/garapeneko lankidetzako ekimenetan parte hartzen duten Hezkuntza Saileko maila guztietako erakundeen ekintza koherente eta koordinatua bermatzen duenik (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

**2.3. INTERES-TALDEEN PARTE-HARTZEA (familiak, GGKE, eta batez ere kalteberatasun-egoeran dauden talde edo kolektiboak, eta abar)**

**HELBURUA:** Alderdi interesdunak eraginkortasunez konprometitzea GJPKri babes zabalagoa eman diezaioten eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan aplika dezaten.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da:**

- Parte hartzeko guneak sortzea interes-talde bereziekin ziklo politikoaren hainbat fasetan, baita ezagutzen eta esperientziaren trukearen bidez ere, balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan GJPK hobetzeko ekimenak lehenesteko eta garatzeko, ahalegin espezifikoa eginez gizarteko talde baztertu eta kalteberengana iristeko;
- Ekimenak sustatzea interes-talde nagusiekin herritarrak sentsibilizatzeko, eta babesa mobilizatzea garapen jasangarrira eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan GJPK babesten duten gobernu-konpromisoetara, kanpainen, elkarrizketa politikoaren, ahalmenen sorkuntzaren eta informazio-trukearen bidez.

**CHECK –LIST ALDERDI INTERESDUNEN AZTERKETA. Ebaluaziorako galderak**

23. Badago mekanismo formalik bermatzeko interes-taldeen ekarpenak betiere erabakiak hartzeko prozesuetan sartuko direla (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan), eta talde horiei kontuak emateko?
24. Badago lege-xedapen eta gidalerro argirik kontsultatzeko eta politiken elaborazio-prozesuan parte hartzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?
25. GJPK hobetzeko interes-taldeen ekimenak sustatzen, babesten eta zabaltzen dira (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

### 3. blokea. INPAKTUA, ETA ERABAKIAK JAKINAREN GAINEAN HARTZEA

#### 3.1. INPAKTUAK POLITIKETAN ETA FINANTZAKETA

**HELBURUA:** Hezkuntzako eta balioetan oinarritutako prestakuntzako politikaren ondorioak eta haren finantzaketa aztertzea eta ebaluatzea, erabakiak hartzea oinarritzeko, giza garapen jasangarrian politika horrek dituen ondorio positiboak areagotzeko, eta talde kalteberenengan eta beste herrialde batzuetan —bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan— eragin ditzakeen ondorio negatiboak saihesteko.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da**:

- Ahal den neurrian, aldian behingo ebaluazioa sartzea balioetan oinarritutako prestakuntzatik eta hezkuntza-politikatik eratorritako garapen jasangarriari buruzko inpaktu positibo eta negatibo posibleak identifikatzeko eta ebaluatzeko, egungo tresnetan oinarrituta, hala nola ebaluazio estrategikoak eta arauekin, ingurumenarekin, gizarte-arloarekin, generoarekin, hirugarren herrialdeekin, inklusioarekin eta giza eskubideekin lotutako inpaktukoak.
- "Hemen eta orain", "beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin" eta "beste herrialde batzuekin, beste leku batzuekin" motako inpaktuak kontuan hartuko dituzten *ex ante* eta *ex post* inpaktu-ebaluazioko praktikak hartzea, garrantzi berezia emanez hemen inpaktu ekonomiko, sozial, generoko eta ingurumenekoei, batez ere talde kalteberenetan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan. Balioetan oinarritutako prestakuntzari eta hezkuntza-politikari lotuta daude inpaktu horiek, baita giza eskubideen sustapenari eta babesari ere. "Barrurako" inpaktu-ebaluazioak garatzea aldaketa neurtzeko GJPK lantzen duten euskal erakunde publikoetan aldaketa neurtzeko.

#### CHECK-LIST INPAKTUAK POLITIKETAN ETA FINANTZAKETA. Ebaluaziorako galderak

26. Badago aldian behingo ebaluaziorik proposamen politikoaren inpaktu positibo eta negatibo posibleak eta garapen jasangarriari buruzko araudiak identifikatzeko eta balioesteko (hemen eta orain, beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin, eta beste gizarte eta leku batzuekin) (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

27. Gobernuak *ex ante* eta *ex post* inpaktu-ebaluazioko jardunbide edo praktikak erabiltzen ditu hemen eta orain, beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin, eta beste herrialde eta leku batzuekin politikek dituzten inpaktuak kontuan hartzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan), arreta berezia emanez hemen talde kalteberenei eta garapen-herrialdeetako inpaktuei?

#### 3.2. JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA

**HELBURUA:** Jarraipen-, informazio- eta ebaluazio-sistemak indartzea froga kualitatibo eta kuantitatiboak biltzeko balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eta haren finantzaketaren inpaktuari buruz, eta eremu horri lotutako GJPKren arloan izandako aurrerapausoei buruz informazioa ematea.

Horretarako, honako hau **gomendatzen da**:

- Balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren, eta haren finantzaketaren inpaktuak ikuskatzea eta haiei buruz informatzea, toki-iturriak baliatuz, eskura ditugunean, eta balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuan GJPKren arloan izandako aurrerapausoei buruzko aldi behingo txostenak argitaratzea, betiere txostenetan egindako aurrerabideak eta garapen jasagarriak "hemen eta orain", "beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin" eta "beste gizarte batzuekin, beste leku batzuekin" izandako inpaktuei aurre egiteko kontuan hartu beharreko hobekuntza-arloak deskribatuta.
- Aldian behin informazioa ematea balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuko GJPKri buruz, eta, beharrezkoa denean, ahalmena eta abilezia sortzea datuak biltzeko, kudeatzeko eta gordetzeko, eta txostenak aurkezteko prozesuak sendotzeko.
- Koherentzia politikoko dimentsio bat sartzeari buruz balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politikaren eremuko ebaluazio-sistemetan, Gobernuaren beste politika batzuekin egon daitezkeen loturekin eta inplikazioekin erlazionatuta hartutako erabakien berri emateko, baita "hemen eta orain", "beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin" eta "beste gizarte batzuekin, beste leku batzuekin" izandako inpaktuekin erlazionatutakoen berri emateko ere.

#### CHECK-LIST JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA. Ebaluaziorako galderak

28. Badago ebaluatzeko eta txostenak aurkezteko mekanismorik sektore publikoaren barruko jasagarritasunaren balorazioa babesten duenik (hau da, aurrerabide-adierazleak, kostu-azterketak eta onurak, inpaktu-ebaluazioak) (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

29. Gobernuak erabiltzen ditu ebaluazio- eta azterketa-mekanismo horiek GJPK sustatzeko (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

30. Garapen jasagarriaren jarraipen-sistema konfiguratu duten eta hemen eta orain (GJPK sustatzen duen erakundeen barrurako efektuak barne), beste belaunaldi batzuekin eta planetarekin, eta beste erakunde eta leku batzuekin izandako efektuak kontuan hartzeko adierazleak garatu dira (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?

31. Modu gardenean informatzen zaio legebiltzarrari eta iritzi publikoari GJPKri buruz (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan) eta hezkuntza-politikak garapen jasagarrian duen inpaktuari buruz, prozesuak eta emaitzak ikaskuntza-klabeen bilduz eta ondorio nagusien inguruan informatuz?

**32. Kanpo-auditoriako erakunde independenteak parte hartu dute GJPK arloan izandako aurrerapausoen ebaluazioan (balioetan oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntza-politiken eremuan)?**

## **4. ERANSKINA. SAKONEKO ELKARRIZKETETARAKO GIDOIA**

### **1. blokea. IKUSPEGIA ETA LIDERGOA**

#### **1.1. KONPROMISO POLITIKOA:**

1. **GGJ** Giza Garapen Jasangarriarekin lotutako zer **printzipio eta baliok, helburuk eta ekintzak** bideratzen dute plan eta estrategia horien edukia eta zabalkundea?
2. Planteamendu horrek Eusko Jaurlaritzaren eta Hezkuntza Sailaren strategiaren bati eta orientazio politikoren bati erantzuten dio? Zein dira herrialde osorako plan horiek inspiratzen dituzten **esparru-estrategiak** eta zein beste beharko lirateke?
3. Printzipio eta balio horiek plan eta estrategia horietan parte hartzen duten **Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin partekatzen dira?**, Nola uste duzu hautematen dituztela eta integratzen dituztela beren parte-hartzeak ekimen horietan?

#### **1.2. EPE LUZERAKO IKUSPEGIA**

4. Zein dira plan eta estrategia horien bidez konpondu nahi diren **arrakalak**?
5. Zer tresna erabili dira zuk parte hartzen duzun planak egiteko (diagnostikoak, eszenatokiak, desparekotasunen azterketa)?, tresna horiek erakunde publikoetako langileen ekintzak eta parte-hartzea biltzen dituzte?
6. Eusko Jaurlaritzatik **kanpoko pertsonak** –GGJn edo plan eta estrategia horiek egiteko printzipio eta balio orientatzaileetan adituak direnek– esku hartu dute?

#### **1.3. POLITIKEN INTEGRAZIOA**

7. Nola integratzen dira zuk parte hartzen duzun plan guztien printzipio eta balioak **ikasketa-planen** konfigurazioan?
8. Nola integratzen dira Eusko Jaurlaritzatik abiarazitako **deialdien baremazioa egiteko** zuk parte hartzen duzun planetako printzipio eta balioak?
9. Zein da inklusioa, bizikidetzeta, berdintasuna, generoa eta giza eskubideak sustatzeko hezkuntza-ekintzek jasotzen duten **aurrekontu-zuzkidura eta baliabideen erabilera?**

### **2. blokea. EKINTZA KOORDINATUA**

#### **2.1. POLITIKEN KOORDINAZIO HORIZONTALA (sailen artean)**

10. **Sailen arteko koordinazio-egituren** funtzionamenduaren balorazioa: zuk parte hartzen duzun batzorde, mahai eta kontseiluak. Funtzionamendu egokia honako honetan nabarmentzen da: lantalde bat sortzen da, proiektu partekatuetan, jardunbide egokiak partekatzen dira, lidergo partekatua dago, planak eta strategiak modifikatzen dira eta abar. Zer neurritan gertatzen da hori zuk parte hartzen duzun batzorde, mahai eta kontseiluetan?, zein jardunbide egoki partekatuko zenituzke gurekin?

11. **Alderdi gatazkatsuak** daude, nola bideratzen dira?, Zein izango lirateke arbitraje-prozesuak kategoritzatzeko irizpideak?

## 2.2. POLITIKEN BARNE-KOORDINAZIOA (Hezkuntza Sailaren barnean)

12. Badago sailaren barneko koordinazio-mekanismoak (GGJren balio eta printzipioen zabalkundeari dagokionez)?, ikastetxe-mailako norainokoa du?, zein da zure balioespena mekanismo horien funtzionamenduaren inguruan?

## 2.3. INTERES-TALDEEN PARTE-HARTZEA

13. **Zein** dira interes-taldeak?, zer harreman-mekanismo dago haiekiko? GGJren balio eta printzipioen zabalkundearen gakoa gazteak direla uste duzu?
14. Interes-taldeei **kontsultatu** diezu?, planen elaborazioan **parte hartu** dute?, parte-hartze hori formalizatuta dago?, zein da zure balorazioa horren inguruan?
15. **Interes-taldeen** lana bultzatzen da?, haien ekimenak komunikatzen dira?, zein da zure balorazioa horren inguruan?

## 3. blokea. INPAKTUA ETA ERABAKIAK HARTZEA

### 3.1. INPAKTUAK

16. Badaude **emaitzei, prozesuei eta betetzeari buruzko ebaluazioak**, edo baita **inpaktuari buruzkoak** ere?, Zer aldizkakotasunarekin egiten dira?, Informazioa kontrastatzen eta partekatzen da interes-taldeekin?, Zein dira ebaluazio horietatik abiatuta hartzen diren erabaki mota edo aurrerapen nagusiak?
17. Zer **feedback** mota jasotzen da **beste Sail batzuen** eskutik hezkuntza-plan eta hezkuntza-estrategietan integratutako GGJaren printzipio eta balioen gainean?, feedback eta ebaluazio horrek errazten du baterako lan koordinatuago bat egiteko aukera?
18. Ebaluazio horietatik abiatuta, plan eta estrategia horiek Sailen artean modu koherenteago eta koordinatuago batean kudeatzearen haritik datozen onura eta kostuei buruzko gogoeta egiten da?, ikuspuntu horrek zure arloari eta Sailari zer ahalegin eskatzen dizkiola hautematen duzu?

### 3.2. JARRAIPENA, TXOSTENAK ETA EBALUAZIOA

19. Erabilgarriak dira planetan ageri diren **adierazleak**?
20. **Ebaluazio-txostenak** Legebiltzarrari eta iritzi publikoari **komunikatzen zaizkio**?, dossierretan edo agerraldietan sartu daiteke lagina erakusteko?
21. Egin da **kanpo-auditoria** independenterik?, txostenetan sartu daiteke lagin gisa eskuratzeko?